



# ttipi-ttapa



**Etixerik gabekoak artatu ditu alarma egoeran Arantzazu Lizartza leitzarrak** / 10



**Jon Erro lesakarra El Conquistador saioan egin duen bidez solasean** / 16



**Ixiar Bakero Goizuetako futbolari ohiaren ibilbidea hizpide** / 34



**ZOZKETA** / 50

Aritz PETRIRENA | Berako mendiko txirrindularia

## «BERTZELAKO BIZIMODUA ERAKUTSI DIT MENDI BIZIKLETAK»

Bizikletarekiko zaletasunak Kanadara eraman du Aritz Petrirena Bengoetxea. Urtebete darama etxetik kanpo eta gaur egun Columbia Britaniarrean dago, bere hitzetan, «mendi bizikletaren paradisia» den tokian. / 8



## Elkartasun sarea Zubietan

Martxoaren 13az geroztik bost afrikarrek Zubietan hartu dute aterpe. / 26

## Agenda

### UZTAILA ABUZZTUA



[www.berakoagenda.eus](http://www.berakoagenda.eus)



### OHARRAK

- Osasun egoeraren arabera, ekitaldi hauek aldaketak izaten ahal dituzte. Betiere, osasunak eragindako araudia betetzea izanen da lehentasuna.
- Ekitaldiek aldaketak izanez gero, [www.berakoagenda.eus](http://www.berakoagenda.eus) web orrian edo horren sare sozialetan jakinaraziko dira.

### Zaindu zu eta zure ingurukoak!

- Gel hidroalkoholikoa erabili beharko da.
- Elkarrekin bizi diren unitate familiarren kasuan bata bertzearen ondoan eseri ahalko dira.
- Aulkiak 1,5 m distantziara kokatuak izanen dira; baita lehenago desinfektatuak ere.
- Maskara erabiltzea gomendatzen dugu.
- Edukiera mugatua.

### UZTAILA

11 | KONTZERTUA  
Amak

LARUNBATA



19:00 Altzateko plaza.  
Informazio gehiago @AMAKtaldea (Twitter)

BERA

18 | EKITALDIA  
Shakti Olaizola:  
"Baldin bada"

LARUNBATA

19:00 Altzateko plaza.  
Informazio gehiago [www.shaktiolaizola.com](http://www.shaktiolaizola.com)

BERA



25 | EKITALDIA  
Hezurbeltzak

LARUNBATA

19:00 Merkatu plaza.  
Informazio gehiago [www.hezurbeltzak.com](http://www.hezurbeltzak.com)

BERA



26 | TXIRRINDULARITZA PROBA  
Berako XII. Saria  
(kadeteak).  
Luzera: 44 km

IGANDEA

Irteera 11:00 Bidasoa karrika.  
Helmuga 12:00 (g.g.h.).  
Ibitbidea 10 buelta zirkuitu honi: Bidasoa karrika - San Esteban karrika - Gernikako arbola zeharbidea - Gernikako arbola karrika - San Esteban karrika - Zalaingo biribilgunea - Zalaingo Indal. - Laminazioesko zubia - Bidasoko Trenbidea - Geltokiko zubia - Agerrako biribilgunea - Bidasoa karrika (helmuga)  
Antolatzailea Gure Txokoa elkarte

BERA

### ABUZZTUA

01 | KONTZERTUA  
Erabatera

LARUNBATA



19:00 Altzateko plaza.  
Informazio gehiago [www.erabatera.eus](http://www.erabatera.eus)

BERA

02 |  
IGANDEA

MASTER CAIXABANK  
PILOTA PARTIDA  
Urrutikoetxea-Iribarria  
Altxuna III-Imaz

17:00 Etxegara pilotalekua.  
Sarrerak salgai Agara prentsan eta [www.entradasfronton.com](http://www.entradasfronton.com)

BERA



03 |  
ASTELEHENA

SU ARTIFIZIALAK  
Oscense Piroteknia  
(Huesca)

23:00 Toki Onako patiotik.  
Informazio gehiago [www.pirotecnia-oscense.com](http://www.pirotecnia-oscense.com)

BERA



08 |  
LARUNBATA

KONTZERTUA  
Mugaldekoak Band

19:00 Altzateko plaza.  
Informazio gehiago [www.mugaldekoak.com](http://www.mugaldekoak.com)

BERA

15 |  
LARUNBATA

KONTZERTUA  
Old School  
Funky Family

19:00 Altzateko plaza.  
Informazio gehiago [www.osff.fr](http://www.osff.fr)

BERA



22 |  
LARUNBATA

KONTZERTUA  
Afrika Bibang

19:00 Altzateko plaza.

BERA



30 |  
IGANDEA

EKITALDIA  
Bat, 2, hiru...magia!

19:00 Merkatu Plaza.  
Informazio gehiago [www.magosun.com](http://www.magosun.com)

BERA





NIRE TXANDA

JOSEBIÑE AGIRRE SOTO

## Nork zainduko ditu?

Duela gutxi arte debekatua zitzaigun Zugarramurditik Sarara, Beratik Irunera pasatzea. Uda hasi da eta debekuok desagertu. Baina turistei ezingo zaie alde guzietan ate zabal irekiekin egin ongietorria. Aragoiko zenbait eskualde bigarren fasera itzuli dira, birusaren berragertzeak direla medio. Kasuen %40a fruta eta hiltegi enpresetako langile migratzaile sasoilarien artean agertu dira. Sasoilari migratzaile hauen gehien-goak kalean, edo etxebizitza ziztrinetan hamarnaka pilaturik pasa ditu martxotik maiatzera-ko ordu luzeak. Asko errepikatu da koronabirusarena pandemia MUNDIALA dela eta italiar zein nigeriar, aberats zein pobre, inor ez dela immune. Baina Donibane Lohizunen jendeak deus gertatu ez balitz bezala paseatzen du, eta bitartean Aragoiko langile migratzaile pobreenek pairatzen dute Covid-19a. Paperik gabeak eta hizkuntza zailtasunekin, bakarrik eta pobre, nork zainduko ditu?

«LANGILE MIGRA-TZAILE POBREENEK PAIRATZEN DUTE COVID-19A»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

## Ez dira haize-errotak, erraldoiak dira

Arazoi zuen On Kixotek, ez zegoen eroturik. Energia garbia sortzeko moztorpean multinazional erraldoiak diruz hornituko dituzten munstroak dira; beraien tresnatzarrak garraiatzeko ihintzez bustitako eta orbelez estalitako bidexka bihurriak errepide zabal, gris eta zuzenak bilakatu eta bizi-berritutako auzo ederra basamortu ilun bihurtuko lituzkete.

## NABARMENTZEKOAK



IERA  
AGIRRE ITURRIAGA  
PILOTARIA



JON  
PACHECO DOZAGARAT  
FUTBOLARIA

Master Cup txapelketako pilota goxoko binakako txapela jantzi du Iera Agirre leitzarrak Maite Ruiz de Larramendirekin bikotea osatuz. Finalean Galeano ahizpei 22-7 irabazi zieten.

19 urteko elizondoarrak Realeko talde nagusiarekin debutatu du. 2013an ailegatu zen Baztango futbol taldetik Realera eta poliki-poliki goiti egin eta talde nagusira ailegatu da.

## ATZERA BEGIRA



2010-07-08 · TTIPI-TTAPA · 522 zk.

## Mendialdea Mankomunitatearen sorrera

Duela hamar urte hasi zen lanean Mendialdea Mankomunitatea; Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Lekunberri eta Larraungo hondakinak kudeatzeko mankomunitatea, hain zuzen. Horren harira elkarrikatu zuen TTIPI-TTAPAK Xabier Zabalo orduko Leitzako alkatea eta mankomunitateko lehendakaria. Aldaketa nabarmena ekarri zuen zerbitzuak, bertzeak bertze, ordura arte bereizten ez ziren hondakinak bereizten hasi baitziren: «aspalditik zegoen bereizketa egiteko beharra, baina ez dakit zergatik berandu ailegatu da». Halaxe aitortu zuen Zabalok. Ordurako sei hilabeteko ibilbidea egina zuten eta «emaitza ikusita kontent» agertu zen: «hasiera guztiak gogorak izaten dira, baina zerbitzua ongi doa eta datuak onak dira»



erran.eus

TOKIKOM

### Argitaratzailea

Ttapi-Ttapa Fundazioa  
Koskontako bidea, 7 - 1.  
31770 LESAKA  
T. (+34) 948 63 54 58  
F. (+34) 948 63 54 57  
WhatsApp 744 48 43 61  
info@ttipi.eus

### Zuzendaria

Aitor Arotzena  
**Erredakzioa**  
Gurutze Pikabea  
Nerea Bazterrika  
Eneritz Iraola

### Publizitatea

Amalia Odriozola  
Arantza Agirre  
Usoa Vicente

### Berriemalleak

Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,  
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,

Arantxa eta Iraia, Iruñe Elizagoin,  
Maider Petrirena, Oihana  
Kalparsoro, Fermin Etzekolonea,  
Aintzane Leiza, Pablo Irastortza,  
Maite, Ana eta Itziar, Juan Mari  
Barriola, Marga Erdozain, Maitane  
Maritorea, Arantxa Iturralde,  
Arantxa Gamio, Jaione Ariztegi,  
Jaione Zabalo, Nerea Mortalena,  
Virginia Oteiza, Pierre Bastres,  
Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier  
Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione  
Mindegia, Olatz Mutuberria.

### Fundazioaren Presidentea

Pello Apezetxea  
**Kudeatzailea**  
Joxemanuel Irigoien  
**Administrazioa**  
Amalia Goia

### Lege Gordailua

NA-1324/85

### ISSN

1578-4673

### Tirada

6.000 ale

### Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,  
Baztan, Sara eta Senpereko udalak,  
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,  
Zugarramurdiko Akelarre elkartera

### 2020ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	39€
Leitza	28€
Hego Euskal Herria	47€
Ipar Euskal Herria, Europa	86€
Amerika eta Australia	139€

Nafarroako  
Gobernua



Gobierno  
de Navarra





## KOLABORAZIOAK

MIKEL SAGASTIBELTZA LASARTE

## Hori egiteko

Edonork daki hezkuntza dela oinarrizko zein goi mailako ezagutza garatzeko instituzioa. Polizia dela segurtasuna ziurtatzen diguna. Epaitegietan bermatzen dela justizia. Komunikabideena dela egia zabaltzeko eginkizuna. Baita politikariak hautatzen direla herritarren nahia bete dezaten ere.

Hala, zerbaitek huts egiten duenean, arlo horretan aldaketa behar dela ondorioztatzen da: pedagogia berria behar dela, polizia eredu berria behar dela, epaileren bat kanporatu behar dela edo alderdi politiko baten aldaketa beharrezkoa dela.

Badaezpada argituko dut orain arte idatzitakoak dena zuela ironiatik. Instituzio bakoitza makina beraren pieza da, eta makina batean pieza bakoitzak badu bere tokia, bere funtzioa. Lotsarik gabe esaten dute –okerrago, harrotasunez– hezkuntza arautuaren helburua ikasleak merkaturatzeko prestatzea dela. Merkatuak ez balu krudeletik ezer bezala. Ez bagina ariko propietate pribatuak, salerosketa libreak eta gainbalioaren erauzetak agintzen duten kapitalismoa erreproduzitzen bezala.

Hezkuntza arautuan ikasten da ikastetxera, lantokira bezala, puntual joaten. Ikasten da isilik egoten eta eserita

**«INSTITUZIO BAKOITZA  
MAKINA BERAREN PIEZA  
DA ETA BAKOITZAK  
BADU BERE TOKIA»**

orduak pasatzen. Ikasten da kasu egiten, esaten dena egiten eta egiten ez bada zer gertatzen den. Zer esanik ez edukiaren inguruan. Irakurgaietatik hasi, historiari ostikada batzuk ematera pasa eta

azkenik marxismoa zaharkituta geratu dela entzun, marxismoa inoiz behar bezala landu ez duenaren ahotik.

Hala ere, hasieran esan bezala, klaseak dibertigarriagoak ala aspergarriagoak izan, pedagogia bat edo beste erabili, ebaluazio irizpide batzuk edo beste izan, ikasleak otzan merkaturatzeko prestatzearen funtzioak bere horretan iraunen du. Ez dut honekin esan nahi hezkuntza arautuak ez duela ezertarako balio. Are gehiago, nire ustez garrantzitsua da ikasketa prozesuari ahalik eta zuku gehien ateratzea. Ordu asko, egun gehiegi pasatzen dira bertan, zukurik atera gabe igarotzeko. Sozializazio esparru garrantzitsuak dira bai oinarrizko hezkuntza zein goi mailakoa ere, hobekuntzak borrokan irabazteko esparru, lan eta ikasketa gaitasunak lortzeko tokia izan daiteke, mundua ulertzeko baliabideak eskuratu daitezke...

Mundua ulertu ez soilik teorian, izan ere, errealitatea ulertzea harreman sozial kapitalistak iraultzeko zer egin behar den jakitea da, hori egiteko.



IZASKUN IGOA JAIMERENA

## Azpian zein lur, gainean halako bizi

Lurren gainean pausatzen gara eta haien gainean eraiki, sortu. Eta lur bihurtzen dira, bai zapatzen dugun lurzoru baita pentsamenduen zola ere. Haien gainean ibiltzen gara, aunitzetan azpian zer dagoen ikusi gabe, zeren gainean sortzen garen nabaritu gabe.

Lur horiez gain, geure lehen lur bat ere badugu. Quitoko *Colectivo Miradas Críticas del Territorio desde el Feminismo* taldeak gorputza kokatzen du bertan. Halaxe diote: gorputza gure lehen lurralde bezala pentsatzen dugu, eta lurraldea gorputzean antzematen dugu; bizi garen lurra bortxatzen direnean, geure gorputzetan dago eragina, gure gorputzetan eragiten denean, bizi ditugun lurra bortxatzen dira.

Lurra azken finean oinarria da; guztiak badu ikusten dena baino aunitzez sakonagoa den oinarri bat eta gu hartan bizi gara. Kontua da batzuetan zaila izaten dela jakitea (eta geure buruari onartzea zer erranik ez) edo ez dugula jakin nahi izaten zein oinarri ari garen eusten, bizitzeko dugun formarekin, pentsatzen ditugun pentsamenduekin, plazer eta sufrimenduekin dugun harremanarekin, egiten ditugun ekintzekin, gure gorputzetan bizi garen moduekin, gorpuzak tratatzen ditugun erarekin, erraten dugunarekin edo ez dugunarekin erraten, dantzatzen ditugun dantzekin edo ez

**«GUZTIAK BADU  
IKUSTEN DENA BAINO  
SAKONAGOA DEN  
OINARRI BAT»**

ditugunekin dantzatzen, sortzen dugun musikarekin edo ez dugunarekin, begiratzen dugun moduekin eta ikustera iristen garena-rekin.

Eta akaso oraindik zailagoa, ohituraren ohituraz

egin dugun hori egitetik uztea. Ohiturek segurtasuna ematen baitute zu lur horretakoa bazara eta lur horretan izaten uzten bazaituzte. Hori ez denean kasua, ez hainbertze. Batzuetan, garai batean sortu zenaren zati bat hiltzen utzi behar izaten dugu, izan zenak izanen denari tokia uzteko, izan zenetik izanen dena sortzeko.

Hala, sortzen ditugun lurretan, geure buruari galdetu beharko diogu nor sartzen diren, zein gorputz egon daitezkeen eta zein ez, zeinentzat den zola eta zeinentzat oztopo. Eta denon ardura ere izan daiteke, oztopoa denetan, hazi berriak landatzea zaharrekin batera; zutik, eserita edo herrestan ibiltzeko. Zutik, eserita edo herrestan bizitzeko.

Maite ditut aldatzen diren lurra, eraldatzen laguntzen dutenak, zapatu daitezkeenak, kabitzen uzten dutenak. Maite ditut heriotza bizi dutenak, amaiera dastatzen dutenak, minak onartzen dituztenak eta tokia ereiten dutenak. Behin eta berriz, gero eta gehiagori, sortzeko lekua ematen dietenak.

Izaten uzten duen lurra.

## 11 GALDERA LABUR

JON INDA IRIGOIEN RALLY KOPILOTUA

## «Kopilotuarengan konfiantza osoa izatea beharrezkoa da»

### **Zeure burua hitz gubxitan.**

Donezteben bizi den 23 urteko mutiko alai eta umila.

### **Zer zaletasun dituzu?**

Rallyak, mendia eta, gazte guztiak bezala, besta egitea.

### **Nondik heldu zaizu motor zaletasun hori?**

Ttikia nintzela, aitak zonaldean egiten ziren rallyetara eramaten ninduen. Hortik afizioa hartzen hasi nintzen eta, 14 bat urte nituela, zaletasun hori handituz joan zen.

### **Kopilotu ibiltzen zara... Noiztik?**

Joan den urtean hasi nintzen. Normalki Jon Jaen oiztarrarekin atera izan naiz, baina iaz Malerrekako Rallysprintean Sunbillan bizi den Inhar Amena-barrekin atera nintzen.

### **Nola oroitzen duzu lehenbiziko lasterketa?**

2019ko martxoan egin nuen Hondarribin, Bidasoko rallya. Ilusio handiarekin oroitzen dut, amets bat izan zen. Denetarik pasatu zitzaigun arren, akitzea lortu genuen eta junior mailan irabazi genuen.

### **Kopilotuak heldu diren zatien jarraibideak ematen ditu... dirudiena baino gehiago da duen ardura?**

Kopilotuak ardura aunitz ditu: dena ongi ateratzeko ordutegiak ikusi, roadbooka... Gainera, kopilotuak emandako jarraibideen arabera egiten du lasterketa pilotuak, eta konfiantza osoa behar da.

### **Zertan baldintza dezake kopilotuaren lanak karrera bat?**

Irteerara berandu ailegatzea, galtzea edo, kasurik okerreanean, jarraibideak gaizki eman eta istripua izatea eragin dezake.



### **Rallyetan ibiltzea ez da autoa hartu eta pistara ateratzea bakarrik...**

Autoak mantentze-lan handiak behar ditu, eta ez da batere merkea. Horrek diru aunitz gatzatzea dakar.

### **Noizbait pentsatu duzu kopilotu izatetik piloto izatera pasatzea?**

Bai, baina oraingoz kopilotu jarraituko dut.

### **Aurten antolakuntzan sartu zara. Lan handia izan da?**

Hasieratik antolatzaileei ahal dudan guztian lagundu diet

eta aurten automobil-taldean sartu naiz. Rally egunaren aitzinetik hilabete batzuetako lana dago, ikusten ez den lan aunitz, paper kontuak... eta denen artean hobeki egiten da. **Uztailean Malerrekako IV. Rallya izanen duzue. Nola animatuko zenuke jendea parte hartzera?** Nafarroako lehendabiziko rallya izanen da, eta tramo luze eta polita da, bi aldetara egiten dena. Etortzen diren parte-hartzaileak ez dira damutuko.

Merkealdia

**1951tik**  
**Casa Cambra**  
**lentzeria-etxea**

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

*Albornozak*  
*Mantelak*  
*Kuxinak*  
*Edredoi nordikoak*  
*Ohe estalkiak*  
*Maindireak toailak*  
*Edredoi-azal nordikoak*

## IRAKURLEAK MINTZO

**Udako fenomeno aldaketa****ITZIAR BAZTERRIKA**

Ortzeguna da, egunero bezala nire zakurrarekin atera naiz paseo bat emateko intentzioz. Herrian barrena ez dabil jende aunitzik, oraindik goiz da. Etxe ederren atarietatik pasatu naiz, txalet berrietatik, lorategi zabala duten hainbat bizitokitatik. Guztietan irudi bera errepikatzen da, igerileku urdin bezain zabal batena. Oinez hurbiltzen naizen heinean, hainbat motakoeekin egiten dut topo: puzgari modukoeekin, desmuntagarriak direnekin, edota lurrekoeekin, kasu bakanen batean. Azken hilabetean, ikaragarri hazi omen da hauen salmenta eskualdean. Herri txiki hauetan, klase sozialen arteko aldeak handitzen dituen fenomeno baten aitzinean gaudela erratera ausartuko nintzateke.

Argi dago, gainean dugun uda bereziaren argazkia izango direla, eta beldur naiz azken boladan hainbertze faltan bota dugun plaza giroari kalte eraginen ote dion. Familia bakoitza bere etxean, bere seme-alabekin geldituko ote den, uda giro individualista baten atarian egonen garen.

Ez dut nire haurtzaroa horrela oroitzen, guk errekan pasatzen genituen udako arratsaldeak: animaliak ikertzen, harriekin presak egiten edo aitak lanetik ekarritako gurgipen kamerekin herria gurutzatzen. Naturarekin izaten genuen kontaktua zuzena zen. Gauzak aldatu dira, egia da, egungo bizimodura egokitu behar dugu. Baina, jasan dugun konfinamendu honek zerbait argi utzi digula uste dut, gizakiak, eta haurrak bereziki, izaki sozialak garela, eta lagunekin harremanak izateko eta komunikatzeko beharra ezinbertzekoa dugula.

**Haizeak eramanen ez dituen Lesakako auzoak****ANA ALTZURI LASARTE | ENDARA BIZIRIK**

Mendian lar artean aurkitzen dira auzo batzuk, aurrean endararrak auzoei begira. Auzotarrak ikusirik ENDARA EZIN BIZIRIK haize errotak kendu nahi dizkio- te, bizitzen segi dezan.

*Amaren eskuak* aspaldi da ukitzen ez nautena, babesten ez nautena. Esku haien faltan, nirea ez den *aitaren etxea* babesten topatu dut neure burua, gure burua, gure etxeak, Endarako etxeak.

Endaran *bizi nahi dugu libre, zuen legeen kontra, zuen usteen kontra*. Izan ere, hemen *Mari* aunitz gara eta ez dugu inorentzat izan nahi. *Gizonak* ere badira, denak baturik, inor ez *bere bakardadean*, denak helburu bakarrarekin, haize errotetatik *libre izateko, horrela baikara jaioak. Ez, ez daiteke dena erosi zuen kaiola erraldoietatik, hemen kexu gara, baina ezin deza-kegu katez aldatu.*

Lesakako mendiez solasean, ezin Laboa ahantzi, *izarren hautsak* harrotuko lizkio- keten haize errotak. Ezin isildu, *maite ditugulako maite gure bazterrak, lanbroak izkutatzen dizkigunean*. Ez gaitu, ordea, hauspean gorde, *hauts hartatikan uste gabean gu ernatu ginen, atsedetik hartu gabe, lana eginez goaz aurrera, kate horretan, denok batera*, gogorki oihukaturik ENDARA BIZIRIK.

**Bortzirietako Guztiok Taldearen tonbola solidarioa****NAGORE ARRETXEA OIARTZABAL |****BORTZIRIETAKO GUZTIOK ELKARTEAREN IZENEAN**

Dagoeneko, aste batzuk pasa dira, gure elkarteak tonbola solidarioko zozketa egin zuenetik. Pasa den urte bukaeran buru-belarri hasi ginen proiektu honekin eta Bortzirietako komertzio eta zerbitzuekin kontaktuan jarri ondok, emaitza bikaina jaso genuela erran beharra dugu. Guztira, 101 sari banatu genituen Bortzirietako zerbitzu eta komertzioen laguntzarekin. Zozketa maiatzaren 29an Xorroxin irrastian zuzenean egin genuen eta

nahiz eta alarma egoerak erdiz erdi harripatu gintuen, izandako emaitzarekin kontent gaude.

Aipatu nahi dugu, Bortzirietako Guztiok Taldea elkarte, irabazi asmorik gabeko elkarte bat dela eta Bortzirietan, behar bereziak (edota momentu konkretu batean behar berezi bat izan), edota desgaitasunak dituzten umeentzako lan egiten dugula. Zonaldean ase gabe dauden osasun arloko gaiak bertaratzen saiatzen gara, hiriburueta maiz joan behar ez izateko.

Bortzirietan, beraientzako terapiak eta ikastaroak antolatzen saiatzen gara (hidroterapia, fisioterapia, psikologia zerbitzua, txakurrekin terapia edota anai-arrebentzako talde terapiak). Aipatu nahi dugu, terapia berezi hauek, edozein ikastaro baino garestiagoak direla eta dirulaguntzei esker antolatu ahal izaten ditugula. Hori dela eta, jasotzen ditugun dirulaguntzez gain, egiten ditugun tonbola solidarioak, kontzertuak... behar-beharrezkoak ditugu, terapia hauek bizirik jarrai dezaten eta Bortzirietako neska-mutikoei horren beharrezkoak dituzten terapiarik gabe geldi ez daitezten.

Guzti honekin, eskerrak eman nahi dizkiegu, tonbola solidario hau aurrera eramaten lagundu diguten Bortzirietako komertzio, zerbitzu edota pertsona anonimoei, zozketa erraldoia izan delako. Baita txartelak erosi eta saldu dituzuen guztiei ere. Zuen laguntzari esker, gure neska-mutikoei terapiak izaten jarraituko dute. Mila esker!

**EITB-k non du burua?****XANTI BEGIRISTAIN MADOTZ**

Horixe, bai jaun-andreok! EITBk non du burua? Are gehiago, ba al du bururik? Segur aski, bai, baina asko eta askotan ez da gehiegi nabaritzen. EITB euskara –kalitate onekoa, ulertzen da– bultzatzeko sortu omen zuten, baina gero ikusten dugu, askoz ere gehiago inbertitzen dutela ETB2n, esate baterako, ETB1en baino. Ez hori bakarrik, baizik eta oso sarritan gainera, euskarazko telebistan, iragartzen dizkigu-

**IRAKURLEAK MINTZO**

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58

te ETB2ko programak, euskaldunok beren erdarazko telebistako programa zoragarri erdaldun horiek ikus ditzagun, eta, era horretan, mendeetako tradizio baldar horrekin aurrera jarrai dezagun, alegia, gehiago espainiaritzen (Iparraldean, frantsesten) eta, ondorioz, erdal hizkuntzak eta kulturak hobeki jakiten gureak baino; hau da, erdaldun peto-petoak bihur gaitzen, eta harrotasunez gainera. Ondorea, denok dakiguna da: ETB1ek %1eko audientzia (ziur asko, bere historia osoko txiki-ena), eta, ETB2k %12-%14koa; erdiak baino gehiago gainera, euskaldunak. Argi dago, inbertitu gabe ez dago miraririk egiterik!

Baina goazen pixka batean, ETB1en erabiltzen duten euskararen kalitatea aztertzea. Konparaziora, azken bospasei aste hauetan aspertu arte entzun dugu albistegietan ditzosozko 'aforo' hitza, beste perla askoren artean. Bueno, bada, ikus dezagun zer agertzen den Euskaltzaindiaren Hiztegian 'aforo' hitza bilatuz gero: (Oharra: Euskaltzaindiak, 'aforo'-k euskara idatzian izan duen erabilera kontuan harturik, hitz hori ez erabiltzea gomen datzen du; ik. edukiera; neurketa). Horra hor, bada, zer-nolako jaramon egin dion ETB1ek euskararen akademiari!

Eta antzeko beste kasu batzuk bakarrik aipatzeagatik, hona hemen, edozein egunetan entzun edota irakurri ahal diren beste gozokeria batzuk, telebista berean: faltan bota (falta nabaritu); kuarentena (berrogeialdi); maskarilla (maskara); plantara igo/eraman (solairu, estai); elkar zaindu gara (elkar zaindu dugu); Ekliipse penunbrala (ilunantz); kontagiatu (kutsatu, erantsi); bakunatu (txertatu); sanitarioak (osasun langile, osasun-langile); dagokionean (dagokionez) eta abar, eta abar.

Norbaitek agian pentsa lezake nik gorroto diodala EITBri, eta esan beharrean nago, guztiz oker dagoela, are gehiago, nik ikusi eta entzuten ditudan hedabideak hauek dira: ETB1, ETB3, Euskadi Irratia, Euskadi Gaztea, EITB euskal kantak, Berria egunkaria, Argia aldizkaria, Mailope aldizkaria, Euskalerrria Irratia, Administrazio aldizkaria eta abar. Besterik gabe, euska-

raz bizitzen saiatzen naiz; ez dago beste misteriorik, eta, gertatzen dena, zera da, esate baterako, ETB2, Radio Euskadi, Radio Vitoria, Deia, Diario Vasco, EITB musika eta abar, ez direla oso lagungarriak zeharo euskaraz bizi ahal izateko.

Beharbada, eta, era berean, beste norbaitek esan lezake, ea EITBk nola jakinaraziko dizkien Euskaltzaindiaren informazio hauek denak, munduan zehar barreiaturik dauden bere erreportari guztiei. Erantzuna arrunt erraza da: barne buletin baten bidez, gaur egun dauden zientzia eta teknologiarekin, oso erraza izan liteke, benetako interesa baldin balego.

Bukatzeko, nikeuskara bere osotasunean estimatzen dut, baina, jakina, zenbait lekutan euskara jasoa behar da, eta ez zabarkeriarik.

## BOTA BERTSOA



**GORKA URTASUN SALDIAS**  
IRURITAKO BERTSOLARIA

### Kirolaren sukarra

Doinua: Habanera

*Konfinamenduan ezin egin pausoa kalera zapatilak jantzi eta irten laster egitera rodillo bat eukitzea luxua baitzen gainera zunba, aerobika, yoga tonifikazio ta zera Covid-a eta kirola bi sukar, zenbat tankera azkar eta erreztasunez iritsiak jendartera ni neroni 'gaixo' nago bertze aunitzen antzera kirolik ez egitea jada ez al da aukera?*

*Itxialdia akitu ta hurrengo pasarte bizikleta ez zuenak bat berria erostea Zapatilak ere berdin ta ahal bada ez merkea nahi gabe bihurtu gara 'Birus' berri honen partea inoiz egin gabekoak orain egiten hastea edo aunitz egin eta gehio behar izatea kostatzen zaigun ondorio Batzutara iristea kirola osasuntsu dela baino neurritz egitea.*





Aritz Petirenak bizikleta du pasio eta horri tiraka urtebete darama etxetik kanpo bizikletaz gozaten.

## «Bizikleta gainean dudan sentsazioak adikzioa sortzen dit»

ARITZ PETIRENA BENGOTXEA BERAKO MENDIKO TXIRRINDULARIA

Bizikletarekiko zaletasunak sorterritik urruti eraman du Berako gaztea. Urtebete darama etxetik kanpo eta egun Kanadako Columbia Britaniarrean dago, «mendi bizikletaren paradisia» den tokian

G. PIKABEA | BERA

Anaia zaharraren arrimuan egin zituen bizikleta gaineke lehenbiziko saltoak Aritz Petirena Bengoetxea 28 urteko beratarrek. Eta bizikletarekiko pasioak hortxe segitu du geroztik. Maldarik handienetan beheiti edo salto ikusgarriak eginez gozaten du eta hala segitzeko nahiak sorterritik urruti eraman du, Zeelanda Berrira lehenbizi eta Kanadara gero. Handik erantzun dizkio galderak TTIPI-TTAPARI, bere hitzetan, «mendi bizikletaren paradisia» den tokitik. Urtebete darama etxetik kanpo eta Kanadako Columbia Britaniarrean bizi da gaur egun. Chevrolet furgoneta etxe bi-

lakatuta esperientzia ederra izaten ari dela kontatu dio TTIPI-TTAPARI.

**Zure zaletasun nagusia mendi bizikleta dela erraten ahal dugu, ezta?**

Bai, mendi bizikleta eta BMX modalitatea dira nire afizio nagusiak. Bizikleta gainean sentitzen dudan sentsazioak adikzioa sortzen dit. Konfort delakoa edo erosotasuna alde batera utzi eta mugak proba-

tu eta gainditzeak sortzen didana gustuko dut.

**Nondik eta noiztik datorkizu mendi bizikletarako afizioa?**

Anaiarengandik datorkit. Anaia zaharragoak egiten duena egin nahi izaten da beti eta horrela hasi zen dena. Mendi bizikletako jaitsieratan ibiltzen zen eta posible genuen guztietan, gurasoak eta ni, lehiaketetara laguntzera joaten ginen. Hagitz kirol garestia

**«BERTZELAKO BIZIMODUA EMAN DIT MENDI BIZIKLETAK»**

**«LAGUNEKIN IBILTZEAK BETETZEN NAU, ETA EZ LEHIATZEAK»**

denez, Beran bizikletarekin saltoak egiten hasi ginen, Ado anaiek etxeko lorategian horretarako prestatuak zituzten saltoetan. Orduz geroztik bizikleta gainean daramakit bitzta osoa, baina mendi bizikletan orain dela hiru urte hasi nintzen.

**Zer eman dizu mendi bizikletak?** Bertzelako bizimodu bat eskaini dit mendi bizikletak, mundua bertze begi batzuekin ikusteko aukera. Lagunekin une ikaragarriak pasatzeko eta munduan barrena bidaiatu eta jendea ezagutzeko bide ere eman dit.

**Lehiatzea gustuko duzu?**

Ez zait mendi bizikletan lehiatzea gustatzen, lehiaketek sortzen duten estresa eta lehiakortasuna ez ditut gustuko. Lagunekin bizikletan ibiltzea da gehien betetzen nauena.

**Orain, Kanada aldean zbiltza.**

**Zergatik Kanada?**

Mendi bizikletaren paradisia delako eta horrez gain, hemengo [Kanadako] paraje eta animaliak ikaragarriak iruditzen zaizkidalako. *Working Holiday* bisa lortu nuen eta horri esker, urte bateko bisa lortu dut eta aldi berean, lan egiteko aukera eskaintzen dit. Urtebete bada Iñigo Ekisoain 27 urteko Inbuluzketako gaztea eta biok etxetik atera gizona.

**Zein ibilbide egiten ari zarete?**

Hilabete pare batez, Vancouverren lanean aritu ginen diru pixka bat irabazteko eta handik errepidera abiatu ginen. Lehenbiziko, Rocky Mountainera joan ginen eta ezagunak diren laku urdin eta mendi ikaragarriak ikusteko aprobe txatu genuen. Handik AEBra pasatu ginen eta animalia basatiengatik ezaguna den Yellowstone parke nazionalera joan ginen. Animaliak beraien habitatean ikusteko aukera izan genuen. Handik hegoaldera jo genuen, Utah estatura ailegatu arte. Utahko basamortuan barrena, bizikletekin harrapatzen genituen gailurretara igoz ibili ginen



gero bizikletarekin malda beheiti jaisteko. Utah alde batera utzi eta mendebaldera jo genuen, Kalifornia aldera. Bidean Las Vegaseko kasinoak eta hotelak ikusteko gelditu ginen eta Kalifornian hain ospetsuak diren tokiak ere bisitatu genituen: Los Angeles, Hollywood, San Frantzisko, Yosemite... Hango egonaldiaren ondoren, iparralderako bidea hartu genuen eta Kanadara ailegatu ginen. Hementxe segitzen dugu. Momentu honetan geldirik gaude, baina Alaska aldera joateko asmoa dugu dena lasaitu eta mugak irekitzen badituzte.

#### **Zer moduzko esperientzia izaten ari da?**

Esperientzia bikaina izaten ari da. Kanadako Columbia Britainiarraren txoko guztiak bizikleta gainean ezagutzea ikaragarria da.

#### **Zein da gaur egun zure egunerokoa?**

Eguna gosari eder batekin hasten dugu eta ondoren, bizikleta hartu eta mendira joaten gara egun-pasa. Eguraldi ona bada, lakuren batean bukatzen dugu eguna.

#### **Gastuei nola egiten diezu aitzin?**

Momentu honetan ez nago lanean, baina neguan jantxe batean lanean aritu nintzen eta hor egindako diruari esker egiten diet aitzin gastuei.

#### **Koronabirusaren ondorioz sortu den egoerak egunerokoa aldatu dizu?**

Egoera nahiko ongi dago. Iru-di duenez, neurriak agudo hartu zituzten eta egia errateko, ez dago kutsatu aunitzik. Baina nire kasuan, egunerokoa zerbait aldatu dit. Koronabirusaren ondorioz, lanean nintzen jantxe itxi zuten eta etxera bisitan joateko hegazkina bertan behera utzi zidaten.

#### **Mendian bizikletan Euskal Herrian edo Kanadan ibili, alde handia da?**

Bai, alde handia dago. Erranen nuke inoiz ailegatuko ez garen mailan daudela; hemen [Kanadan] hasi zen egiazko men-



Petritena bizikleta gainean, trenbidea alde batetik bertzerara airean zeharkatzen. SERGI MASSOT

di bizikleta. Etxean gordeka ibili behar izaten dugu bizikletan ibiltzeko edo bidexka berriak egiteko. Hemen, ordea, legalki horretarako prestatu-tako tokiak dituzu ia herri guztietan.

#### **Zer da handik gehien gustatzen zaizuna?**

Mendi bizikletak duen kultura. Mendira bizikletarekin zoazela, edozein adin eta generotako jendea ikusten da bizikleta gainean disfrutatzen, eta karraketan ere bizikleta aunitz ikusten dira...

#### **Euskal Herrian ba al dago halako tokirik?**

Hemengo nibela duten tokirik ez dago, baina badira legez eginiko bidexkak dituzten herri batzuk.

**«ETXEAN GORDEKA  
IBILI BEHAR DUGU  
ETA HEMEN NONAHI  
BADA AUKERA»**

#### **Furgoneta batean egiten ari zarete bidaia. Zer moduz?**

Negua etxe batean pasatu nuen baina negua pasatu orduko, berriro furgoneta hartu nuen abentura bila abiatzeko. Orain dugu bizimodurako furgoneta etxe bezala izatea bikaina da. Behar dugun guziaz eskura dugu eta nahi dugun tokian egoteko aukera eskaintzen dugu.

#### **Berara noiz itzultzeko asmoa duzu?**

Bizikletaren denboraldia bukatzean bueltatuko gara etxera, azaro aldera. Bitartean, posible dudana denbora guztia bizikleta gainean pasatu nahiko nuke, eta bide batez, jendea eta tokiak ezagutzen segitu nahiko nuke.

**«EZ DUT USTE  
ERRONKA HANDI  
GEHIAGO ETORRIKO  
DIRENIK»**

#### **Lehendik halako bidaiarik egina zenuen?**

Bai, orain dela hiru bat urte Zeelanda Berrian izan nintzen. Orain Kanadan dudana bezalako furgoneta bat erosi eta herrialde guztia ezagutu nuen Iñigo Blas beratarrarekin batera. Orduan ere bizikleta ondoan ibili ginen.

#### **Horrelako erronka gehiago etorriko ote dira?**

Egia errateko, ez dut uste horrelako erronka handi gehiago etorriko direnik, baina seguru nago bidaia gehiago etorriko direla!

#### **Etorkizunean non ikusten duzu zeure burua?**

Etorkizunean sobera ez pentsatzen saiatzen naiz eta orain ahalik eta gehien disfrutatzen. Baina espero dut etorkizunean ere bizikleta gainean egotea, orain bezala, lagun artean ongi pasatuz. Bide batez, jendea bidaiatzeko aholkua lutzatuko nioke, bidaiatzek bertzelako ikuspuntuak eta baloreak erakusten dituelako.

## «Babesa, zaintza eta maitasuna behar dituzte etxegabeek»

ARANTZAZU LIZARTZA SAIZAR MEDIKU LEITZARRA

Etterik gabeko 160 pertsona artatu ditu alarma-egoerak iraun bitartean. Bertan bizitakoak erakutsi dio beste guztiaren gainetik entzuna izateko premia duela ikusezina den kolektibo honek

**E. IRAOLA** | LEITZA

Hainbat arazo sozial agerian utzi ditu Covid-19ak. Ez da gehiegi hitz egin, ordea, etxegabeen egoeraz. Kanean ezin bizi eta nora jo? Ataka estuan utzi zituen hainbat herritar alarma-egoerak. Beraiekin lanean aritu da Arantzazu Lizartza Saizar (Leitza, 1994) Donostiako Udalak etxerik gabeko pertsonentzat egokitu zituen lau abegi etxeetan lehen mailako mediku arreta ematen.

Esperientzia, «intentsoa, oso intentsoa» izan dela azaldu du Lizartzak: «emozio koktelak sentitu izan ditut egunero, frustrazio dezente jan dut iragan hilabeteetan, inpotentzia». Eskuarrean zuen onena ematen saiatu den arren, argi dio sentsazio gazi-gozoa utzi diola bizitakoak: «sakoneko zauri bati gainazaleko tiritatxo bat jarri izan banio bezala».

**160 pertsona lau abegi etxetan banatuta**

Alarma-egoera ezarri eta bospasei egunera jarri zituen martxan Donostiako Udalak etxegabeentzako baliabideak: «hiru aterpetxe eta Atano III.a frontoia egokitu zituzten». Orduan iritsi zitzaion Gipuzkoako Medikuko Elkargoaren lan-eskaintza Lizartzari: «denbora da kolegiatua nagoela eta formakuntza espezializatuan egoiliar gisa hasteko zain nengoen. Hau da, oporretan. Orduan esan zidaten Donostiako Udalak etxerik gabekoek

konfinamendua igarotzeko martxan jarritako lau abegi etxeetarako mediku bat behar zutela».

Zetorkion lanaren neurria zein izanzen zen ongi jakin gabe eman zuen baiezkora eta maiatzaren 31ra arte aritu da bertan lanean. Donostiako Udaleko gizarte langile eta Arrats elkarteko hezitzaile taldearekin ibili da elkarlanean, baina

bera izan da osasun profesional bakarra. 150 lagun baino gehiagori eman diote zerbitzua: «zerrenda aldakorra izan da. Altak eta bajak ia egunero egon dira, baita jarrera desegokiagatik kaleratzeak ere, baina, orokorrean, 160 pertsona inguru artatu ditut».

Udalak eskainitako baliabideekin oinarritzko premiak aseak zituzten etxerik gabeko

**«EMOZIO KOKTELAK SENTITU IZAN DITUT EGUNERO, IRAGAN HILABETEETAN»**

**«SAKONEKO ARAZO BATI GAINAZALEKO TIRITATXO BAT JARRI DIOGU»**

pertsonak: teiltatu bat konfinamendua igarotzeko, Gureak enpresak eskainitako hiru otordu egunetan eta komunak, baina lan soziala ere egin nahi zuten. Hala, Lizartzaren ustez garrantzitsuenak: «bertan lanean ibili garenok, kolektibo honi eskainitako babesa edo zaintza izan dira».

**Abegi etxeetako baldintzak**

Lau abegi etxeak ezagutu ditu Lizartzak eta batzuen eta beste arteen aldeak bistakoak zirela dio: «aterpetxeetan logelak, espazio komunak, irudikatzen errazak diren antolakuntza zegoen. Aldiz, Atano III.eko kantxan 50 ohatila inguru zeuden, bi metroko tarte mantenduz gutxienez, batetik bestera». Azken hau, azpiegitura prekariora zela salatu du, gaineratuz: «nik kontsulta komun batean pasatzen nuen».

**Eguneko orduak motz**

Batetik bestera, ambulategi mugikor batean bezala aritu da lanean: «lau zentroetan ibili naiz mediku orokor gisa, lehen mailako arreta ematen». Hasieran, dena martxan jarri arte lan-zama handia izan zuela azaldu du: «zentro ba-



Etxegabeen egoerak hobera egiteko arazoaren muinera jotzea ezinbestekoa dela dio.

koitzeko pertsonak ezagutu, haien beharrak behatu, behar zuten kasuan tratamenduak jarri, jarraipen bat eman, kasuren batean larrialdi edo psikiatria zerbitzuetara bideratu...». Eguneko orduak motz gelditzen zitzaizkion, «jasotako informazioa gero digitalizatu egiten delako». Hilabete batez lanean aritu ondotik, lan-irizpide batzuk ezarri zituen: «neroni nintzen osasun profesional bakarra eta eguneko zentro baten itxura hartu nion sortu genuenari. Ostiralak zintzilik geratutako gauzak egiteko aprobeztatzen nuen, baina mugikorra zein posta elektronikoa erabat nuen eskuragarri, nahiz eta asteburua izan».

### Ikusitako premiak

Artatutako pertsona horien premiak nagusiki hiru zirela azaldu du: «babesa, zaintza eta maitasuna da kolektibo honek behar duena». Beste guztiaren gainetik, «entzuna izateko premia» dutela.

Bestalde, ez da ahaztu behar kolektibo honen gehiengoak toxiko menpekotasunak aurkezten dituela, «kasu horietan, kalte-murrizketa estrategia aplikatu dugu, batez ere, beraien ongizateari begira». Gaitz organikoei dagokienez, berriz, «hortz asaldura ugari artatu ditut, izan ere, nahiko egoera txarreko aho-hortzak zituen kolektiboaren zati esanguratsu batek».

Zorionez koronabirus kasurik ez dute izan: «arnas bideko klinika izan duenik izan da iragan hilabeteetan, eta horiek berehala isolatzea bermatua zegoen baliabideetara lekualdatu ditugu. Izan ere, Atano III.ak ez zuen isolamendurako aukerarik ematen».

### Errealitatea ezagutzuz

Ehunka pertsona elkarrizketatzeko aukera eman dio esperientzia honek, haien errealitatea hurbiletik ezagutzeko: «sistema kapitalista honen lurpean aurkitzen diren ehun-



Esperientzia oso intentsoa izan dela dioten arren, hainbat ikasgai atera ditu Arantzazu Lizartza Saizar leitzarrak.

ka pertsonen egoeraren berri jakitekoa». Haiek informatzea izan da bere egitekoetako bat eta horretarako, «artatutako pertsona guztiei galdetzen nien pandemiaren inguruan, egoeraren berri zenbateraino zekiten jakiteko helburuarekin eta babes-neurriak behin eta berriz errepikatzen nizekin».

### Eta orain zer?

Ekainaren 22an itxi zituzten abegi etxeetako hiru, «bat urte osoan egoten da martxan Donostian». Eta bertan bilduta egon direnekin orain zer gertatuko den pentsatzeak ere kezka eragiten dio: «badakit Donostiako Udala eta Diputazioa elkarlanean aritu direla pertsona hauek kalera itzu-

li behar ez izateko, baina egonen da berriro kalera itzuli beharko duenik ere». Eta ez da ahaztu behar birusa oraindik hor dagoela eta bitarteko gabezia eta arrisku gehiago izanen dituztela, «zalantzarik gabe, kolektibo oso zaugarria da. Baina borondate onaren atzean zenbaki ekonomikoak egotearen arriskua azaleratzen du horrek, argi eta garbi».

### Ikusezinak

Etxerik gabeko pertsonen egoeraz galdetuta pandemia aurretik ere gutxi azaleratu edo eztabaidatu den kontu bat dela nabarmendu nahi izan du: «Eduardo Galeanok bere lan batean dioten bezala: ikusezinak, baliabide gabeko

gizakiak dira». Lizartzari lehendik ere piztua zuen kontzientzia soziala are gehiago indartzeko balio izan dio bitzakoak. Arazoaren muinera jotzea ezinbestekoa da bere ustez: «ikusezintasun hori ikusezinari berari edo ikusten ez duenari dagokion hausnartzea tokatzen zaigu».

### Ikasgaiak

Asaldura sozialak «ez direla ez toxiko kontsumoarekin, ez psikofarmakoekin osatu edo sendatuko» ikasi ahal izan du azken hilabeteetan. Areago, «horrek arrakala handitzea besterik ez dakarrela» eta gizarte eraldaketa baten premia «urgentziazkoa» dela ikusi du. Alor profesionalari lotutako gogoeta egiteko aukera ere izan du. Hala, Hipokratesen esaldi bati inoiz baino argi gehiago ikusi diola nabarmendu nahi izan du: «sendagileak sendatu gutxitan sendatuko du, arindu zenbaitetan, eta babesa, babesa eman beti».

**«GIZARTE  
ERALDAKETA  
URGENTZIAZKOA  
DA»**

**«ENTZUNA IZATEKO  
PREMIA DUTE  
ETXERIK GABEKO  
PERTSONEK»**

# Zaindu maite duzun hori...

## Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!



info@ttipi.eus



744 48 43 61

## Kalko ustelak

\* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

Hizkuntzalaritzan, hizkuntza batek bertze hizkuntza baten hitz edo esamolde bat itzuliz sortzen duen forma da kalkoa. Adibidez, *telefono* hitza mailegua da (bere horretan hartzen da elementua); *urrutizkin*, berriz, kalkoa (bertze baten eredutik berera egokituriko egitura). Kalkoa berez ez da baztertzekoa, baina bai tentuz neurtzekoa. Ez da baztertzekoa, berez, kalko batzuk egokiak izan litezkeelako, hizkuntzak beretzat *naturaltzen* dituen neurrian (adibidez: (informatikako) *sagu*, *diru beltz*, (*kafe*) *ebaki*, *argi berdea eman...*); baina badira kalko okerrak ere eta horien adibide batzuk ekarri izan ditugu Euskararen Txokora.

Kalko desegoki horietako bi dira **\*laburmetraia** eta **\*luzemetraia**

Erdarazko hitz-elkarketen *cortometraje*, *largometraje* (espainieraz), *court-métrage*, *long-métrage* (frantsesez) hitzez hitzeko kalkoak dira **\*laburmetraia** eta **\*luzemetraia**. Euskaltzaindiak dioenez, euskararen gramatika-legea urratzen dute (<izena + izenondoa> hurrenkera, hain zuzen). Laburmetraia eta luzemetraiak <izenondo + izen> egitura dute.

**\*Laburmetraia** eta **\*luzemetraia** hitzak ez dira ageri *Euskaltzaindiaren Hiztegian*. Film hitza ageri da sarrera gisa, aldaera hauek dituela: *film ertain*, *film labur*, *film luze*. *Film* hitza da estandarra.

-\***Laburmetraia** > **film labur**

-\***Luzemetraia** > **film luze**

## Zein da zuzena?



### **\*Hobe erran** ala **hobeto/hobeki erran**?

**\*Hobe erran**, esapide desegokia da eta Euskaltzaindiak **\*hobe erran**en partez, **hobeto esan/erran** edo **hobeki esan/erran** erabiltzea gomendatzen du. Adizlagun funtzioa betetzen duenez, **esan/erran** aditzak **hobeki/hobeto** adizlaguna hartu behar du (NOLA), eta ez **hobe** izenondoa (NOLAKOA).

-\***Hobe egin hurrengoan** > **Hobeto(ago)/hobeki(ago) egin hurrengoan**.

-\***Hobe ibiliko zara** > **Hobeto(ago)/hobeki(ago) ibiliko zara**.

-\***Hobe moldatuko zara bizikletarekin** > **Hobeto(ago)/hobeki(ago) moldatuko zara bizikletarekin**.

-\***Landa-eskolak, edo hobe errateko, landa eremuko eskolak baditu bertze abantaila aunitz** > **Landa-eskolak, edo hobeki errateko, landa eremuko eskolak baditu bertze abantaila aunitz**.

Beraz, kontuan izan:

**NOLAKO(A)?**

ONA (A)

HOBE (A)

**NOLA?**

ONGI/ONDO

HOBEKI/HOBETO

**\*Oharra:** *Hobe izan* aditzarekin ez da horrela (*hobe* hitza aditzaren parte baita hor), baina hala behar du bertze aditz guztiekin. *Hobe izan* aditza *du/da* erregimenetakoa da.

Tradizioko ohiturak ezberdinak dira, eta, batasunerako deus hobetsi ez bada ere, erabilera nagusia hau da:

1) *Hobe da* inpersonalarekin:

-*Hobe izanen da* isilik egotea.

-*Hobe da* ez izatea, gaizki izatea baino.

2) Subjektu erreferentziakideekin (subjektu bera bi aditzetan), *du* erregimena hartzeaz gainera, aditz-partizipioaren alde egiten du:

-*Hobe dugu* isildu, lotsagarri gelditu baino lehenago.

-*Hobe duzu* hemen gelditu, atzerrira joan baino.



Shakti Olaizola zirku konpainiak 'Baldin bada' eskainiko du. ARTXIBOA

## Herriko besten ordezt 'Uda Bizia' egitaraua abiatu da

Larunbat honetan kontzertua eskainiko du Amak taldeak eta hurrengoan zirkua izanen da Shakti Olaizolaren eskutik.

### TTIPI-TTAPA

Aurten bertan behera gelditu diren herriko besten ordezt, uztailean eta abuztuan kultur programazio zabala prestatuko zuela jakinarazi zuen bere garaian Udalak eta asmo horri ekin dio. *Uda Bizia* goiburuean, joan den ortziralean zinema aire zabalean izan zuten Herriko Etxeko Plazan. *Loreak* filma eskaini zuten.

**Uztailaren 11n**, larunbatean 19:00etan Altzateko plazan kontzertua eskainiko du Amak taldeak; **uztailaren 18an**, larunbatean 19:00etan, leku berean, Shakti Olaizola zirku

konpainiak *Baldin bada* ikuskizuna eskainiko du; Hezurbeltzak taldeak kontzertua eskainiko du **uztailaren 25ean**, larunbatean 19:00etan Merkatu Plazan. Uztaileko egitaraua bukatzeko, **hilaren 26an**, Berako XII. Saria antolatu du Gure Txokoak, kadete mailako txirindulariei zuzendua. 44 km.ko ibilbidea izanen dute.

Abuztu hasieran, bestariek ez, baina nolabaiteko seinalea izanen da. Honela, **abuztuaren 1ean**, Erabatera taldeak kontzertua eskainiko du 19:00etan Altzateko plazan. **Abuztuaren 2an**, Master Ku-

txabank txapelketako pilota partida jokatu dute Eztegarra pilotalekuan 17:00etan: Urrutikoetxea eta Irribarria, Altuna III.a eta Imazen kontra. Sarrerak salgai izanen dira Agerra prentsan eta [www.entradasfronon.com](http://www.entradasfronon.com) helbide elektronikoa. **Abuztuaren 3an**, Hueskako Oscense Piroteciaren eskutik su-artifizialak botako dituzte Toki Onako patiotik, 23:00etan. Ondoko hiru larunbatetan kontzertuak izanen dira Altzateko plazan 19:00etan. **Abuztuaren 8an** Mugaldekoak Band, **15ean** Old School Funky Family eta **22an** Afrika Bibang taldeak igoko dira oholtzara. **Abuztuaren 30ean**, azkenik, Sun magoak, *Bat, 2, hiru... magia!* ikuskizuna eskainiko du 19:00etan Merkatu plazan.

### Segurtasun neurriak

Ekitaldi hauetan guztietan, sarrera doan izanen da eta segurtasun neurri zorrotzak bete beharko dira. Maskara paratzea gomendatu dute.

Elkarrekin bizi diren unitate familiarren kasuan bata bertzearen ondoan eseri ahaliko dira eta edukiera mugatua izanen da. Osasun egoeraren arabera, ekitaldi hauek aldatu izaten ahal dituzte. Betiere, osasunak eragindako araudia betetzea izanen da lehentasuna. Ekitaldiek aldatu izanez gero, [www.berakoagenda.eus](http://www.berakoagenda.eus) web orrian edo horren sare sozialetan jakinaraziko da.

## DNA dantza garaikidea herrira ailegatuko da azaroaren 21ean

### TTIPI-TTAPA

Dantza garaikideko bederatzi konpainiak, lau egoitzek, bederatzi erakustaldik, bortz bitartekaritza-jarduketek eta bertze jarduera osagarri batzuek osatzen dute Nafarroako hamar udalerritan eginen den DNA 2020 Nafarroako Dantza Garaikidea programa. Programa Kultura Zuzendaritza Nagusiak eta Baluarte Fundazioak antolatzen dute Antsoain, Agoitz, Bera, Etxarri Aranatz, Lizarra, Los Arcos, Arangurengo harana, Ribaforada, Tafalla eta Atarrabiako udalekin lankidetzan. Guztiak Nafarroako Antzoki Sareko kideak dira eta Nafarroako Museoak eta Uharteko Arte Garaikideko Zentroak ere hartzen dute parte programan.

Herrian emanaldi bat eskainiko dute programa honen barnean. Hain zuzen, Kon Moción taldeak *El equilibrio entre sujetar y soltar* (Kontzearen eta uztearen arteko oreka) ikuskizuna eskainiko du azaroaren 21ean, 19:00etan Kultur Etxean. Sarrera 6 euro ordaindu beharko da.

Martxel Rodriguez lesakarraren Led Silhouette konpainiak *Cóncavo-Convexo* eskainiko du Agoitzen eta Etxarri Aranatzan, irailaren 6 eta 27an.

Astelehenerdik ortziralerara: 07:15etik aitzinera

**LABE ZAR**

Larunbata eta igandea: 08:00etatik aitzinera

948 631 076 • BERA

**F. LANCHAS**

Akutxiladorea eta bernizatzailea

Parket eta parket flotatzailera jartzea

Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

**AUZOA GO!**

Etxez etxeko zerbitzua

BERAn eta LESAKAN

ESKAERAK:

[www.auzoago.com](http://www.auzoago.com) · T. 948 631 509

**MARITX**

· INGENIARITZA ELEKTRIKOA

· PROIEKTU ELEKTRIKOAK

· BOLETIN INDUSTRIA

· INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) **636 617 450**

Legia, 23 - BERA

**Alberto RETEGI**

abokatu

abokatu

© 948 630 763 · Alzate, 17 · BERA



Ekainaren 26an bilera informatibo jendetsua egin zuten. A. AROTZENA

## Sinadura bilketa hasi du Endara Bizirik plataformak

Udaleko bi taldeak ere proiektuaren kontra azaldu dira, «Lesaka eta lesakarrak kontuan hartu gabe» egin delako

### AITOR AROTZENA

NordexEnergy Spain enpresak Auzoberri inguruan jarri nahi duen parke eolikoaren kontra sinadura bilketa abiatu du Endara Bizirik plataformak. Horretaz gain, informazio-bilerekin segitzen du. Auzoz auzo egindako ondotik, ekainaren 26an Alondegiko arkupean egindakoa hagitz jendetsua izan zen eta hainbat herritarrekin batera, udalean ordezkariak duten eta dagoeneko proiektuaren kontra agertu diren bi taldeetako alkate eta zinegotziak izan ziren ekitaldian. Uztaileko lehen astean Bortzirietako bertze herrietan eta Oiartzunen ere eman dute ingurumenean ez ezik, auzoan ere kalte nabarmenak sortuko lituzkeen egitasmoaren berri. Proiektuaren arabera, 120 metro luze eta hegalean itzuli diametroa 150 metrokoa izanen lituzketen hamaika haize-errota jartzeko asmoa dago. Neurri hauek zenbaterainokoak diren erakusteko plaza inguruan marrazten aritu ziren Endara Bizirik plataformakoak aski modu adierazgarrian. Izan ere, plataformako kideek ai-

patu duenez, «hau egingen balitz herriko auzo bat desagertu egingen litzateke, ezinezkoa izanen zen bizitzea».

Udaleko bi taldeek, ekainaren 25eko batzarrean proiektuaren kontra daudela azaldu zuten, «Lesaka eta lesakarrak kontuan hartu gabe egin delako eta ez dituelako aintzat hartu ingurumenean, ondare historikoan eta bertan bizi diren auzotarren bizitzan eragiten dituen kalteak». Hau dela eta, udalak batzorde bat osatu du gaia lantzeko eta beharrezko oharrak eta helegiteak landuko ditu proiektua geldiarazteko.

### Sinadura bilketa

Sinadura bilketari dagokionez, herriko denda eta ostatueta ez ezik, Berako Arturo eta Oinatz dendetan, Etxalarko herriko dendan eta Herriko Ostatuan, Igantziko Bi-Biden eta Arantzako Zakutenean, Pabloenean, Aterpen eta dendetan eskura daitezke paperak. Nahi duenak, eskaera sinatua [endarabizirik@gmail.com](mailto:endarabizirik@gmail.com) helbide elektronikora bidal dezake.

## Sanferminetan ekitaldirik ez antolatzea eta kanpotarrak ez etortzea eskatu dute

### TTIPI-TTAPA

Maiatzean erabaki zuen udalak aurtengo sanferminak bertan behera uztea. Nahiz eta egoerak nabarmen hobera egin duen, arriskua oraindik hor dagoela diote osasun adituek eta udalak «bestetan hain ohikoak diren jende pilaketak ekiditea guztion ardura» dela jakinarazi du aho batez onartutako adierazpen bidez. Honela, «herritarrei segurtasunarekiko dugun konpromisoarekin jarraitzeko» dei egin diete eta «jende pilaketa ekar dezaketen ekitaldi berezirik» ez antolatzea eskatu diete. Herriko ostalariek ostatuak goizeko ordu bietan ixteko erabakia erabat babesten du udalak, «kontrakoak sektore honi ondorio hagitz larria eragin diezaiokela» jakinik.

Uztailaren 6, 8, 9 eta 10a udalaren jardueran lan egunak izanen dira eta ez dute herri eremuan kanpinik jartzen utziko.

Hain zuzen, udalaren oharrak dio aurten ezin izanen dituela «bakter guztietatik guregan etortzen direnak hartu

aunitz, estimatzen dugu euren etorrera. Baina, erran bezala, gauzak desberdin bizitzea tokatzen zaigu, eta eskatzen diegu aurten Lesakara Sanferminetan ez etortzea. Heldu den urtean berriro elkar ikusiko dugu, aurten ez faborez!». Mezu honekin bideo bat ere zabaldu dute sare sozialetan udalak, ostatuak, txosna batzordeak, Lesakako Zerbitzuen Elkarteak eta kultur eragileek.

### Turismo Bulegoa zabalik

Turismo Bulegoa Harriondoa Kultur Etxean zabalik dago uztailaren 1etik irailaren 30era. Asteartetik larunbatera 10:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 18:30era eta igande eta besta egunetan 10:30etik 14:00etara irekiko ditu atekak. Astelehenetan itxita egonen da. Ane Berasain Goiak emanen du informazioa hiru hilabete hauetan, bera izan baita udalak deitutako lehia-ketara aurkeztutako bortz laguneren artean puntuazio handiena lortu duen hautagaia. Informazio gehiago [turismoa@lesaka.eus](mailto:turismoa@lesaka.eus) helbidean.



ARTXIBOKOA

## Oinezkoen aldeko lanek harrera ona

Nafarroako Gobernuak kostuen %85a diruz lagundu ditu herrigunean mugikortasuna hobetzeko lanak eta orokorrean harrera ona izan duela aipatu dute udaletik. «Eskertzekoa da herritarrek erakutsitako prestutasuna eta borondate ona. Trailera arte egonen da horrela eta gero baloratuko da».

# UDAKO 2020 ZIKLOA LESAKAN

## uztaila

UZTAILAK 19, igandea  
19:30 - Plaza zaharran  
**PETTI**  
Manipulazio estrategiak

UZTAILAK 24, ortziralea  
19:00 - Alkaiagan  
**MUXIKOAK**  
Jaiki Hadi  
Taldearekin

UZTAILAK 30, ortzeguna  
22:00 - Bixkantxeneako plazan  
**MATRIUSKA ANTZERKIA**  
Kamikaz Kolektiboa

## abuztua

ABUZTUAK 7, ortziralea  
18:30 - Plaza zaharran  
**HAURRENTZAKO**  
**ALTXORRAREN BILA**  
**KULTURALA**

ABUZTUAK 13, ortzeguna  
19:00 - Eltzeta plazan  
**EGUR TAUPADAK**  
**Txontxongilo antzerkia**  
Ttipia Produksioak

ABUZTUAK 21, ortziralea  
19:00 - Harriondoa atarian  
**PUXKAK**  
**Dantza emanaldia**  
**Led Silhouette+**  
**Unaiuna+**  
**Tantirumairu Euskal**  
**Folklore Taldea**

ABUZTUAK 23, igandea  
18:30 - Iturbena plazan  
**IPUIN KONTALARIA**  
Ameli ipuin Jostune

ABUZTUAK 28, ortziralea  
20:30 - Onin gaineko  
zubi konkordunean  
**BERTSO SAIOA**  
Xabier Silveira  
eta Unai Iturriaga

ABUZTUAK 30, igandea  
13:00 - Koskila iturrian  
**HURIH kontzertua**  
**HURIH**

## iraila

IRAILAK 4, ortziralea  
18:00 - Zahar etxean  
**TXAMUKOS MARIATXIAK**

IRAILAK 4, ortziralea  
20:00 - Plaza zaharran  
**BAKEAN DAGOENA**  
**BAKEAN UTZI**  
bakarrizketak  
Lanku

IRAILAK 11, ortziralea  
19:00 - Plazatik hasita  
**KANTU SAIOA**  
Lesakako Abesbatza

IRAILAK 12, larunbata  
10:30 - Harriondoatik hasita  
**LESAKAKO ERRALDOIEN**  
**ETA BURUHAUNDIEN**  
**KONPARTSA**  
**LEBK**

IRAILAK 19, larunbata  
**ZIKLOAREN ITXIERA**

Antolatzailea:



Laguntzailea:



\*Emanaldi guzietan osasun emergentziak eragindako araudia betetzea izanen da lehentasuna

# «Momentu zailei esker harreman berezia eraiki dugu denon artean»

**JON ERRO FAGOAGA** EL CONQUISTADOR SAIOKO FINALISTA

El Conquistador saioaren 16. edizioan parte hartu du Jon Erro lesakarrak. Proba guztiak egin, finaleraino ailegatu eta «dena» bizitzeko aukera izatea «izugarria» da abenturazale gaztearentzat

## **N.BAZTERRIKA** LESAKA

Elkarrekin sufritu eta gozatzu, «esperientzia izugarria» bizi izan dute El Conquistador saioko 36 parte-hartzaileek Kariben. Tartean izan da Jon Erro (Lesaka, 1997). Saioa «ia ezagutu gabe» eman zuen izena eta abentura «osorik» bizitzeko aukera izan du. Jakin-mina aseta eta motxila «hitzez azaldu ezin diren» bizipenez beteta egin du buelta. «Buruari gogor eginez geure burua gainditzeko gai garela» adierazi digu hitzez eta ekintzez.

## **Nola animatu zinen El Conquistador saioan izena ematera?**

Donostiako lagun batek, Anek, animatu ninduen. El Conquistador zer zen ia jakin gabe egin nuen castinga. Youtubean bideotxo batzuk eta Josu Vazquezzen pasarte batzuk ikusi nituen.

## **Ez dira proba errazak. Joan aitzinetik entrenatu behar izan zenuen?**

Bai, eskalatzen aritu nintzen ez bainintzen behin ere ibilia. Gimnasia eta igerilekura ere joan nintzen. Joko aunitz igerian egin behar zirela ikusi nuen eta... Hilabete eta erdiz egunero entrenatu nuen.

## **Nolako esperientzia izan da Kariben bizitakoa?**

Ikaragarria, joan eta bizi beharrekoa. 26 egun gogor bezain politikak izan dira. Hilabete eskasean, bizi osoan aunitzekin izan dudana harremana baino sendoagoa izatea lortu dut. Momentu zailetan, gosea pasatu dugunean, eta elkarre-

kin sufritu dugunean, eraiki dugun lotura berezia izan da. Mentalki eta fisikoki lur jota geunden momentuan, joko bat irabazi eta janari pixka bat jateko aukera izateak indar handia ematen zigun, izugarri eskertzen genuen. Gorabehera horiek hagitz politikak izan dira.

## **Zer proba edo momentu izan da gogorrena?**

Gogorrena lehenbiziko hiru egunak izan dira. Kanpaleku batera eraman gintuzten, deus erran gabe eta janaririk eman gabe. Egun bat egon eta hurrengo egunean hasiko ginela uste genuen. Goiza ailegatu eta ez zen inor agertu, arra-

tsaldean ere ez... Buruari bueltaka pasatu genituen hiru egunak, hasiera hagitz-hagitz gogorra izan zen. Zerbait pasatu zela uste genuen...

## **Momenturen batean amore eman eta etxera bueltatzeko pentsatu duzu?**

Bai, aunitzetan. Jokoa galdu eta umorea galtzen nuen, nik eta ingurukoek. Pobreen kanpalekura eramaten gintuztenean 'zer behar dut nik hemen egoteko etxean egoten ahal banaiz?' pentsatzen nuen. Gogor egin eta gehixeago jasateko erraten nion neure buruari...

## **Pantailan ikusi denaz harago, bertze hamaika momentu bizi**

## **dituzue... baten bat aipatuko zenuke?**

Pobreen kanpalekuan bi egun egon ginen. Han, kamerak joaten ziren momentuan, izandako elkarrizketak, elkar animatzeko solasaldiak... Hagitz politikak izan ziren.

## **Kamera aitzinean ibili zaren lehenbiziko aldia izan da. Nola ikusi duzu zeure burua telebistan?**

Bai, hala izan da eta horregatik hurbiltzen zirenean alde egiten nuen. Jendeak gazte-eraz solas egiteko erraztasuna zuela ikusten nuen. Ni, berriz, ez naiz ongi moldatzen. Hondar aldera, lehenbiziko finalista nintzela erran zidatenean ez zitzaidan deus inporta.

## **Faboritotzat izan zaituzte aunitzek... Zer sentitzen da zurekiko horrelako jarrera dutela ikustean?**

Mezu aunitz jaso ditut eta maitatua sentitu naiz. Bigarren egunean kanporatua izan bainintz ez litzateke gauza bera izanen. Orain hagitz ongi, gustura, sentitzen naiz.

## **Eta kritikak nola hartu dituzu? Horretarako prest zeunden?**

Hagitz zaila izan da. Ez dut hori dena onartzeko eta neureganatzeko adina gaitasun. Mordoska irakurri ditut. Batzuek arrazoirik gabe idazten dute, eta horiei kasurik ez egitea errazagoa da. Deus egin ez dudala aditzean, adibidez, erran duenari joan eta bizitzeko erranen nioke. Jakin gabe kritikatzeko da maiz. Bertze batzuek, ordea, arrazoia dute eta onartzen dut, baina ez dakit hori kudeatzen eta haserretu egiten naiz.

## **Finalera ailegatzea lortu duzu. Espero zenuen?**

Nola ba! Ez nik ezta nire hurbilekoek ere. Lehenbiziko egunean joateko beldur nintzen, berehala kanporatua izanen nintzela uste nuen. Hamabortz bat egun egiten banituen ongi zela nuen buruan. Abentura hasieratik bukaerara bizitzea ederra izan da, dena bizitzeko aukera izan dudalako. Pena bakarra dut, duelurik ez egin. Pare bat eginen nituzke gustura.



Bizitakoarekin «kontent» dago Erro, baina duelurik egin ez izanaren pena du.



## Turismo bulegoaren ordutegia zabalduko dute uda sasoian

Miren Vicente arduratuko da eta astelehen arratsaldetan eta abuztuaren 14 eta 18an itxita egonen da

### IRUNE ELIZAGOIEN

Miren Vicente herritara arduratuko da bertze urte batez bisitariei zerbitzu ona eskaintzeaz turismo bulegoan. Turismo bulegoa uztailearen 1etik abuztuaren 31ra egonen da zabalik. Astegunez 10:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 19:00etara egonen da zabalik eta asteburuetan (larunbat eta igandeak) eta besta egunetan 10:30etik 13:00etara. Bisita gidatuak ere egingen dira; astegunetan 19:00etan eta asteburuetan 13:00etan. Gutierrez laguneko taldea osatu beharko da eta pertsonako hiru euroko prezioa kobratuko dute.

### Gaueko kontrabandisten ibilbideak

Aitzineko urteetan bezala, aurten ere Etxalarren uztaileko eta abuztuko larunbatetan 21:00etan herriko plazatik abiatuta kontrabandisten ibilbidea egiteko aukera eskainiko dute. Itzuli hauek zortzi kilometrokoak dira eta hiru ordu inguruko iraupena izaten dute.

Gutierrez lau laguneko taldea osatu behar da eta hamar urte baino gehiagokoentzat zortzi euroko prezioa du. Animatek direnak jakin behar dute linterna eta mendiko botak eramatea ezinbertzekoa dutela esperientzia berezia gozatzeko.

## Guraso Elkartearen joko proposamena udarako

### IRUNE ELIZAGOIEN

Konfinamenduan zehar erronkak proposatu zituen guraso elkarteak eta hagitz arrakastatsuak izan ziren. Udari begira, haur, heldu eta edozein herritarrentzat proposamen interesgarria luzatu dute. Uda berezia izanen denez, eta jende aunitz herrian geratuko denez, Etxalar hobekiago ezagutzeko erronka bat ezarri dute, familia edo lagun giroan herriko txoko eta informazioa hobeki ezagutzeko. Jarraian



ANA INDOBURU

## San Joan sua bertze manera batean

San Joan bezperako gaua ezohikoa izan zen aurtengoa. Egungo egoerak baldintzatuta ezinezkoa izan zen plazan merienda afaria egin eta suarekin ospatzea. Horregatik herritarrek etxeetan sua eginez, familian edo lagunartean ospatu zuten urteko gau berezi hau.

<a href="#">Azkura oinez Igo naiz</a>	<a href="#">arrien Etxalarakoaren ibilbidea egin dut</a>	<a href="#">Edukiontzietatik kanpo ikusten ditudan zaborrak bildu ditut (herrian edo mendian)</a>	<a href="#">Infernuko Errota saiatu dut</a>
<a href="#">Urritzokietatik auzoko ibilbidea bizikletan egin</a>	<a href="#">Erreka edo erreka inguruak garbitu</a>	<a href="#">Maizkiko merenderoan otordu bat egin</a>	Landare bat landatu eta zaindu
Herriko plazan patinekin 10 buelta eman	<a href="#">Usategietara ibilbidea egin</a>	<a href="#">Gurutza bidea oinez egin</a>	<a href="#">Trainerako eserleku guztiak beteta ibili.</a>
<a href="#">Presan bainatu eta garbikoa ikusi</a>	Kontrabandisten modura gauetz txango bat egin	<a href="#">Zentinelako megalitoak ezagutu</a>	<a href="#">Santa Krutz ermita bisitatu</a>
Escolatik landatutako zuhaitzak ikustera joan (arrikaztan)	<a href="#">"Pakito txokolatero" familian edo lagunartean dantzatu</a>	Sarririkoko zubira biziklean joan	Marcelino Bergara nor zen ezagutu eta esku pilotan partidua aritu.
Egun berdinean ikusi 5 animalia ezberdin	Identifikatu Haritza eta Gaztainondoa zein diren	<a href="#">Ezagutu zer diren kisuak edo ikusi 3 ezberdin</a>	Identifikatu etxalarko 5 etxe rural (izena eta kokalekua)

dagoen taula betetzen joatea izanen da helburua eta ekintza ezberdinen argazkiak [landagain.guraso.elkartea@gmail.com](mailto:landagain.guraso.elkartea@gmail.com)

com helbidera bidaltzea. Abuztuaren 14a baino lehen taula guztia osatzen duenak opari bat jasoko du. Animatu!

**IRU-BIDE**  
OSTATU • JATETXEA  
Arratzubi Kalea 3  
31770 LESAKA  
T. 948 63 71 27

Hemen erabili  
**DenakBat**  
**kattagorria**  
LESAKA  
948 627 514  
[www.kattagorria.com](http://www.kattagorria.com)

**ZUBIONDO**  
JATETXEA-SAGARDOTEGIA  
EGUNEKO MENUA  
SAGARDOTEGI MENUA  
KARTA  
OGITARTEKOAK  
PLATER KONBINATUAK ...  
T. 948 625 472  
Alasta karrika · BERA  
[zubiondojatetxea.com](http://zubiondojatetxea.com)

**USOA**  
Nekazari kooperatiba  
**ORAIN GASOLINA ERE**  
T. 948 635 214 **ETXALAR**

**Jauzena**  
Denda. 948 631 217  
T. 630 136 863  
Julio Caro Baroja, 6 - BERA  
[jauenabera@gmail.com](mailto:jauenabera@gmail.com)  
Elektrizitate lanak orokorrean  
Erreformak, etxe berriak  
Lantegietako mantenu lanak  
Etxetresnen salmenta, instalazioa eta etxez etxeko konponketa  
Antenak, satellite bidezko instalazioak

# ARANTZA

## Pelle Ttiki haur txokoak ez ditu ateak irekiko

Heldu den ikasturtera begira haur bakarrak eman du izena eta halabeharrez ixtea erabaki du udalak

### NEREA ALZURI

Heldu den ikasturteari begira, azken urteetan 1 eta 3 urteko haurrak hartuz zerbitzua eskaini izan duen Pelle Ttiki haur txokoa ez irekitzea erabaki du udalak. Ez da erraza izan erabakia hartzea, baina heldu den ikasturterako haur bakarrak eman du izena. Ikasturtez ikasturte, esfortzu ekonomiko handia egin izan du udalak haur txokoaren funtzionamenduak aitzinera egin dezan baina haur bakarrarekin bideragarria ez dela ikusita, Pelle Ttikiko zerbitzua etetea



Pelle Ttiki 2007an ireki zuten.

erabaki du. Heldu den urteei begira haur gehiago apuntatu zenero, berriz ere funtzionamenduan jartzeko itxaropena adierazi dute herriko etxetik.

### Aurtengo jaunartzeak heldu den urtean

Urtero-urtero, bestaberri ondoko igandean jaunartzeak egiteko ohitu izan da herrian. Aurten, ordea, egoera zein den ikusita, ez egitea erabaki da. Ondorioz, neska-mutikoen gurasoek heldu den urtera gibelatzeko erabakia hartu dute.

### Lesakako parke eolikoaren aurka sinadura bilketa

Lesakan egin asmo den parke eolikoaren proiektuaren kontra, auzotarrek sortutako Endarak Bizirik plataforma sindurak biltzen ari da. Herriko ostatueta eta dendetan aukera izanen da sinatzeko. Joan den larunbatean, proiektuaren berri eman zuten herrian.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Iparragirretarrak Mendaurren

Borda baserrian jaio eta Leitzaan bizi diren iparragirretar berderatzi anai-arrebak Mendaurrera igo ziren joan den ekainaren 20an. Trinitate ermitaren atarian, ikurrina eskuetan, argazkia atera eta ondotik, sorterrian, Aterpean, bazkari eder batekin borobildu zuten eguna.

### Azkenean aurten ez da mendi itzulirik eginen

Koronabirusak sortutako egoera tarteko, maiatzean egitekoa zen mendi itzulia ez zen egin. Hasiera batean, egoeraren arabera, mendi itzulia aitzinerago egiteko aukera ikusten bazen ere, Ekaitza Elkarteak zuzendaritza batzordeko kideek ekainaren 17an, konfinamendu ondotik, egindako lehenbiziko bileran, oraindik orain gauden moduan, jarduera egitea ez dela erraza izanen ikusita, alde batera uztea erabaki zuten. Beraz, aurten ez da Arantzako Mendi Itzulirik izanen.

### Kontzertu akustikoak Aterpean uztail eta abuztuaren

Udako bi hilabeteetan, astebururo, kontzertu akustikoak izanen dira Aterpen, edukiera mugatuarekin (50 lagun) eta erreserbak eginda. Joan den larunbatean, Jagoba & Olatz Salvador aritu ziren eta honetan, Keu Agirretxea eta Pablo Novoa ariko dira; 25ean Joseba Irazoki, abuztuaren lehen Gregorio, Beñat eta Andoni Mitxelena eta ondoko asteburuetan Petti, Xabi Solano eta Zigor Dz, Arimasoul eta Maka-la DJa eta Trikidantz. Uztailaren 18an, abuztuaren lehen eta 29an afariak ere izanen dira.

**MARTIKO**

*Dasta ezagu!*

DENDA ORDUTEGIA Asteleheneretik-ortziralerara 08:00-17:00  
**Martiko.** Zalain Ind z/g. 31780 Bera. Nafarroa  
Tel: 948 625 016 · www.martiko.com · martiko@martiko.com

**Anterola**  
Tekniko instalatzailea  
ITURGINTZA · GASA  
KALEFAKZIOA  
Zerbitzu anitzak &  
Gremioen koordinazioa  
629 449 602

**ORBELA**  
SENDERISMOA ATERPETXEA  
BEINTZAKO OSTATUA  
Idoia · Mikel  
Tel. 948 450 014 · BEINTZA-LABAIEN  
info@orbela-beintza.com  
www.orbela-beintza.com

**Aterpe**  
albergea jatetxea ostatua  
T. 948 634 179  
ARANTZA  
www.arantza.net



**JAKINARAZTEN DA: 2020ko lehen seihileroko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratuko direla, ondoren adierazten den bezalaxe**

## 2020ko TASAK

ERABILTZAILEEN eta TASEN MAILAK

**Mankomunitateak laguntza ekonomikoak ematea erabaki du COVIDaren krisiak kaltetutako jarduera izan duten establezimendu eta/edo profesionalentzat. Laguntza horiek tasa kobratzean aplikatuko dira, kobratu beharreko zenbatekoa murriztuz.**

KONTZEPTUA	BILKETA TASA	TRATAMENDU TASA
	€/urteko	
Zentsatutako etxebizitza guztiak, bertan norbait era iraunkorrean bizi ala ez	79,80 €	
Zaborrontzira 200 metrotik 500 metrora dauden baserriak	68,00 €	
Zaborrontzira 500 metrotik gora dauden baserriak	55,90 €	
<b>1. Merkataritza eta zerbitzuak.</b> Elikagaien eta ebxtresna sektorekoak ez direnak: mertzeriak, drogeriak, burdindegia, okindegiak, ile-apaindegia, lan bulegoak. Eraikin publikoak	81,10 €	
<b>2. Merkataritza.</b> Elikagai dendak (harategiak, arraindegia, janari-dendak), elektrogailu dendak eta farmaziak	159,20 €	Nafarroako Hiri Hondakinen Tratamendurako Patzuergoa.
<b>3. Merkataritza.</b> Autozerbitzuak	242,80 €	
<b>1. Ostata.</b> Noizbehinka irekitzen diren ostatu eta biltegiak eta jarraian irekita egoten diren bertze batzuk ere, 30 m <sup>2</sup> ko edo gutxiagoko azalera dutenak	161,80 €	
<b>2. Ostata.</b> 30 m <sup>2</sup> baino azalera handiagoko ostatuak eta janari-denda daukaten ostatuak	323,90 €	2020ko urtarrilaren 10eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua. 6 zk
<b>3. Ostata.</b> Pub eta diskotekak	404,60 €	
<b>1. Jatetxea.</b> Modu iraunkorrean irekiak dauden elkarte gastronomikoak, eta bortz mahai edo gutxiago dituzten jatetxeak	404,60 €	
<b>2. Jatetxea.</b> Bortz mahai baino gehiago dituzten jatetxeak	728,60 €	

KONTZEPTUA	BILKETA TASA	TRATAMENDU TASA
	€/urteko	
<b>1. Landetxea: 6 toki edo gutxiagokoak.</b>	81,10 €	Nafarroako Hiri Hondakinen Tratamendurako Patzuergoa.
Zaborrontzira 200 metrotik 500 metrora dauden landetxeak	69,00 €	
Zaborrontzira 500 metrotik gora dauden landetxeak	56,80 €	
<b>2. Landetxea: 6 toki baino gehiagokoak.</b>	162,30 €	
Zaborrontzira 200 metrotik 500 metrora dauden landetxeak	138,10 €	
Zaborrontzira 500 metrotik gora dauden landetxeak	113,60 €	
<b>1. Hostala. Hamar logela edo guttiagokoak.</b>	566,30 €	
<b>2. Hostala. Hamar logela baino gehiagokoak</b>	809,20 €	
<b>Merkataritzako saltokiak.</b> Opariak bakarrik saltzeko	404,10 €	
<b>Merkataritzako saltokiak.</b> Janari-dendak edo ostatudunak	809,20 €	
<b>Merkataritzako saltokiak.</b> Jatetxedunak	1.213,90 €	
<b>Lantegiak, 4 langile bitarte.</b> Jarduerak: argiketariak, iturginak, pintoreak...	81,10 €	
<b>Lantegiak, 5-10 langile bitarte</b>	161,80 €	
<b>Lantegiak, 11-30 langile bitarte</b>	404,60 €	
<b>Lantegiak, 31-60 langile bitarte</b>	809,20 €	
<b>Lantegiak, 61-150 langile bitarte</b>	1.213,90 €	
<b>Lantegiak, 151-300 langile bitarte</b>	2.300,10 €	
<b>Lantegiak, 300 langile baino gehiagorekin</b>	3.390,20 €	
Norberaren erabilerarako edukiontzia	786,40 €	

### Ordaintzeko era

**Ordainketak banketxeetan helbideratuta ez dituztenek:**  
Abisuan agertzen den edozein kontutan egin dezakete ordainketa nahi den banketxetik, abisu hirukoitzua aurkeztuz.  
**Ordainketak banketxeetan helbideratuta dituztenei:**  
Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

### Ordaintzeko epea

- 2020ko uztailaren 15ean bukatuko da.
- Ordaintzen ez bada, epea 2020ko uztailaren 31ra arte luzatuko da. Luzapen horri dagokion interesa aplikatu ahal izango zaio.
- Aipatutako epea pasatu ondoren, premiamenduzko exekuzio bidez %20ko errekaruarekin kobratuko da.



San Joan egunean meza aditzera hurbildu ziren hainbat herritar. Erran beharrik ez da meza berezia izan dela aurtengoa. UTZITAKO ARGAZKIA

## Segurtasun neurriak beteta meza berezia San Joan egunean

Egun handiko ospakizunaren ondotik, uztailleko igande guztietan ere meza izanen dute San Joan Xarren

### MAITE, ANA ETA ITZIAR

Joan den ekainaren 24an, egurraldi ederrak lagunduta, San Joan Xarren meza entzuteko aukera izan zen. Meza bai, baina urteroko gainontzeko ekintzak gozatzeko (herriko gaztetxoek prestatutako pintxo goxoak eta dantza taldearen emanalditxo...) datorren

urtera arte espetu beharko dugu.

### Uztailleko igandetan

Argazkian ikusten den bezala, segurtasun neurri guztiak hartuta eman eta entzun zen meza San Joan egunean. Uztailaren igande guztietan ere San Juanen Xarren emanen da meza.



MAITE ALTXU

## Ikasturte bukaera ere berezia izan da

Eskolako irakasle eta ikasleek ikasturteari amaiera eman zioten ekainaren 19an. Raulek (antzerkigintzaz arduratzen dena) kontzertua eskaini zien, bitartean ikasleei krepak banatu zizkieten irakasleek eta 6. mailako ikasleei agur berezia egin zitzaizen etapa berria hasiko dutelako Beran.




**BORDALARREA**

**Carnes Sein Haragiak, S.L.**  
 Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA  
 T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com

**zalain**  
 JATETXEA RESTAURANTE



Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info



[www.caserresidencial.es](http://www.caserresidencial.es)

**Laguntza zerbitzuak**

- Medikua • Farmazia
- Erizaintza • Psikologoa
- Gizarte langilea
- Okupazio terapia

**Ostalaritza**

- Harrera
- Garbiketa
- Ikuztegia
- Sukaldea
- Mantentze zerbitzua

**FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIOA**

- Animazio soziokulturala
- Nutrizioa
- Podologia
- Odontologia eta dentista
- Logopedia
- Audioprotesista

**Bestelakoak**

- Ile-apainketa
- Jostuna
- Erlijio zerbitzuak-Meza
- Kanpora laguntzea
- Laguntza teknikoaren kudeaketa

**ANAKA** | Anaka, 8 - IRUN | Tel.: 943 667 780  
**BETHARRAM** | Zubieta, 161 - HONDARRIBIA | Tel.: 943 647 169

## «Egoera zaurgarrian zeudenak are okerrago utzi ditu egoera honek»

ITZIAR IGUZKIAGIRRE URTXEGI BORTZIRIETAKO GIZARTE ZERBITZUETAKO LANGILEA

Osasun krisiaren eraginez, «geroz eta familia gehiagok» jo dute laguntza eskatzera. Alarma egoera aitzinetik banatzen zuten janari kilo kopurua bikoiztu egin da ereiaroan

### N. BAZTERRIKA

Elikagai bankuak ixtearekin batera, janari bilketa abiatu zuten Bortzirietako Gizarte Zerbitzuek, Berako Udalak eta boluntarioek. Egitasmoak «18 familia» laguntzeko modua eman duela kontuan harturik, «erantzun aipagarria» jaso dutela nabarmendu du Itziar Iguzkiagirrek, Gizarte Zerbitzuetako langileak.

### Zertan aldatu du koronabirusak Bortzirietako Gizarte Zerbitzuetako martxa?

Gizarte Zerbitzuak urtetan Iruñeko elikagai bankutik ekarritako janaria banatu die hilabetero hainbat familiari. Martxoko banaketa normaltasunez egin genuen. Alarma egoera ezarri zenean, berriz, elikagai bankua itxi zuten. Geroztik, Gurutze Gorriko boluntarioak eta babes zibila janaria bildu eta banatzeaz arduratu dira. Bortzirietan, Bera eta Lesakako suhiltzaileak izan dira garraio lana egin dutenak. Ohiko elikagai bankuko banaketaz gain, Beran, boluntarioak eta udalak bultzatutako ekimen bat sortu zen eta elikadura beharrak asetzeko osagarri izan dira azkeneko bi hilabete hauetan. **Konfinamenduan laguntza eskaerak areagotu izanen dira...**

Bai, krisialdiaren eraginez geroz eta familia gehiago hurbildu dira. Egoera zaurgarrian zeuden pertsonak are okerrago utzi ditu osasun larrialdi honek, oinarrizko beharri-



Janari bilketa bideratzeko, Berako Udalarekin elkarlanean aritu da Iguzkiagirre.

nak kaltetzeraino. Hainbat egoera azaleratu zaizkigu: kontraturik gabe lanean aritu direnak, administratiboki egoera erregularizatu gabe dutenak, etab. Babes sistematik at gelditu dira, laguntzak jasotzeko eskubiderik gabe.

### Zenbatsu eskaera izaten zenuzten hilean eta zenbat hazi dira eskaerok?

Alarma egoeraren aitzinetik, batzaz bertze, 200-300 kilo janari jaso eta banatzen ziren,

10-12 familien artean. Hilabete honetan, ereiaroan, 700 kilo ekarri zizkiguten, 34 familien artean banatu delarik. Berako ekimenean bildutako jatekoa ez da neurtu baina bi hilabetez, banatzeko adina izan da. 18 familiei banatu zaie ekimen honen bidez. Bertetik, Hezkuntza Departamentuak, Gurutze Gorriaren bitartez, jangelako bekadunei janari sorta banatu die, 42 ume izan dira onuradunak. Horrez

**«GURUTZE GORRIAK 42 HAUR LAGUNDU DITU JANARI SORTA BANATUZ»**

**«HERRITARREN ERANTZUNA AIPAGARRIA IZAN DA»**

gain, egoera ekonomikoa aldatu zaian adin ttikikoen familiei Eskubide Sozialeko Departamentuak, Gurutze Gorriaren bitartez, diru-txartelak banatu dizkie, oinarrizko beharrei aurre egiteko.

### Bilketaz gain, zenbateko aurrekontua izaten duzue urtean zehar beharrean dauden familiak elikagaiz laguntzeko?

Ez dugu aurrekontu zehatzik elikagaiarentzat. Orain arte elikagai bankutik jasotakoarekin ase izan dira beharrak. Ikusi behar hemendik aitzinera... Baliteke, bankutik jasotakoa osatu behar izatea. Hala gertatzen bada, bertzelako baliabideak aztertuko dira.

### Noiz hasi zenuen janari bilketa bideratzeko Berako Udalarekin hartu-emana?

Bai Berako Udala baita Jesusen Bihotza ikastetxea ere Berako hainbat familiaren behararen jakitun izan zirenean. Boluntario baten ekimenez zenbait dendetan jatekoa biltzeko oharrak jarri ziren. Aldi berean, Berako Udaletik ere ekimen bera bultzatu zuten. Hortaz, maiatzeko hilabetea boluntario horren eskutik gauzatu zen eta ekaineko hilabetea Berako Udalaren eta boluntarioen arteko elkarlanean bidez. Azken hilabete honetan, Beralandetatik egin da banaketa. Ekimen hau gauzatzeko hainbat eragilerekin sare bat osatu da: dendak, herritarrak, boluntarioak, udal langileak, udal zinegotziak... Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen, Berako Udalaren eta boluntarioen artean protokoloa markatu genuen. Jasotako eskaeren azterketa gizarte zerbitzuen gain gelditu zen, bertzeak bertze, familien egoera bere osotasunean aztertzeko eta elikagaiez gain bertzelako baliabideak martxan jar zitezkeen baloratu ahal izateko.

### Herritarren parte-hartzeaz zer erranen zenuke?

Herritarren erantzuna aipagarria izan da eta boluntarioen parte-hartzea eskertzekoa.

## Kontsumitzaileen bulegoa hiru egunez irekiko dute udan

Uztailaren 24an, abuztuaren 21ean eta irailaren 25ean irekiko dute eta ordua hartu behar da

### MARGA ERDOZAIN

Doako bitartekaritza eta laguntza juridikoa eskaintzen duen bulegoa hilaren 24an, abuztuaren 21ean eta irailaren 25ean irekiko da. Aitzinetik, telefonoz hitzordua hartu behar da (948 45 17 46). Etxebizitza, aseguruak, banketxe

eta aurrezki kutzak, etxeko zerbitzuak (gasa, telefonoa...), tailerrak eta zerbitzu teknikoak, komertzioa, administrazioa eta orokorrean gure kontsumoari buruzko balizko kezak, erreklamazioak, galderak... bideratzeko zerbitzu hau edozein herritarrek erabil dezake.

## Ur horniduran hainbat moldaketa egin dituzte

Herriko ur horniduran zeuden matxurak konpontzeko eta zerbitzua hobetzeko asmoz, obrak egin zituzten ekain honddarrean. Horrela bada, herritarren kontsumo erreala kontrolatu eta kontsumo horri dagokion fakturazioa egingen dute.

## IKAk C1 titulua eskuratzeko ikastaroa prest du

IKA euskaltegiak antolatutako C1 ikastaroan izena emateko zabalik uztailaren 30era arte. Lau asteko aurrez aurreko ikastaroa abuztuaren 3tik 28ra emanen da. Era berean, euskara-irakasleen lan-poltsa osatzeko deialdia egin dute Malerreka eta Bortzirietatik.



UTZITAKOA

## Herriko erremontelariak enpresa berrian

Iruñeko Alde Zaharreko VI. Erremonte Txapelketa aurkeztu zuten ekainaren 24an Iruñeko Kondestable Jauregian. Bidenabar, erremonte enpresa berria aurkezteko ere baliatu zuten ekitaldia: e-Remonte Beti Euskal Jai izena paratu diote eta bertan ari dira herriko eta Oizko erremontelariak.

## Birusaren agerraldia «kontrolpean» dutela adierazi du alkateak

### MAIDER PETRIRENA

Ekainean bolo-bolo ibili zen Sunbillan izan zen birusaren agerraldia, baina zabaldu zen guztia ez da egia.

Hamar positibo zenbatu zirelarik, komunikabideren batean herria bakartuta zegoela zabaldu zen. Sunbilda-

rak «harriduraz» hartu zuten berria eta «horrelako erabakirik ez» zutela hartu eta «egoe-ra kontrolpean» zutela argitu zuten Amets Indak, herriko alkateak. Herrian eta bereziki turismo alorrean eragindako kaltea kontuan hartuz, «lasaitasuna» eskatu zuten.



SUNBILLAKO UDALA

## Itxiturak aldatu eta pistak berritu dituzte

Bertze hainbat txokotan bezala, Sunbillan ere herria txukuntzen aritu dira. Argazkietan ikus daitekeen bezala, batetik, Espelosingo zubira sartzeko itxiturak aldatu dituzte; eta bertetik, Bostorratz eta Bulatxiki arteko pistak berritzen aritu dira.

## «Beti badago laguntzeko prest dagoen jendea»

JAIONE IRISARRI GOIENETXE ELGORRIAGAKO ZINEGOTZIA

Azaroan hauteskundeak egin eta abenduan izendatu zuten udala Elgorriagan. Tartean da Jaione Irisarri zinegotzia eta orain arteko ibilbideaz eta oraingo martxaz solastatu da TTIPI-TTAPAREKIN

G. PIKABEA ELGORRIAGA

Kanpotik etor zitekeenaren beldur osatu zuten hauteskundeetarako taldea Elgorriagan. Bigarren deialdian izan zen, eta azaroaren 17an hauteskundeak egin eta abenduaren 7an hartu zuten kargua Elgorritarrak taldeko kideek, tartean Jaione Irisarri zinegotziak. Orduetik izan duten martxaz, Covid-19a tarteko izan duten ezohiko agintaldiaz eta momentuko proiektuez aritu da.

**Abenduan hartu zuten kargua.**

**Nolako balorazioa eginen zenuke?**

Hasieran pixka bat galduak ibili ginen. Udalera ailegatzean, aitzinetik gelditu diren kontuak jasotzen dira, ez da hutsetik hasi eta nahi dituzun proiektuekin hastea bezala. Lehendik hasitakoarekin segitu behar da eta martxa hartzea kostatzen da. Hortaz, hasieran astero biltzen hasi ginen. Gainera, gaiak denon artean eztabaiatzen ditugu, denok denaren berri izan dezagun. Horrek lan gehiago eskatzen du eta astero elkartzu hasi ginen.

**Gaur egun nolako martxa duzue?**

Konfinamendua indarrean jarri zenean asteroko bilerak alde batera utzi behar izan genituen. Hasieran, telefonoz eta Whatsappez mantendu genuen harremana baina dena hor gelditu zen. Herria desinfektatzeko ardura hartu genuen eta horretan aritu ginen udal ordezkariak, herriko langilearekin eta boluntario pare batekin. Bi egunetik behin herria



Lehenagoko presan bainatzeko tokia egokitu dutela kontatu du Irisarrik.

desinfektatzen genuen eta maskara batzuk erosi eta herriko biztanle guztiei opari eman genizkien. Hortik aparte, deus gutti egin ahal izan genuen. Dena gelditu zen. Orain, berriz lanean ari gara.

**Zein proiektu dituzue esku artean?**

Berriki hoditerian berritze lan batzuk egin behar izan ditugu. Euri aunitz egiten zuen egunetan, herrira ura unitz etortzen zela ohartuak ginen eta begira hasitakoan, Mututan hodi batzuk hautsita zeudela ikusi genuen. Hori berritu behar izan dugu eta proiektu handia izan da: lur guztia altxatu eta hoditeria guztia berritu behar izan dugu. Hori izan da orain arteko proiekturik handiena. Eta gainerakoan, presako

proiektua ere esku artean dugu. Herriko presa bota zuten arren, pareta bat eginez, bainatzeko tokia egokitzeko lanetan ari gara. Hori ere nahi baino gehiago gibelatu da. Ur Konfederazioarekin eta Nafarroako Gobernu Ingurumen Departamentuarekin elkarlanean ari gara eta baimena eta dirulaguntza lortu ditugu. Merendero moduko bat eta baranda batzuk paratu dituzte, eta metro bateko pareta egiteko baimena lortu dugu. Udan egur batzuekin itxi eta modu horretan bainatzeko tokia izanen dugu eta udazkenean berriz kenduko dugu errekek bere bidea egin dezan. Gainerakoan, auzolanerako ohiturari segituz, auzolanerako

deialdia ere eginen dugu. Oraingoz, bertze proiekturik ez dugu.

**Bortz hautagaietatik aparte bertze lau laguneko lantaldea osatu zuten. Nolako martxa duzue?**

Burokratikoki bortz lagun eskatzen dituzte, eta horregatik alkatea eta lau zinegotzi gara, baina bederatzi laguneko taldea gara gibeletik eta taldean lanean segitzen dugu. Herriko bileretan gehienak parte hartzen saiatzen gara.

**Zergatik aurkeztu zineten?**

Aitzinetik udalean zeudenek ez zuten segitzeko asmorik eta inork ez zuen ardura hori hartu nahi. Aldi berean, udaletxean herriko jendea nahi genuen, eta ez Iruñetik izendatutako gestora bat edo kanpotik etorritako bertze talde bat. Hori gerta zitekeela ikusita, lantaldea sortzea erabaki genuen, nahiz eta gutako inork ez zuen udaletzeko ordezkari izan nahi. Horregatik, behin lantaldea sortuta, bortz udal ordezkari aukeratzeko bozketak egin genuen, legeak bortz hautagai eskatzen dituelako. Lanerako prest geunden, baina ez udal ordezkariaren irudi hori hartzeko. Bozketan izendatutako bortz hautagaien artean herriarrek erabaki zuten eta Ane Otxandorenak hartu zuen alkatearen ardura.

**Taldea osatzea zaila izan zen?**

Lantaldea osatzeko ideia bilera batean atera zen, eta bati eta bertzeari galdeka ere ibili ginen. Hasieran jende gehiago bildu ginen baina denborarekin, hoztu egin zen eta bederatzi lagun gelditu ginen. Hala ere, bederatzi horietatik aparte, beti badago laguntzeko prest dagoen jendea.

**Bestak alde batera utzi dituzue baina seinalerik eginen duzue?**

Bestak eta hain hitzordu polita izaten den sanjuanetako sua bertan behera utzi ditugu, eta printzipioz, ez dugu deus eginen. Egoera zein den ikusita ez da erabaki zaila izan, eta zerbait ospatzeko aukera dagoelarik berriz elkartuko gara. Orain hau da dagoena eta zentzuz jokatu behar dugu.



Mendizaleek paraje ederrak bisitatu zituzten ekainaren 16an. UTZITAKO ARGAZKIA

## Mendizaleak Berastegira joanen dira hilaren 21ean

Ekainaren 16an hasi ziren hileroko hitzorduak egiten eta hamazazpi lagun bildu ziren

### PABLO IRASTORTZA

Dakigun bezala, elkarteak 2020 urterako maitasun handiz prestatutako ekimen gehienek zomorro madarikatuaren eraso jasan dute eta ezin izan dira gauzatu.

Egoeraren ondorioz, hasieran pentsatutako ekitaldi, bidaia, egonaldi eta abarren antolamendua zail gertatu da eta beharrezkoak diren zerbitzuak alarma egoeratik itxiak daudenez, ia denak bertan behera gelditu behar izan dute, ezin baitzen inoren osasun-bermerik ziurtatu.

Mendi-irteerarako, berriz, aski da behar diren osasun neurri bereziak gordez, zangoak mugitzeko desioa izatea. Ekaineko bigarren hamabortzaldiko zenbakian aipatu bezala, ekainaren 2an mendi batzordeak hartutako erabakiaren ondorioz, ekainaren 16an berriz ere hileroko bueltei ekin zieten. Hamazazpi ibiltari, Berroko zubitik abia-

tuz, Erratxuri, Otsaskoko gaina eta Gorostapolotik, Xorringo ur-jauzira iritsi ziren.

Bertako edertasunaz inguraturik, ohiko argazkiak egin eta berriro Gorostapoloko luberriko pistatik, lau ordu eta erdiko ibilaldia eta gero, Arizkun eta Ordokira itzuli ziren. Juanjo Oskariz eta Axun Perurena herritarrak izan ziren talde jatorraren gidari (lerro hauen bidez, mila esker biei!).

Egun polita akabatzeko, Ordoki jatetxean –hemen ere osasun agintarien aginduak betez– otordu oparoa egin ondotik, txoria bezain kontent itzuli ziren mendizaleak etxera.

### Uztailaren 21ean Berastegin

Mendizaleek, bazkari giroan elkartuta, aukerak aztertu zituzten eta iazko urte bukaeran 2020ko egin zen egutegia jarraitzea erabaki zuten. Horrela bada, hurrengo zita uztai-

laren 21ean Berastegin izan da.

Ez dezala inork ahantzi, herri polit horretarako hitzordurako izena eman nahi izanez gero, uztailaren 13tik 17ra, astelehenetik ortziratera, Doneztebeko bulegora deitu behar duela.

## Elkarteko kideei komunikazioa erraztu diete

Nahiz eta aspaldi dirudien, oraindik gogoan dugu –ez baita hainbertze denbora igaro– elkarteko delegatuek kideak informatzeko etxez etxe eta baserri baserri ibili behar izaten zutela. Zorionez, telefonoaren hedatzeak erraztasun handia ekarri zuen, bai berri-mailentzat, baita hartzaileen-tzat ere. Komunikazio bidaxka zirenak autopistak bihurtu dira eta ez daukagu aukera hori aprobetxatzea bertze erremediorik. Hemendik aitzinera, bai delegatuen aldetik baita Doneztebeko bulegotik ere, berriak edo jakin behar-rekoak ahalik eta bazkide gehienei sakelako telefonoaren bidez bidaliko zaizkie. Berriak arinago eta zuzenago jasotzeko, egin beharreko bakarra 618 56 78 37 zenbakia kontak-tu zerrendan sartzea da.



Ekainaren 23an bildu zen zuzendaritza taldea. UTZITAKOIA

## Bidaiarik ez, ikastaroak uda ondotik eta omenaldiak heldu den urtean

### PABLO IRASTORTZA

Otsailaren 25ean elkartu zen elkarteko batzordea, aurten lehenengo aldiz eta, geroztik, Covid-19a dela eta ezin izan da deus egin. Hilabete batzuen buruan, ekainaren 23an batzartu zen bigarren aldiz eta, bertze gaien artean, erabaki garrantzitsuak hartu zituen:

batetik, aurten ez da irteera, bidaia eta egonaldirik egingen; bertetik, orain arte egin diren hainbat ikastaro eta ekintza uda ondorengo hilabeteetan martxan jarriko dira (pandemiaren eboluzioan aldaketarik ez bada behintzat); eta, azkenik, urteroko omenaldiak gibelatu egin dituzte.



# «Herriaren egunerokoan aritzea oinarrizkoa iruditzen zait»

JESUS MARI ETXART ANSALAS LEGASAKO ALKATEA

Abenduaz geroztik Legasako alkatea da Jesus Mari Etxart eta orain artekoaz balorazio positiboa egin du. Eskolan berritze- eta egokitze-lanak egitea izanen dute aurtengo proiektu nagusia

G. PIKABEA LEGASA

Duela 30 bat urte izandako esperientzia errepikatzeko gogoz aurkeztu zen azaroko hauteskundeetara Jesus Mari Etxart. Berak jaso zituen boto gehien eta abenduan hartu zuen alkate kargua. «Aitzineko kontzejukoek dena egina utzi zuten, hutsetik hastea bezala» izan omen zen. «Pixkan-pixkan» ari direla dio eta aitortu digunez, «kontent». Eskola konpontzeko laguntza lortu dute horixe dute aurtengo proiektu nagusia.

**Zazpi hilabete pasatu dira kargua hartu zenuenetik. Zer moduz?**

Ongi. Gogoarekin aurkezten zarenean, dena ikuspuntu horretatik ikusten eta egiten da. Kontent ari gara, egunerokoarekin segituz, poliki-poliki, horrelako herrietan ez delako kontu handirik izaten eta kudeaketa nahiko sinplea izaten delako. Gure aitzinetik kontzejuan egon zirenek dena egina utzi zuten, ez zuten deus zintzilik utzi, eta azken ordainketa batzuk egitea baino ez zaigu gelditu. Alde horretatik hutsetik hastea bezala izan da eta pixkan-pixkan ari gara.

**Bigarren deialdira aurkeztu zintzen. Jendeak ez du aurkeztu nahi?**

Ez du inork aurkeztu nahi ez. Jendeak ez du konpromisorik hartu nahi, aunitzetan ez delako atsegina. Borondatez lan pila egiten da baina badira min ematen duten komentarioak eta horrek jendea gibelatu egiten du. Egiten dena ez da inon-



Duela 30 bat urte ere Legasako alkate izan zen Jesus Mari Etxart Ansals.

dik inora baloratua. Barrenean dagoenak badaki nolako dedikazioa egiten duen, badaki zein behar dauden eta zer egiten ahal den, eta kanpotik dagoenak gainetik egindako analisiak egiten ditu.

**Zergatik aurkeztu zinen?**

Holako kontuak beti gustatu izan zaizkit. Duela 30 bat urte ere ibili nintzen eta orain, jubilatukoan, denbora herriari eskaintzeko aukera ikusi dut. **Orain dela 30 urteko nolako oroitzenak dituzu?**

Denetarik bada, baina orokorrean positiboak, herriaren egunerokoan parte hartzeko aukera izan nuelako. Hori oinarrizkoa da. Ezin dugu beti pankarta gibelean egon, tar- teka aitzinera atera behar da.

**Taldea osatzea zaila izan zen?**

Bilera bat egin genuen baina ez zen jende aunitzik hurbildu eta bateri eta bertzeari galdeka ibili behar izan genuen. Halere, azkenean, konplikazio handirik gabe, osatu genuen. **Gaur egun nolako martxa duzue?** Nahiko martxa erraza dugu. Gure aurrekontua ttikia da, 60.000 bat eurokoa, eta horrekin ez duzu gauza handirik egiten ahal. 30.000 eurora ailegatzen diren gastu finakoak badira eta bertze horrenbertze gelditzen da inbertsioetarako. Baina, normalean, inbertsioak handiak izaten dira eta Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzaren esperoan egon behar izaten da. Hala, egunerokoan herriaren mantentze lan tti-

kietan aritzen gara: argiteria, hoditerira, karririkak...

**Zein dira gastu nagusiak?**

Bere garaian egin zen aterpeak sortutako gastuetarabideratzen dugu aurrekontuaren erdia baino gehiago. Baina kontent gaude egindako lanarekin.

**Bertze proiekturik baduzue?**

Nafarroako Gobernutik eskola konpontzeko dirulaguntza lortu dugu. 30.000 bat euroko aurrekontua duen proiektua aurkeztu genuen eta %70a diruz lagunduko du. Horrekin ari gara orain, nahitaez hurrengo ikasturtea hasi baino lehen egin beharra baita. Berritze eta ezintasun fisikoak dituztenendako egokitze-lanak izanen dira. Argiteria ere berttuko dugu, LED argiak paratuz.

**Zein eskumen ditu kontzejuak?**

Alde batetik, bere jabetasun guztien gestioaz arduratzen da, hau da, mendiez, komunala den guztiaz eta horren barne, bertzeak bertze, bideez. Bertzetik, bestak eta hilerria kudeatzen ditu eta gure kasuan, Bertizaranako Udalarekin hala adostua dugulako, ur sarearen eta eskolaren kudeaketaz arduratzen da. Legez, udalaren eskumenak dira baina kontzejuak hala nahi izanez gero eskualda daitezkeenak.

**Udalarekin zein harreman duzue?**

Horretarako batzordea badugu eta urtean bizpahiru aldiz elkartzen gara, aurrekontuak egiterakoan, kontzejuak eskatutako obrak aztertze...

**Koronabirusaren ondorioz sumatu duzue?**

Kontzejuko lanean ez, esku artean zerbait dugunean baino ez garelako biltzen eta zinegotziak karrikan ere egoten garelako. Baina gaitzarekin herriko emakumezko bat zendu izanak nahiko urduritasun sortu zuen. Baina gaintitu zen eta gainerakoan ongi gaude.

**Bestekin zer egin erabaki duzue?**

Oraindik ez, ikusiko dugu. Herriarren iritzia biltzeko batzarrak deituko dugu eta horren arabera erabakiko dugu. Astia badugu eta horrek lasaiago jokatzeke aukera ematen digu.



Mikele, Maria eta Jasone Afrikako bost lagunekin. UTZITAKOIA

## Afrikatik Zubietara elkartasuna gidari

Hartu-eman sare ederra sortu dute martxoaz geroztik Zubietan dauden bost afrikarrek eta zenbait herritarrek. Bizitzaren lezio egarriak asetzen segituko dute eta, ondotik, ikasitakoari tailer edo emanaldietan segida eman nahiko liokete

### **N.BAZTERRIKA** ZUBIETA

Afrikako bost etorkinen aterpe da Zubietako Olasenea martxoaren 13az geroztik. Etorkin, errefuxiatu, asilo-eskatzailerak eta aberrigabeei banakako arreta soziala eskaintzen dien CEAR erakundeak beste toki bat harrrapatu artean, herrian egotea espero dute.

### **Zubietarren eskutik laguntza eta babes**

Irungo Harrera Saretik jaso zuten Jasonek eta Mariak laguntza eskaera, eta prest agertu ziren biak. Zubietatik Irunera laguntza beharrean zudenek eskua luzatzea erabaki zutenean hasi zen Boli Kostako Abdul, Alassane, Mamadou eta Gineako Oumar eta Moisen Zubietako egonaldia. Kontatu digutenez, «Irunera ailegatzaren diren etorkin gehienek Euro-

pako beste herrialde batzuk izaten dituzte jomuga. Dena den, horietako batzuek asilo politikoa espainiar estatuan eskatzea erabakitzen dute eta azken horien egonaldia luzeagoa izaten da». Horixe izan zen, hain zuzen, bost lagunak Zubietara bideratzeko arrazoia.

Martxoaren 13an, konfinamendua hastear zela, jaso zuten aterpea eta hasieran «hamabost egunerako» zena, pandemiak eragindako egoerarengatik, luzatu egin da: «biharamunean konfinamendua hasi zen eta, egoera horre-

**«HERRITARREN ARTEAN LAGUNTZA SAREA ERAIKITZEA ERABAKI GENUEN»**

tan, itxialdia hemen egin behar izan zuten».

### **Gizarte zerbitzuen laguntzarik gabe aurrera**

Udalak hala adierazita, Jasonek eta Mariak «Malerrekako Gizarte Zerbitzuetan euren etorreraren berri» eman zuten: «oinarrizko elikagaiak eskaini zizkiguten».

Eurek, ordea, «osasun krisiak eragindako egoera ez zela samurra izanen» ikusirik, euren gainhartuzuten horien premiak asetzeko ardura: «beste batzuek laguntza hori behar izanen

**«HERRITARREKIN BATERA JARDUEREZ GOZATZEN ARI DIRA»**

zutenez, herrian Afrikako lagunei beharrezkoa zutena emateko sarea eraikitzea erabaki genuen. Orduetik, ez dugu Gizarte Zerbitzuetatik deirik jaso».

### **Toki eta egoera egokituz**

Hasierako egunak «ez ziren errazak» izan: batetik, «eurek non zeuden ere ez zekitelako»; eta bestetik, «konfinamenduak eragindako egoerara egokitu behar zutelako». Beharrezkoak zituzten azalpen guztiak eman ondotik, toki eta egoera arrotzera egokitu behar izan zuten bostek: «espero ez bezala, barkartuta, egon ziren egun horietan herritar-sare sortu genuen».

Hasiera-hasieratik, bide onekiko jo zuen haien arteko bizikidetzak: «ongi antolatu ziren eta harremana sendotu dute, ederki moldatu dira». Ildo beretik jo du laguntza sareak ere, pixkan-pixkan hazten joan da: «hasieran ahal genuen bezala ase genituen euren oinarritzko beharrak, ez zen aurreikusia genuen bezala izan... Baina moldatu ginen eta elikagaiak eta beharrezkoa zuten guztia eraman genien».

Ezagutu ahala, «gero eta herritar gehiagok» interesa adierazi dutela eta laguntzeko prest izan direla gaineratu dute. Jarrera horri esker, egoerari neurria hartzea errazagoa egin zaie.

### **Konfinamendutik arintzea eta gizarteratzea**

Aldaketa nabarmenena, konfinamendutik arintzearekin eta normaltasun berrian sartzearekin batera ailegatu zaie. Orduetik, aterpetzekoen baldintzak «nabarmen hobetu» baitira. Etxean, bakarrik, egotetik, aterpea baino gehiago jasotzera pasatu ziren, besoak eta bihotza zabaltzeko zizkieten «herriko haur eta gazteekin» harremanak eraikitzeko eta «babes zuzena lortzeko» modua izan dute.

Elkarrekin gozatu ahal izateko antolatu dituzten ekintzak ere izan dituzte: «bizikletan ibili, errekarera joan, erosketak



Zubietako egonaldiaz gozaten ari da Abdoulaye Camara.

## «Bizi besterik ez dugu egin nahi, europarrak bizi diren bezala»

### ABDOULAYE CAMARA

Sorterritik urruti baina «zoriontsu» dago Abdoulaye Camara (Boli Kosta, 1986) Zubietan. «Bizimodu aldaketarako» bide eman dio Afrika utzi eta Euskal Herrira etortzeak: «Afrikan ez nuen askatasunik, lanetik etxera pasatzen nuen egunerokoa, lankide eta familiarekin egoteko aukera baino ez nuen. Hemen, berriz, lana falta zait baina libre sentitzen naiz eta askatasun horrek zoriontsu egiten nau».

Euskal Herrian, Irunen, Errenterian eta Zubietan, «laguntza handia» jaso eta «babes handia» sentitu du, baina batetik bestera aldakorra izan da hori. Izan ere, «Irunen atzerritarra nintzela sentitzen nuen eta

**«ZUBIETAN BESTE TOKIETAN EZ BEZALA SENTITU NAIZ»**

etxe batetik bestera ibili behar izan nuen... Hori horrela, paper tramiteak lehenbailehen egitea nahi nuen, horrekin akitzeko. Buruari bueltaka pasatzen nituen egunak».

### Hasieran arrotz, gero etxean bezala

Aitortu duenez, Zubietan ere «hasiera ez zen erraza izan, jendeak kanpoko nintzenez, nor ote nintzen pentsatuz bezala begiratzen ninduen. Niri, egia esan, horrek ez dit eragiten baina... hori sumatu izan dut».

Herritar-sarekoak ezagutu ahala, Zubietan «etxean bezala» sentitu da Abdoulaye Camara: «eta, egia esan, beste tokietan ez naiz horrela sentitu».

Jasotako harrera nabarmendu nahi izan du, eta bereziki, egin dituzten jarduerak eskertu ditu, «lagunartean egoten naiz, Irunen egiten ez nituen gauzak egiteko aukera izan

**«ASKE IZATEKO, IMMIGRANTEON EGOERA ALDATU BEHAR LITZATEKE»**

dut. Ni pertsona arrunt-arrunt aktiboa naiz eta beti gauzak egiteko gogoia izaten dut...». Hasierako lotsak utzita, gozatzaren hasia da dagoeneko.

Herriko bizimodura egokitu den honetan «paperak lortu eta herrian edo hemendik hurbil behintzat» gelditu nahiko luke.

Dena den, hori ez dago bere esku «CEAR elkartekoek deitzen didatenean haiek diotena egitera behartuta egonen naiz».

### Paperen zain

Behin-behineko bizitokiak utzita, egonkortasuna desio du afrikar gazteak eta hori hasieratik bermatzeko errotiko aldaketa beharrezkoa delakoan dago: «aske eta zoriontsu izateko immigranteen egoera aldatu beharko litzateke, hizkuntza ikasi eta lana egin ahal izateko paperak eman beharko lizkigukete». Koloreaz harago dauden bihotzak ezagutzeke, etiketak baztertu eta esku-bideak aldarrikatzeko eskaera egin du: «zuri zein beltzak izan, azalak ez dute bizimodua baldintzatu behar. Pertsonak gara, eta europarrak bizi diren bezala bitzitzeko aukera baino ez dugu eskatzen».

egin eta futboleko jokatzu gozatzeko modua izan dute». Jolastuz eta lan eginez arindu dute egunerokoa: «zenbait herritarren baratzetan lanean aritu dira».

Ekain erdialdera, «ongi torri ekitaldi xume bat» ere egin zieten: «mokadutxo batzuk dastatu eta Afrikako danbor hotsez girotu genuen mahai-ingurua». Euren presentzia ageriko egitearekin batera, entzuteko duten beharrari keinu egin zieten.

Jasotako harrerarekin «kontent» daude bostak, herritar-sareko lagunek «etxeok bezala» hartu dituztela sentitzen dutelako. Hauek bezain eskertuak daude laguntza-sarekoak

ere, «esperientzia ederra» izaten ari delako.

### Hartu-eman aberatsa

Herritar-sareak, elkarbizitza eskertu, haiengandik ikasteko parada izan du: «elkartasuna eta karitatea zer den» hurbiletik ezagutu dute, baita «azalaren koloreak markatzen dituen pribilegioak eta bazterketak, duintasunaren eta umiliazioaren arteko bereizketa, guztion

**«OINARRIZKO ESKUBIDEAK BERMATU BEHARREKOAK DIRA»**

bizitzak aurrera ateratzeko denok bizitzaren balioa erdigunean jartzearen garrantzia, oinarrizko eskubideen errespetua eta defentsaren garrantzia...».

### Ikasten segitzeko «gogotsu»

Estatuko Barne Arazoetako Ministerioak asilo-paperak tramitatu artean CEAR elkarrearen esanetara daude. Hortaz, momentuz, behintzat, Zubie-

**«ELKAR BABESTEKO ETA IKASTEKO TAILERRAK EGIN NAHI DITUGU»**

tan segitzea espero dute: «CEA-Rek beste toki bat bilatu artean».

Gaia lantzeko «aurrekaria» izan da esperientzia hau zubietar bikotearentzat eta horri segida emateko, «bizitzak zaintzeko sareak» sortu nahiko litzukete: «errespetuan, askatasunean eta elkarlanean jardunez, eskubideak erdigunean jarri eta defendatzeko».

Horri guztiari duen garrantzia emateko eta herritar gisa hezteketo eta zabaltzeko, norberaren bizipenak partekatzeko, «emaldiak eta tailerrak» egiteko asmoa dute. Elkar babesteko eta elikatzeko guneen bidez egin nahi dute hori, «denok dugulako zer ikasia eta denok dugulako zer eskainia».

# MALERREKA

## Oinarrizko gaitasun digitalak lantzeko ikastaroa uztailean

Doneztebeko San Migel ikastetxean eskainiko dute uztailearen 13tik 17ra eta 27tik 31ra bitarte

### TTIPI-TTAPA

Nafar Lansarek, mankomunitatearen laguntzaz antolatuta, oinarrizko gaitasun digitalak eskuratzeko ikastaroa izanen da Donezteben. San Migel ikastetxean eskainiko den ikastaroan izena ematen dutenek Internet bidezko kudea-

ketak berme osoz egiten ikasiko dute. Bi aukera izanen dira: uztailearen 13tik 17ra edo uztailearen 27tik 31ra bitarte eta goizez edo arratsaldez eskainiko dute. Izena emateko 948 45 03 09 telefonora deitu edo [esantest@navarra.es](mailto:esantest@navarra.es) helbidera idatzi beharko dute.

## Leurtzako urtegia berriz ere bisitarientzat zabalik izanen da baina mugekin

### TTIPI-TTAPA

Covid-19aren eraginez, bertze lekuetan bezala, Leurtza urtegia ere egokitzen batzuk egin eta arau batzuk jarri behar izan dituzte 2020ko udako denboraldiarirako. Batetik, aforoa mugatua egonen da, 85 kotxe baimendurik gehienez (horrez gain, oinez, bizikletaz... datozenentzat ere lekua izanen da). Bestetik, prestatuta dauden ibilbideak noranzko bakarrean egin ahalko dira, erlojuaren kontrako norantzan. Erretegiak eta mahaiak erabiltzeko aukera egonen da,

baina bertze urteetan ez bezala, aurrean mahai bakoitzeko bortz euro ordaindu beharko da. Mahaiak zentzuz izanen dute, eta beraz, erabiltzeko bertako langileari egin beharko zaio eskaera, honek dagokion zentzuzko txarteltxo emateko. Hau itzuli ondotik, desinfekzio lanak egingen dituzte, hurrengo erabiltzaileentzat. Bisitarientzat ordutegia izanen da, 09:00etatik 20:00ak bitarte. Ordu horretatik aurrera, eremua hustu eta bidea itxiko da. Auto bakoitzeko hiru euro ordaindu beharko dira.

## Nafarroako Gobernuak familientzako dirulaguntzak onartu ditu

### TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak familiendako hainbat dirulaguntza onartu ditu eta Malerrekako Mankomunitateak horien berri eman du.

Zehazki, egoera berezian dauden familien lan bizitza eta familia bateragarri egiteko

laguntzak, eszedentzia kasuetarako eta familia ugariei zuzendutakoak dira onartu dituztenak.

Interesa dutenek, informazio gehiago eskuratu ahal izateko, Malerrekako Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuera deituko daitezke (948 45 17 46).



UTZITAKOIA

## Donamariarrek auzolana egin dute

Joan den larunbatean, ekainaren 20an, Donamariako herritarrek bazterrak txukuntzeko auzolana egin zuten. Jolas parkea eta inguruko hesiak margotu, Txarutako bordako sarrera berritu eta Iguringo errepide ingurua garbitu zuten, adarrak moztuz eta bide bazterrak garbituz.

## Donamarian ez aparkatzeko paratutako hesiak mugituta agertu izan dira

### TTIPI-TTAPA

Donamariako Herriko Ostatu inguruan ez aparkatzeko paratutako hesiak behin baino gehiagotan mugituta agertu dira (baztertuta batzuetan, eta Perretxenekoa baratzean egun batean). Aurrerantzean enborrak egonen dira hesi horien tokian.



Hesia Perretxenekoa baratzean.

## Donamariako Udalak frontoian egin dituzten pintadak gaitzetsi ditu

### TTIPI-TTAPA

Donamariako Udalak frontoiko paretan egin dituzten pintadak gaitzetsi ditu. Adierazi duenez, «pertsonek jakin bati zuzendurikoak» dira eta «ez da hauek egin diren lehenbiziko aldian». Gainera, «biak esprai berarekin eginak dira».

Horrelakorik ez dutela onartuko eta salaketa jarri behar dutela argitu dute: «hori egin dutenak ez dira hamar urteko haurrak, eta horrelakorik ez dugu onartuko. Salaketa jarri behar dute. Lehenbizikoan pasatzen utzi genuen, baina gauzek beren mugak dituzte».



ARKAITZ MINDEGIA

## Igerizarretako lanak akituak

Nafarroako Gobernuak eta Gipuzkoako Diputazioak elkarlanean garatu zuten Life-Irekibai egitasmoaren baitan presa bota zuten, erdiko pilarea eta estribuen hasiera errespetatuz. Itxuraldatze handia izan du buelta guztiak: erreka bazterrean mahai eta aulki batzuk jarri eta txukun utzi dute.

## Agustina Oteroren erakusketa ikusgai laster

Herrian bizi den Agustina Otero artista kultur proposamen batekin dator. Uztailaren 17tik abuztuaren 10era bere tailerreko atea irekiko ditu artelanak ikusgai paratuz. Bisita gidatuak eskainiko ditu, 19:00etan. Interesatuak 688 63 87 25 telefonora deitu behar dute.

## Ikasturtea akituta oporretan daude Pulunpa eskolakoak

Ezohiko ikasturte honen ondoren, joan den ekainaren 19an hartu zituzten oporrak Pulunpa eskolako ikasleek. Orain atseden hartuta, irailaren 4an bueltatuko dira eskoletara. Ea heldu den ikasturtean eskola berrira lekualdatzeko modua duten!

## Mendaurko Trinitate ermitan hondamendia

### ARKAITZ MINDEGIA

Bisitari batzuek Mendaurko Trinitate ermitaren barruan sua egin zuten, santutegi gaineko kaxa eta kanpoko ikurri-nerrez. Horrez gain, zaborra bertan utzi zuten. Herritarrek «gauzak dauden bezala uzteko» eskatu dute.



Ermita barrenean sua egin zuten.



## PROMOCIONES MALERREKA

Informazioa: 629 951 170 (Aitziber)



## AUKERA BIKAINA Sunbillan!

### 9 ETXEBIZITZA:

115m<sup>2</sup> arteko etxeak

3 atiko

3 edo 2 logelakoak, sukaldea, egongela, 2 bainu, trastelekuak eta lurpeko garajeak

Lokal komertzialak

EZKAIN ERAIKUNTZAK-ek eraikiak



✓ Zure beharren araberako finantziazioa, Rural Kutxaren babes eta abalarekin

## Herriko komertzioa indartzeko erosketa txartelak salgai

Uztailaren erditik abuztuaren 30a bitarte erabili ahal izanen dituzte herritarrek

### TTIPI-TTAPA

Udalak herriko komertzioetan gastatzek bonuak jarriko ditu herritarren eskura. 20 euroren truke bost euroko bost bono eskuratzeko aukera izanen dute. Bonu hauek bost eurotik gorako erosketak egiteko balioko dute, herriko edozein komertziotan, eta uztailaren erditik abuztuaren 30a bitartean erabili ahal izanen dira.

Honekin herriko komertzioei lagundu nahi zaie. Udaletik adierazi dute konfinamendu garaian ikusi dela beharrezko zerbitzu guztiak badituztela

herrian: «ez zaigu ia deus falta izan. Hemendik aurrera ere herrian kontsumitzen jarraitzea beharrezkoa da zerbitzu hauei eusteko». Bestalde, itxita egon behar izan duten tabernei esku bat bota eta lanean jardun dutenei eskerrak emateko modu bat ere bada udalak abiatu duen kanpaina.

### Bonuak salgai 10ean eta 11n

Bonuak uztailaren 10ean, arratsaldean eta 11n, goizean, salduko dituzte plazan eta uztailaren 13tik aurrera erabiltzeko moduan izanen dira.

## Hernanira doan errepidean hobekuntzak egiten ari dira

### TTIPI-TTAPA

Goizueta eta Hernani arteko errepide zati batzuetan ez dago ikusgarritasun ona eta horren ondorioz, urtetan, hainbat istripu gertatu izan dira. Horri irtenbidea emateko duela zenbait urte hobekuntza lanak egin zituzten, baina guztiz

bukatu gabe utzi zituzten. Ekaineko azken astean lan horiei berrekin eta bihurguneei zabalera handiagoa emanen diete. Belakoko azpian, Bekoitxe inguruan, Anaxuri inguruan eta Arranbide baino lehenago dauden bi bihurguneean eginen dituzte lanak.

## Goizueta eta Hernani arteko autobus zerbitzuan udako ordutegia indarrean da

### TTIPI-TTAPA

Ekainaren 22tik aurrera Goizueta-Hernani autobus-linearen ordutegia aldatu da. Orain artean, egunean hirutan izaten zen bi herrien artean joan-etorria egiteko aukera. Udako ordutegia jarrita, bi joan-etorri baino ez ditu autobusak

Aurrerantzean honakoa izanen da ordutegia: Goizuetatik autobusa goizez, 09:00etan abiatuko da, eta arratsaldez 15:00etan. Herrira buelta egiteko Hernanitik 12:00etan eta 19:00etan abiatuko da autobusa. Astelehenetik ostiralera eskaintzen da zerbitzua.



JOSEBA OLASKOAGA

## Itturizarretako pista moldatzeko auzolanean

Itturizarreko pista moldatzeko auzolana deitu zuen udalak ekainaren 27rako. Jende dezente bildu zen eta lehenbiziko auzolanean hasitako lanak uztailaren 4an bukatu zituzten. Auzolanerako bigarren deialdian herriko beste hainbat txoko ere txukundu zituzten.



Udal ordezkariak bisitariekin hitz egiten.

## Bisitariei arduraz jokatzeko eskatu diete Arano eta Goizuetako alkateek

### TTIPI-TTAPA

Goizuetako eta Aranoko alkateak erreka bazterreko bisitariengana hurbildu ziren ekainaren 27an zabor bilketari buruzko informazioa banatu eta arduraz jokatzeko eskatuz. Azaldu zieten erreka inguruan ez dagoela zaborra botatzeko edukiontzirik, beraz, honda-

kinak ezin direla bertan utzi. Sua egitea debekatuta dagoela eta baimenik gabe ezin dela bertan kanpatu ere azpimarratu diete. Bidenabar, bertan zeuden zaborrak bildu zituzten. Neurri hauek eragina izatea espero dute eta «zaborren inguruko kudeaketa on bat eginenez, denok zentzuz jokatzeari».



Urtebetez dirulaguntza bere horretan mantenduko du Nafarroako Gobernuak.

## Amazabalgo jangela eta garraio zerbitzuak diruz lagunduko dituzte aurten

### TTIPI-TTAPA

Parlamentuko saiakerak emaitza ona izan du eta Nafarroako Hezkuntza sailak urtebetez DBHko ikasleen jangela eta garraio zerbitzuak bere horretan mantentzeko konpromisoa hartu du azkenean.

Apirilaz geroztik hizketagai izan da Amazabalgo jangela zerbitzua. Orduan jakinarazi zien ikastetxeak Nafarroako Hezkuntza Departamentuak heldu den ikasturtean ez zuela Amazabalgo DBHko ikasleen jantoki zerbitzua diruz lagunduko eta DBHko eta Batxilergoko ikasleei ordutegi berbera jarri nahi zietela garraio zerbitzua murriztuz. Jantoki zerbitzuko dirulaguntza defendatu beharra zutela ikusita, Amazabal erreferentzia zentrotzat duten herrietako udal ordezkariak harreman sorta bat hastea erabaki zuten.

Hamaika ate jo eta guztiak itxita, Parlamentura jotzea erabaki zuten udal ordezkariak.

### Urtebeteko luzapena

EH Bilduko talde parlamentarioak eraman zituen negoziaketak Hezkuntza Departamentuko ordezkariekin eta izan ditu emaitzak. Mikel Zabaleta Leitza alkateak TTIPI-TTAPAri azaldu dionez, murrizketa hau ez da gauzatuko aurten eta horrela ikastetxeak urtebete gehiago izanen du gauzak behar bezala aztertu ahal izateko: «2020-2021 ikasturtean, denbora gehiagorekin, aztertu beharko du Amazabal Institutuak zer jangela zerbitzu eskain daitekeen, zein baldintzetan eta nola». Izan ere, urtebeteko moratoria da lortu dena: «Hezkuntza Departamentuak, zerbitzu hau urte batez bakarrik luzatuko dutela esan du».

## Ezezkoa nagusitu da konpost-plantari buruzko galdeketa

126 herritarrek eman dute beren iritzia eta horietatik 76k bozkatu dute kontra

### TTIPI-TTAPA

Herriko Eluseder industrialdean konpost-planta egiteko egitasmoarekin aurrera edo atzera egin erabakitzeko herri-galdeketa egin zuten ekainaren 21ean. Hamasei urtetik gorako herritarrek izan zuten iritzia emateko aukera, %52,7koa izan zen parte-hartzea eta horietatik %62,7k proiektuaren kontra bozkatu zuten.

### 2018tik mahai gainean dagoen egitasmoa

2018an jaso zuen Aresoko Udalak Mendialdea Mankomunitatearen eskutik konpost-planta eraikitzeko lur zati baten eskaera. Bertan eskualdeko sortzaile berezien organiko kudeatzeko konpost-planta eraikitzea zen asmoa. Bi urte pasatu dira, udal taldea aldatu da eta eskaintzarekin aurrera edo atzera egiteko unea iritsi denean, egungo ordezkariak hainbat zalantza sorrazten dizkie gaiak. Herritarren iritzia ezagutu nahi izan dute eta horretarako egin zuten galdeketa.



Herritarrek bozka ematen.

Denera, 239 herritarrek zuten bozka emateko aukera eta 126k eman zuten beren iritzia: 79 aresoarrek bozkatu dute konpost egiteko plantaren proiektuaren kontra eta 47k alde.

### Parte hartzea eskertuz

Udalak herritarren parte-hartzea azpimarratu eta eskertu nahi izan du: «herritarrek ulertu dute gai honek zuen garrantzia eta erantzuna neurri berekoa izan da». Herritarren iritzia kontuan hartuta hartuko dute azken erabakia. Mendialdea Mankomunitateko ordezkariak biltzeko zuten udala galdeketa emaitzaz eta egon daitezkeen bestelako aukerez hitz egiteko.

## Egur loteak ateratzen hasi dira azkenean

Hainbat gorabehera tarteko egur loteak banatu gabe zutuzen oraindik. Udaberrirako lote guztiak banatuak izaten dituztela kontuan izanik, haserre zeuden dagoeneko hainbat herritar. Udalak jakinarazi du enpresa hasia dela lanean eta laster banatuko dituztela.

## 'Herri txiki, infernu handi' saioaren bisita herrira

Herriko kontuak eta bitxikeriak telebistan ikusteko aukera izango dugu uda honetan. *Herri txiki, infernu handi* telebista saioko telefono deia jaso dute hainbat herritarrek eta datozen hilabeteetan grabazioak egitekoak dituzte. Seguru badutela zer kontatua!



**Bizikleten salmenta eta konponketa.**

📍 Kanttonberri, 1 | BERA

☎ T. 948 631 218

✉ joxemi@kateabike.com

🌐 [www.kateabike.com](http://www.kateabike.com)








## Interneteko banda zabala baserrietara zabaltzeko bidean

Herri guztian 30 mega baino abiadura handiagoan Internet zerbitzua eskuragarri egotea espero du udalak

### TTIPI-TTAPA

Herriko baserri auzoetara banda zabala iristeko proiektua lantzen ari da udala. Datozen hilabeteetan, radiofrequentzia seinaleen bidez, herri guztian 30 mega baino abiadura handiagoan Internet zerbitzua eskuragarri egotea espero dugu.

Udala, NASERIC (Nafarroako Gobernuako enpresa publikoa), Cederna-Garalur eta beste operadore batzuekin lanean ari da, helburua lortzeko modurik egokiena zein izanen den zehazteko; herriaren ezaugarrietara hobekien egokituko den irtenbidea topatzeko.

## Kiroldegiko ateak uztailaren 1ean ireki dituzte

### TTIPI-TTAPA

Kiroldegia erabilgarri dago berriz ere, segurtasun neurri artean bada ere. Horregatik, erabiltzaileei errespetuz jokatzeke deia egin diete, «ardura guztiona da». Kiroldegian sartzeko harreraren datu pertsonalak eman, eskuak desinfektatu

eta gorputzeko tenperatura ere neurtuko diete. Oinetakoak desinfektatu beharko dituzte eta maskara erabiltzea ere derrigorrezkoa izanen da, kirola egiterakoan izan ezik. Muskulazio gelan eta aldagelan ere segurtasun eta higiene neurri zehatzak bete behar dituzte.



UTZITAKOIA

## Bizitzak erdigunean jartzeko giza katea

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak egindako deialdiarekin bat egin eta herritar ugari parte hartu zuten ekainaren 19ko mobilizazioetan. Segurtasun neurriak betez giza katea osatu zuten eta kalej nagusia aldarrikapenez bete zuten haur, gazte zein helduek.



J. OTXOTORENA

## Errekondori galdezka

Bertako baserriarren azokaren baitan Jakoba Errekondoren bisita izan zuten ekainaren 20an Leitza. LeitzEko kontsumo taldeak antolatu zuen hitzordua eta jende ugari bertaratu zen Karrapera. Kontsultategi formatuan luze erantzun zien Errekondok herritarren kezkei eta galderei.



UTZITAKOIA

## Hainbat auzolan egin dituzte herritarrek

Herritar batzuk, beren kabuz, Kornietako bidea eta Ixkibarren dagoen guardetxe ingurua txukundu dituzte. Bidea garbitzeaz gain, seinaleztapen guztia berritu dute. Leitzako Udalak eskertu egin nahi izan die egindako lana: «auzolana gure balio eta indargune delako, eskerrik asko!».

## Erosketa-txartelek arrakasta handia izan dute

### TTIPI-TTAPA

Denera, 500 erosketa txartel jarri dituzte salgai eta herritarrek 20 euroren truke, 10 euroko hiru bonu eskuratzeko aukera izan dute. Astebetez 480 txartel baino gehiago saldu dituzte. Bonuak abuztuaren 10era arte erabil ditzakete Kax-

kabeltzako komertzioetan. Udalak eta Kaxkabeltza elkarrekin elkarlanean martxan jarri duten egitasmoa da herriko komertzioetan erosketak egitea bultzatu eta, bidebateraz, herriko komertzioek elkarlanean eta elkarrekin lan egitea bultzatzeko.



# «Ez dugu haurdunaldian ohikoak diren gauza batzuk bizitzerik izan»

AMAIA SAGASTIBELTZA ZABALETA HAURDUN DAGOEN LEITZARRA

Hogeita hiru asteko zegoen alarma-egoera indarrean jarri zenean eta horren eraginez, hainbat aldaketa izan dituzte haurdunaldiko errutinetan

**E.IRAOLA** | LEITZA

Ziztu bizian doan bihotz tau-pada, pixkanaka hazten doan sabela, barrenari buelta ematen dioten ostikoak... aurrenekoz bizi dituzte Amaia Sagastibeltzak (1983, Leitza) eta bere bikoteak. Uztailerako espero dute ttikia eta bizipen horiek behintzat ez dizkie lapurtu Covid-19ak. Hasierako kezka gainditu eta eskura dituzten babes neurri guztiak hartuta bada ere, ahalik eta goxoen bizi dute haurdunaldiko azken txanpa.

## Informazio gehigarrik ez

Haurdun zeuden emakumeak arrisku taldeko kideztat jo zituen Espainiako Osasun Ministerioak Alarma Egoera indarrean jarri zenean. Neurri horrekin, lasaitu orde, areagotu egin ziren askoren kezka eta beldurrak. Argi dio Amaiak, «ez nuen, inondik ere, gomen-dio edo arreta berezirik jaso». Informazio gehigarrik ere ez eta horregatik, bere kabuz egin zuen ikerketa lana: «osasun-langilea naiz eta ahal izan dudun neurrian informazio-iturri ofizialak, ospitaleko protokoloak eta ikerketa desberdinak irakurtzen aritu naiz. Hainbeste informazio eskura izanda ere, ez da erraza izan ezer argirik ateratzea kontraesan ugarirekin topo egin dudalako».

Pediatra da lanbidez Amaia eta kutsatzeko arriskua handiagoa izanik, nahiko goiz



Haurdunaldiko azken txanpa ahalik eta goxoen bizi dute. UTZITAKOIA

eman zioten baja: «gaixo posibleekin lanean ari nintzen bitartean, haurdunaldian zenbaterainoko eragina izan zezakeen ez genekienez beldur eta kezka asko izan nituen. Ondoren, etxean geratuta eta haurdunaldian ez zuela bereziki arazo gehiago sortzen ikusirik erlaxatzen joan naiz».

## Konfinamenduan ongi

Konfinamenduz galdetuta, emozionalki «uste baino hobeto» eraman duela azaldu digu: «hasieran beldur eta kezka askorekin, egoera berria izanik ezjakintasun handia guelako. Baina, krisi egoera berezia zela ulertu eta zeuden arriskuen jakitun izanik animoz hartu nuen». Dena

den, aitortu du asteak aurrera joan ahala «geroz eta gogorra-goa» izan dela etxean sartuta egotea, «bukieran animo tristeagoa eta kalera ateratzeko behar handia sentitu ditut».

Neurriak arindu ahala, hasi da pixkanaka kalera ateratzen, baina tentuz ari da jokatzeko: «momentuz herrian baino ez naiz ibili, jendearekin kontaktuan banago musukoa eta ahalik eta distantzia gehien mantenduz eta zorionez gure inguruan kasu gutxi egon direnez lasai. Dena den, oraindik ere leku itxietara edo hirira joatea ahal dudun neurrian saihesten dut».

Izaten dira, ordea, ezinbestean egin beharreko joan-etorriak. Haurdun dauden ema-

kumeek maiz joan behar izaten dute Osasun Etxera kontrol saioetara eta horietan ere nabaritu dute Covid-19aren eragina: «ginekologoaren kontsultak mantendu dizkirate, baina, emaginarekin ohi baino kontrol gutxiago izan ditugu eta batzuk telefono bidez izan dira». Gogorrena kontsultetara bakarrik joan beharra izan dela azpimarratu du: «lehenengo ekografiara bikoteak ere joateko modua izan zuten, baina, ondorengoetara ez eta egia esan, nahiz eta egoera berezia dela jakin eta beharrezkoak diren neurriak direla ulertu, pena handiz bizi izan dugu». Erditzerako prestakuntza saioak egiteko aukerarik ere ez dute izan: «aurrez aurreko ikastaroak bertan behera geratu ziren eta internet bidez ikusi ahal izateko ikastaro batzuen helbide batzuk eman zizkigun emaginak». Interneten milaka ikastaro egonagatik, «lehenengo haurdunaldia izanik aurrez aurreko prestakuntza faltan bota dugu».

Erditzeko momentua ere kezka iturri izaten da eta hasieran kezkatuta egon baziren ere, orain lasaixeago daude: «pandemia hasieran kezka gehiago genituen ez zegoelako garbi amarengan edo haurraren zer arrisku eragin zezakeen, oso maiz protokoloak aldatzen ari zirelako, infekzio kasu asko zeudelako... Baina, gaur egun, kasu gutxiago daudenez, ospitaletan jakintza gehiago dutenez, protokoloak garbiago daudenez... lasai gaude». Badakite ospitalera sartzean protokolo berezi bat segi beharko dutela: «ospitalera sartu orduko birusaz kutsatuta gauden edo ez jakiteko PCR frogaren emaitza digute eta musukoa jarri beharko dugu, baina, bikotea ondoan egon daiteke prozesu guztian zehar eta haurra ere gurekin eduki ahal izanen dugunez, lasai gaude». Eta ondorenerako ere «beldurrak uxatuta» ilusioa dute nagusi.



Hiru urte zituen Ixiar Bakerok Goizueta utzi eta familiarekin Añorgara joan zenean, baina garbi dio goizuetarra dela.

## «Iaz Realak irabazi zuen arte inor ez zen gure lorpenez ohartu»

**IXIAR BAKERO ESKUDERO** GOIZUETAKO FUTBOLARI OHIA

Emakumezkoen futboleant aitzindari izan ziren Bakero-Eskuderotarrak. Ixiar eta Ainhoa ahizpek, esaterako, hiru aldiz liga eta beste hirutan kopa irabazi zituzten

**G. PIKABEA** | GOIZUETA

Sorterria aspaldi utzi zuen arren, argi du nongoa den Ixiar Bakerok (Goizueta, 1969). Ez ditu sustraiak ahaztuak, ezta haurtzaroko «oroitzapen politak» ere. Hiru urte zituen Goizueta utzi eta familiarekin Añorgara joan zenean, «baina oporrak eta ahal genituen as-teburu guztiak Goizuetan pasatzen genituen». Gaur egun, Hernani du bizileku baina «beti esaten dut goizuetarra naizela». Futbol talde bat osatzeko adina diren familian jaio zen. 11 anai-arreben artean bederatzigarrena da, eta asko izan ziren futbolaren bidea aukuratu zutenak: 11 senideetatik seik lortu zuten goi mailara

ailegatzea, eta tartean Ixiar Bakerok. Emakumeen futboleant aitzindari izan zen.

**Zuena futbolarien familia dela esan dezakegu...**

Beti esan izan didate 11 senide izanda futbol taldea osatzeko adina baginela. Egia da anai-arreba gehienok kirola egin dugula eta bereziki futbola. Bi anaia, Joxe Mari eta Xanti, lehen mailara ailegatu ziren, eta beste batzuk B mailan aritu ziren. Hiru ahizpa, Arantxa, Ainhoa eta hirurok, Añorga taldean ibili ginen. Ez dakit familiatik datorkigun edo ez, baina txikitatik gustatu izan zaigu eta gustuko genuena egiteko aukera izan genuen. **Añorgan hasi zinen futboleant...**

Bai, Añorgan futbol zelaia eta frontoia eskura genituen eta orduak pasatzen genituen futboleant eta pilotan. Garai hartan ez zegoen emakumeen

talderik, baina mutilenak asko, eta haien entrenatzaileetako batek, 1980an edo 1981ean, ikastolako jaialdian aritzea proposatu zigun. Baietz esan eta nesken taldea osatu genuen. **Ikastolako partida haren ondotik gehiago etorri ziren...**

Ikastolako futbol zelaietik jokatzen genuen partida horren ondotik, Donostian maiatzean hondartzan egiten den txapelketan, finala jokatzeo aukera eman ziguten. Ez zegoen talderik eta zuzenean finala jokatzen genuen. Kontxan izan zen, 1981ean, orduan irabazi genuen nesken aurreko finala.

**Nolako taldea zineten?**

Hasieran Añorgako jendearekin osatu genuen eta futboleant jokatzeo nahikoa ez ginenez, futbiton aritu ginen. Gerora, ordea, Añorgan nesken taldea bazela zabaldu zenean, inguruko herrietatik neska pila hurbildu zen. Futboleant oso ongi ibiltzen zen eta jokatzeo gogoz zegoen jendea zen eta talde ederra osatu genuen. Hortik aparte, lagun taldea egin genuen eta gaur egun nire kuadrillako gehienak talde horretakoak dira.

**Inguruak nola erantzun zuen emakumezkoen futbol taldea sortutakoan?**

Añorgan, adibidez, ez zen inor harritu, ohikoa zelako gu han jokatzen ikusteak. Baina Añorgatik kanpo bai, ez zelako eza-guna. Euskal Herrian, hala ere, nahiko erantzun ona izan genuen, baina estatu mailan denetarikesaten ziguten: 'ma-

### Motzean

**Bizitzeko toki bat?** Antiguoa, nahiz eta bizi izan naizen hiru herrietan oso gustura bizi.

**Goizuetako txokorik gustukoena?** Txino auzoa.

**Liburu bat?** Ez naiz oso liburuzalea.

**Futbol talde bat?** Realak.

**Jokalari bat?** Bere garaian, Realeko Zamora eta Bartzel-

onako Laudrup eta gaur egun, Bartzelonako Messi.

**Hondartza ala mendia?** Mendia.

**Bisitatu zenukeen toki bat?** Australia.

**Futbola ez den bertze kirol bat?**

Praktikatzeo eta ikusteko pilota.

ri-mutilak', 'segi etxera', 'zer ari zarete futbolean jolasten'... Burla egiten ziguten.

**Añorgan hasitako ibilbideak askorako eman zuen. Espainiako liga eta Erreginaren Kopa bakoitza hirutan irabazi zuten. Orduko nolako oroitzapenak dituzu?** Oso oroitzapen politak. Gipuzkoako ligan hasi genuen ibilbidea, eta hori irabazitakoan estatu mailan jokatzeko hasi ginenean. Ordu askoko bidaiak egiten genituen autobusean baina oso giro ona genuen geure artean.

**Gipuzkoako, Euskal Herriko eta Espainiako selekzioetan ibili zinen...**

Urte dezentez Gipuzkoako selekzioan ibili nintzen. Gero, herrialde mailakoak desagertu eta Euskadikoa sortu zuten eta estatu mailan titulu bat lortu genuen. 17 urte nituela Espainiako selekzioarekin jokatzeko deitu zidaten eta futbola utzi nuen arte segitu nuen.

**Kapitaina eta golegile ona zinen...** Espainiako selekzioan, Euskadikoan eta Añorgako taldean kapitaina izan nintzen. Gol dezente sartzen nituen erdi-laria nintzen baina sartu baino gehiago aukerak ematen nituen. **Gizonezkoen eta emakumezkoen futbolaren arteko aldea oso nabarmena zen?**

Bai, dudarik gabe. Estatu mailan, gero irabazi genituen ligan jokatzeko ari ginela, ikusteko zen zein eratan ibiltzen ginenean. Asteburu bat etxean eta hurrengo kanpoan jokatzeko genituen, estatu osoan barna. Larunbatetan ez dakit ze ordutan ateratzen ginenean etxetik, ordu luzez autobusean ibili, partida jokatu eta buelta. Gizonezkoek hegazkinetan egiten zituzten bidaiak.

**Orduko bitxikeriak ere izan dituzu gogoan...**

Bai, bai, eta batzuk zelebreak. Hemendik kanpora joaten ginenean, lehen mailako taldeen zelaien ondoan jokatzeko genituen. Gaur egun, denek belar artifiziala dute, baina garai hartan zelai txarrak ziren. Bartzelonara joan ginenean batean,

kontent geunden Camp Nouen jokatzeko genuela pentsatuz, baina non jokatzeko eta Camp Nouen aparkalekuan jokatu genuen.

**Joxe Mari edo Xantiren arreba ala Ixiar sentitu zara futbolean?** Hor barna joaten nintzenean, askotan galdetzen zuten 'zein da arreba?'. Oso harro nago beraien arreba izateaz, baina futbolean Ixiar izan naiz, eta lortu dudana nire merituekin egindakoa izan da.

**Anaiek futboletik bizitzeko aukera izan zuten. Zuk eta zure ahizpak, ordea, ez...**

Gizartearen erakusleihu da hori, emakumea beti bigarren mailan. Titulu asko lortu genituen, baina iaz Realak Erreginaren Kopa irabazi zuen arte, inor ez zen ohartu gure lorpenez. Orduan azaleratu zen titulu hori lortutako emakumezkoen talde gehiago bazirela Gipuzkoan. Tarte horretan isil-isilik pasatu zen gurea. Hor ikusten da gizonezkoen futbolarekin zein den aldea.

**Gaur egun nola ikusten duzu emakumezkoen futbola?**

Aldaketa handia gertatu da. Aurreneko pausoa lehen mailan gizonezkoen taldea dutenek emakumezkoetan ere taldea ateratzea izan da: Realak, Osasunak, Athleticen... Horrekin batera, jokalariek eta entrenatzaile guztiek guttieneko soldata eta jokatzeko zelaia bermatuak dituzte. Asko-asko aldatu da gure garaitik. Guk ez genituen entrenatzeko bitartekorik eta entrenatzaile bat bilatzeko ere nahiko lan izaten genuen. Hala ere, oraindik asko dago aldatzeko.

**Zergatik hartu zenuen erretiroa?** 10 urterekin hasi eta 25 egin arte ibili nintzen futbolean. Baina ordura arte gozamen zena aldatzen hasia zen: entrenamenduak berandu, etxera ez dakit zer ordutan, ikasketak, lana, halako manerak egiten genituen asteburuetako bidaiak, goizaldeko lauretan etxera ailegatu eta astelehenean lanera... Nahiko gozatu nuela eta erritmo hori jarraitzea



Ixiar eta Ainhoa Bakero Albacetén, 1990ean Erreginaren Kopa irabazi zutenean.



1991n, La Romaredan, Bartzelonaren aurka 3-0 irabazi zuten Erreginaren kopako finala.



Bakero, eskuinean Añorgan jokatzeko, Madrilgo Oroquieta taldearen aurka.

ezinezkoa zela ikusten nuen. Gainera bistakoa zen futboletik ezin izanenu genuela bizi eta uztea erabaki nuen, nahiz eta maila onean nengoen eta selekzioekin nirekin kontaktatu zuten.

**Erabaki zaila izan zen?** Hasieratik taldean egonak ziren lagun batzuk uzten hasiak ziren eta jakina zen pixkanaka denok bide bera hartuko genuela. Alde horretatik, ez zen erabaki zaila izan. Gainera, utzi nuenean, Añorga B taldea

entrenatzeko aukera eskaini zidaten eta ez nuen futbola-ekin nuen harremana erabat alde batera utzi.

**Futbolarekin harremanetan segitzen duzu?**

Ez. Urte batzuek entrenatzaile lanetan ibili nintzen, baina seme-alabak eduki nituenean erabat utzi nuen. Urtero eskaini izan didate entrenatzaile lana baina gauza asko dira eta indarra duen jende gaztea bilatzeko esaten diet.



Buztanzelaiko kaskoan presoan alde sua piztu zuten.

## Baztango mendizale talde batek presoan alde mendi martxa egin du

### TTIPI-TTAPA

Ehunka herritar 'Presoak etxera' lelopean igo ziren Ipar Euskal Herriko 13 mendi kaskotara ekainaren 20an.

Zehazki, Buztanzelai, Artzamedia, Oilandoi, Baigura, Arradoi, Mendibil, Kalbarioa, Santa Barbara, Soihatze, Zualmendi, Ursuia, Beltxu, Erebil,

Antzaramendi, Lomendi, Larla, Urtsun, Gorramakil, Patarramunhoa eta Jarako kaskotatik elkartasun keinuak hedatu ziren.

Argazkian ageri den Baztango mendizale taldeak egitasmoarekin bat egin zuen eta presoan alde sua piztu zuen Buztanzelaiko kaskoan.

## Administrari lan-poltsa eratzeko deialdia martxan

Koronabirusak etendako administrari ofizialen lan-poltsa eratzeko oposizio-lehiaketa martxan da berriz. Ekainaren 24an, Baztango gazte-aterpetxean proba teoriko-praktikoa egin zuten, neurriak zorrotz betez. Hau idazterakoan, emaitzak argitaratu gabe zeuden.

## 3.248 zenbakia BRTren zozketan saritua

Baztan Rugby Taldeak pandemiak eragindako egoerari aitzin egiteko bi lagunendako bidaia edo Biok Bat tailerreko produktu sorta aukeran eskaintzen zuen zozketa antolatua zuen. Ekainaren 27an, zozketa egin ondotik, 3.248 zenbakia saritua izan zela iragarri zuten.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Bizitzak lehenesteko aldarrikapenekin bat

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak deituta, *Lehenik bizitza* lelopean elkarretaratzea egin zuten ekainaren 19an Elizondon. Bertzeak bertze, zerbitzu publikoak garatzea, zaintza eredu aldaketak, pobrezia eta banaketa sozialaren kontrako neurriak eta erretiratuentzat 1.080 euroko diru-sarrera eskatu zituzten.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Arizkun Rock oroitzeko bideoa egin dute

Ekainaren 19an ospatzekoa zuten Arizkun Rock jaialdia oroitzeko, antolatzaileek aitzineko edizioetako irudi ederrak eta Jon Maiaren hitzak bildu zituzten. Bideo eder horren bidez «proiektu honetan sinesten dutenei eta euren ekarpenak egiten dituztenei» eskerrak eman nahi izan zizkieten.



**instalazioak**  
**IGOGAILUAK**

**PROFESIONALAK**  
**KALITATE-BERMEA**  
**IRISGARRITASUNA**  
**MANTENTZE LANAK**

**15** Urteko esperientzia

**EZ ZAITEZTE KEZKATU!** Gu arduratuko gara proiektu osoa landu, obra baimenak tramitatu, diru-laguntzen eskaerak egin eta gremioak koordinatzeaz.

**Santiago, 71 | ELIZONDO | T. 948 580 166 | M 619 424 999**  
**suteia@suteiazaldain.com**

- 1 KANPOKO IGOGAILUAK**  
Kanpoko fatxadan guztiz integratuak, portal barrutik sarbidea. Inpaktu eta eragozpen minimoak. Mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako sarbidea.



- 2 BARRUKO IGOGAILUAK**  
Eskailerako tartean integratuak. Sarbidea portal barrutik, inongo oztoporik gabe. Mugikortasun arazoak dituzten eta gurril-aulkian daudenentzako egokituak.



- 3 IRISGARRITASUNA**  
Mugikortasun arazoak dituzten eta gurril-aulkian daudenentzako portalerako sarbidea egokitzen dugu. Azkar egiten ditugu lanak, eragozpen minimoak sortuz.




# Baztan Ikastolak irakasleendako lan eskaintza egin du

Interesatuak eskaera orria eta meritua uztailaren 10a baino lehen aurkeztu behar dituzte

## TTIPI-TTAPA

Lehen Hezkuntza gradua eta Haur Hezkuntza gradua edo diplomatura ikasi duten irakasleei bideraturiko lan eskaintza egin du Baztan Ikastolak.

Kontratazio mugagabea eskainiko dute, eta, horrekin batera, lan-poltsa osatuko dute. Parte hartu nahi dutenek eskaera orria eta meritua uztailaren 10a, heldu den ortzira, baino lehen aurkeztu beharko dituzte. Dokumentuak Baztango udal bulegoan jasoko dituzte, 09:00etatik 14:00etara.



Errelebo kontratua eskainiko dute.

Hautaketa prozesuan mehezimendua (30 puntu), froga teknikoa (60 puntu) eta ahozko elkarrizketa (10 puntu) baloratuko dituztela iragarri dute. Deialdi osoa udalaren webgunean irakur daiteke.



UTZITAKOAK

## Euskaltegikoek ikasturtea agurtu dute

Hetsaldiarekin eta faseen akabailarekin batera, euskaltegia ere ikasturtearen akabailara ailegatzeko ari da. Aurten, egoera medio, ezohiko ibilbidea egin badute ere, eta egoeragatik ikasturtea agurtzeko afora egin beharrean taldeka bildu dira elkar agurtu eta udari ongietorria emateko.

## ERAKUTSI ETA APROBETXATU AUKERAK!

### DESKONTUAK BAZTAN TTIPI TXARTELA

<p><b>%10</b> DESKONTUA kopia digitaletan</p> <p>Santiago, 44   ELIZONDO T. 948 58 01 55</p>	<p><b>%10</b> DESKONTUA produktuetan</p> <p>Santiago, 15   ELIZONDO T. 948 58 04 91</p>	<p><b>%15</b> DESKONTUA frenoetan</p> <p>Santiago, 85   ELIZONDO T. 948 58 08 98</p>
<p><b>%10</b> DESKONTUA baterietan</p> <p>Zaldubia indus. B partz. 2. nabea   IRURITA T. 948 58 02 25</p>	<p><b>%5</b> DESKONTUA olio aldaketetan</p> <p>Santiago, 37   ELIZONDO T. 948 58 04 06</p>	<p><b>%5 %10</b> DESKONTUA EDO OPARIA Galdetu dendan</p> <p>T. 948 58 01 04   ELIZONDO www.almacobaztan.com</p>
<p><b>%25</b> DESKONTUA zoru pelbikoaren azterketan</p> <p><b>%10</b> DESKONTUA 10 saioko bonoetan</p> <p>Santiago 14, 3B   ELIZONDO T. 636 58 30 34</p>	<p><b>%10</b> DESKONTUA kartan, 30€tik gora txartela duenari</p> <p>Karrikaundi, z/g   ELBETE T. 948 58 15 19</p>	<p><b>%5</b> DESKONTUA neguko denboraldian 10 eguneko abonon</p> <p>Giltxaurdi, 38   ELIZONDO T. 948 45 23 01</p>
<p><b>%10</b> DESKONTUA liburu eta likas materialetan. Testu liburuak eta DVDak izan ezik</p> <p>Jaime Urrutia, 43   ELIZONDO T. 948 58 09 02</p>	<p><b>ESKAINITZA</b> Betaurreko graduatu pare bat erosterakoan, graduazio bereko bertze pare bat doan</p> <p>Santiago, 86   ELIZONDO T. 948 58 13 91</p>	



Eredu jasangarriaren aldeko apustua egin nahi dute. UTZITAKOIA

## «Bizikleta oinarri duen mugikortasun eredua sustatu nahi dugu»

**GORKA LAURNAGA PEÑA** IZTERPEKO MATXINADAREN ANTOLATZAILEETAKO BAT

Mugikortasun eredua aldatzeko helburuz, hilabetero, Izterpeko Matxinada eginen dute Baztanen. Hurrengo hitzordua uztailaren 17an izanen dute

### **N. BAZTERRIKA** ELIZONDO

Motorrak itzali eta hankak astinduz, «mugikortasun ereduaren eragiteko» Izterpeko Matxinada abiatu du baztandar talde batek. Tartean da Gorka Laurnaga elizondoarra eta kontatu digunez, hilabetero bilduz eta hausnartuz «bizikletaren erabilera» bulkatzea dute helburu: «autoak utzi eta herrian ibiltzeko eta herri batetik bertze- ra joateko bitarteko nagusia bizikleta izatea nahi dugu eta horretarako gazteei eredu hau zilegi dela erakutsi nahi diegu». **Nola sortu zen egitasmo hau martxan paratzeko ideia?**

Alde batetik, hemengo mugikortasun ereduaren eta munduan gertatzen ari diren in-

gurumen aldaketa eta krisi ekologikoaren arteko kezkatik sortu da. Eta bertze aldetik, alderdi praktikoagoari begira, bertze hiri batzuetan gertatzen diren mugimendu sozialekin bat eginez, hiri eta gizarte mugikortasun eredua aldatzeko bildu gara. Mugikortasun eredu hori, hitz gutitan, autoak eta garraiobide indibiduala utzi eta bizikleta erabiltzera pasatzean datza.

**«AUTO PRIBATUA EKOLOGISMOAREN KONTRAKO IKUR SENDOENA DA»**

**Autoak utzi eta bizikletak hartu. Hori da zabaldu nahi duzun mezua... Zergatik da garrantzitsua aldaketa hori?**

Auto pribatua hartzen dugun bakoitzean Lurra ez ezik, herriarrak hiltzen ari garelako. Ez dugu atzendu behar gaur egun errefuxiatu klimatikoak gerren ondorioak sufritzen dituztenak baino gehiago direla. Autoa hartzen dugun bakoitzean horrekin bat egiten

**«HIRIETAN OHIKOA DA HIRIA ALDERIK ALDE BIZIKLETAN ZEHARKATZEA»**

ari gara, egungo eta etorkizuneko jendea hiltzen ari gara. Autoa gizarte jasangaitz honen ikur gisa ulertu behar dugu, pizten dugun bakoitzean planeta itotzen duelako. Ekologismoaren kontrako ikur sendoena da, krisi klimatikoaren eragile nagusia. Egiten den auto bakoitza ekologismoaren ikuspuntutik porrota da. Ibilgailu elektrikoa kutsadura isila da eta ez da alternatiba egokia.

**Izterpeko Matxinada izena paratu diozue. Izen berezia, eta deigarria...**

Zugarramurdin eta Urdazubin bizikletari izterpeko matxina erraten diete, Iparraldeko hitza izanen dela pentsatzen dut. Hortik, hitz-joko hori baliatuz, Izterpeko Matxinada, bizikletaren matxinada, erabili dugu. Horrez gain, bertze zentzu bat ere izan dezake, jendea xaxatzeko eta atentzioa deitzeko...

**Nor dago matxinada horren gibeletik?**

Ez dut uste talde zehatz bat dagoela erran daitekeenik. Modu indibidualean mugitu den jendea dago, baina mugimendu bat aipatzekotan Energia ona taldea erranen nuke. Hemen, Baztan mailan, biltzen garen pertsona gutti batzuk gara, energia trantsizioa eta ekologismoarekin zerikusia duten gaiez solas egiteko. **Beraz, lehendik ere biltzen zen talde baten bilkuretan eman ziren lehendabiziko pausoak?**

Bai, horixe da. Gisa horretako ekitaldiak lehenago ere eginak dira, koronabirusaren aitzinetik hasia zen. Talde honek ekologismoarekin lotutako kezka Baztan mailan hedatzen ditu: hitzaldiak ekarriz, proposamenak eginez...

**Baztandarrek zer jarrera dute mugikortasun arazo honekiko?**

Baztango egoera ez da sobera larria, inguru honetako kezka mailan gaudela erranen nuke. Bertze herrialde batzuekin konparatuz, adibidez, Alemaniarekin, Holandarekin eta Europa iparraldeko bertze

herrialdeekin, han bai sumatzen da gai horiekiko kezka nabarmenagoa dela. Proposamen serioagoak egiten dira. Euskal Herrian eta Baztanen bereziki ez dago kezkarik. Kezkarik ez egotea nahiko kezkarria da. Baztan halako udalerrri handia izanik, mugikortasunarekin berezitasuna du. 15 herri izatea ez da herri bat izatea bezala, bata bertzetik nahiko urrun daude eta hor erronka inportantea dugu mugikortasun aldetik. Lizarran bizikletaz mugitzea eta Baztanen egitea ez da gauza bera. Baztanen oraindik erregai fosilak erabiltzen dituzten garraiobideak eta kultura barneratuagoa dugu. Mendi ingurua delako, bere orografia-rengatik edo dena delakoarengatik motorren inguruko kultura dago: auto onak edukitzea, kotxeak prestatzea, rallyak, mendira joatea eta mendiko motorrak prestatzea... Eta hori gazteen artean erreferentziatzeko zerbait izaten ari da. Gazte andana ikusten da motorren munduan, erakargarri egiten zaie... Hori da haien aisialdi mota eta ez da jasangarria.

#### **Garraio publikorik ez egoteak ere indibidualismo hori dakar...**

Ez dago bitartekorik, baina saiakerak bai egon dira. Bertan Baztangoek saiakera egin zuten Bertan Busarekin eta Udalletik ere BlaBlaCar moduko egitasmoak paratzen saiatu izan dira. Ez bata ez bertzeak ez dute arrakastarik izan. Arazo hori ikusita, kezka horrekin, hasi dugu hau.

#### **Hilabetero biltzeko asmoa adierazi duzue. Data finkoa izanendu? Zein da aurreikusitako plangintza?**

Gure intenzioa hasiera batean hilabetero hirugarren ortzira-lean egitea zen. Ekainean hasi ginen eta 26an Baztango Gaztetxean Ernaik antolatutako ekimen batzuk zeudenez, asteazkenera pasatzea erabaki genuen. Baina gutti goitibeheiti data mantentzea da intenzioa, hau da, ahal bada,



Mugikortasun ereduari buruzko «kezkarik ez egotea kezkarria» dela uste dute.

hilabetero hirugarren ortzira-lean egin nahi dugu.

#### **Lehendabizikoa Elizondotik abiatu zen... Ondokoak ere hala izanen dira? Edo abiapuntua aldakorra izanen da?**

Segur aski ere abiapuntua aldakorra izanen da. Gure intenzioa bertze herrietara ere mugitzea da. Herri guztiek behar duten hausnarketa eta aldaketa kulturala da. Bizikleta marxa hau egiteko moduak aldatzea ere pentsatu dugu: egunen batean mozzoratua egitea, ikuskizunen bat ekartzeta...

#### **Helburua, beraz, hilabetean behin bildu eta hausnartuz, mugikortasun ohiturak urte osorako aldatzea izanen litzateke, ezta?**

Dudarik gabe, bizikleta hartzea ohiko garraiobidetzat. Horrekin batera zer den posible ere hausnartu beharko genuke. 'Posible den kasuetan bizikleta erabili' erraten dugu eta posibilitatea gure erosotasunaren arabera mugatzen dugu. Herri barnean eta artean ere aldatzen ahal da mugikortasun eredu. Hirietan egiten den bezala, posible da Erratzutik Elizondorat, Iruritatik Elizondorat... bizikletan mugitu. Hirietan ez da ezohikoa 20 edo 30 minutu bizikletan edo garraio publikoan pasatzea.

Nerabegarotik gaztarora aldaketa gertatzen da, bizikleta utzi eta autoak erabiltzera pasatzen gara eta hori aldatu nahi dugu, gazteek bizikleta eredugarritzat ikus dezaten.

#### **Ekainaren 24an egin zenuten Izterpeko Matxinada lehendabizikoz. Zein izan zen egin zenuten buelta?**

Elizondoko plazatik abiatu eta Jaime Urrutian, Mendinueta, Erlategin, Baztan Berrin, Mendinueta, Santiagon, Datuen,

Frantzisko Joaquin Iriarten, Giltxaurdin, Xalbadoren, Abartan, Braulio Iriarten eta Axularren barna plazara bueltatu ginen.

#### **Baztandarrei begira eginak dira edo edozeinek parte har dezake?**

Edozeinek parte har dezake, gizarte osoari eragiten diolako eta guztiak ongietorriak dira. Gure intenzioa Baztango mugikortasunean eragitea eta aldaketa kulturala gertatzea da.

## MARMOLES SOULE

www.marmolessoule.com

LAPIDAK  
PANTEONAK  
KANPOSANTUAK  
HARRI LANAK  
ESKULTURAK

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ  
T. 948 452 143 · 948 452 449  
info@harrilan.com www.harrilan.com

**HARRI LAN, S.L.**  
ESTABLECIMIENTO

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN  
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE

# Aroztegiko golf belaia egiteko obra baimena eman behar izan dute

Baimen hori «araututako ekintza administratiboa» dela argitu eta Aroztegiko afera «ez dela akitu» gaineratu dute

## TTIPI-TTAPA

Ekainaren 24an Baztango Udaleko Tokiko Gobernu Batzordeak Aroztegiko golf belaia egiteko obra baimena eman behar izan zuen. Tokiko Gobernu Batzordea EH Bilduk eta Ezkerrak osatzen dute. Gauzak argitze aldera, Baztango EH Bilduk jakinarazi nahi izan du «obra baimena araututako ekintza administratiboa dela». Hortaz, proiektuak hirigintzako arauak betetzen baditu, obra baimenik ez zaio ukatzen ahal: «hori da oraingoan gertatutakoa».

Aroztegiako proiektua udalez gaindikoa den Plan Sektorial bezala tramitatzean, «proiektua aitzinarazteko egiturazko aldaketa urbanistikoak Nafarroako Gobernuak onartu ditu, Baztango Udalaren eskumenen gainetik». Hori horrela, obra baimenaren eskaerak etortzen direlarik, «baimena ematea bertze aukerarik ez du udalak». Ikusitakoak ikusita, «Geroa Bai eta UPN buru izan duten Nafarroako Gobernuak honetan guztian izan duten ardura nabarmendu» nahi dute: «beraiek izan baitira eta dira Baztanen-

dako kaltegarria den proiektu honen erantzule politikoa nagusiak». Proiektu honek «burbuila inmobiliarioaren aldia» oroitzen du, «lagunen neurri lurren birkalifikazioak egiten zireneko aldia... herritarren beharrekin deus ikustekorik ez duen garapen eredu da, krisi ekonomiko batetik bertzerat eramaten gaituena».

Baldintza hauetan Baztango EH Bilduk «pelotazo urbanistiko» honen aurkakoa dela bertze behin erran nahi du. Proiektu hau «228 unifamiliar, luxuzko hotela eta golf belaia egiteko lurren birkalifikazioa bertzerik ez da, lurren balio aldaketan oinarritzen dena».

Hori guztia lekaroztarren eta baztandarren kontrako iritzia- ren gainetik, herri galdeketek erakusten duten bezala. Eta Baztango Udaleko eta Batzar Nagusiko gehingoaren kontrako iritzia- ren gainetik ere bai. Aroztegiko afera ez dela akitu adierazi dute: «hotelaren baimenaren balio gabetzea auzitegietan dago, baita urbanizazio lanen esleipena ere, ermitaren jabetzaren gaia...».



Joseba Otondo eta Arras Baztan elkarteko Maite Redondo, Loraldia aurkezpenean.

## Balkoiak eta leihoak lorez apaintzera animatu ditu Loraldia ekimenak

### TTIPI-TTAPA

Arras Baztan fundazioak Loraldia izeneko ekimena aurkeztu zuen Elizondon ekainaren 29an, joan den astelehen goizean. Sariketa honen bidez herritarren parte-hartzearekin herrietan bizi giro ederragoa sortu nahi dute, horretarako balkoiak eta leihoak lorez apaintzera animatuz.

Fundazioko kideek erran zuten, Baztango ingurumen kalitatea eta irudia hobetu nahi dute, egunerokoa gozagarriago izateko. Eginkizun horretan landareek eta loreek bizitzeko herri eder eta atsegina- goak egitera laguntzen dutela aipatu zuten.

### Izen-ematea

Sariketan parte hartu nahi duten herritarrek uztailaren 1etik 15era izena eman behar- ko dute [baztan@arrasbaztan](mailto:baztan@arrasbaztan).

eus helbidera idatzita edo 948 58 00 06 telefonora deituta. Sarien ematea berriz abuztuaren 1ean, lehenbiziko larunbatean, eginen da eta guztira maila bereko zortzi sari emanen dituzte.

Aurkezpenean, Joseba Otondo alkatea eta Arras Baztan Fundazioko Maite Redondo patronatukideak erran zuten ez jakitun dira aldi gogorra bizitzaren ari garela eta jendeen artean etsipena dagoela.

Azkerietan ibili gabe uste dute horrelako ekimenek herritari buruzko atxekimendua indartzen laguntzen dutela eta, horregatik, lagungarria izaten ahal dela oraingo aldi honetan partaidetza sentimendua indartzeko eta jendeen arteko harremanak indartzeko.

Lehiaketaren oinarriak <https://arrasbaztan.es/loraldia/> webgunean daude.

**BRIKO**  
LIMPIEZA, SL

MOTA GUZTIETAKO  
GARBIKETAK:  
etxeak  
landetxeak  
lokalak  
komertzioak  
enpresak  
...

**konfidantzazko zerbitzua**

T. 608 016 052  
San Andres, 66 · NARBARTE  
(Sarrera Legasatik)

**asegi asesorías**

Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuaren Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortzenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

[www.zergalan.es](http://www.zergalan.es) | [zergalan@asegi.es](mailto:zergalan@asegi.es)  
[www.asegi.com](http://www.asegi.com)

Baztanberri plaza, 6      Eztegarra pasealekua, 22-1      Eliza Kalea, 22  
31700 ELIZONDO      31780 BERA      31740 DONEZTEBE  
T. 948 581 300 · F. 948 580 648      T. 948 631 108      T. 948 450 395 · F. 948 451 304





Adano elkartea lagundu dute, enpresa simulatuaren bidez lortutakoa emanaz.

## Lanbide eskolako ikasleek Adano elkarteari 600 euro eman dizkiote

### TTIPI-TTAPA

Elizondoko lanbide eskolako Oinarrizko Lanbide Heziketako bigarren mailako ikasleek, proiektu solidarioen metodologia aintzat hartuta, Perrope SL enpresa simulatua sortu zuten eta aroztegi metalikoa izan dute lanbide: Aritzakungo udal zubiaren baranda

eraiki, Tasubinsarekin elkarlanean udaleko zaborra ontziendako euskarriak, itxiturak, atakak... egin dituzte. Ikasleek eta irakasleek egindako esfortzuari esker, Perropek 600 euro inguruko irabaziak izan ditu eta minbizia duten haurrak eta senideak biltzen dituen Adano elkarteari eman dio.




UTZITAKOAK

## Udako solstizioa ospatu dute Anizen

Aurten ere udako solstizioa ospatu dute Anizen. San Joan bezperan lauzpabortz su piztu zituzten eta, bildutako material guztia erre artio, hortxe aritu ziren haur, gazte eta heldu harat-honat saltoka. Ondotik xingarra eta txistorra jateko aukera izan zuten.

# ALMACO BAZTAN

# GRUP GANTIA



*udako  
gauza berriak ditugu,  
zure estilora  
egokitzen gara!*



## T. 948 580 104

Errepide nagusia 93, Elizondo  
[www.almacobaztan.com](http://www.almacobaztan.com)



Urteko inbertsio koskorrena egin du Baztango Udalak. ARTXIBOA

## Azpilkueta eta Zuaztoiko saneamendua akitua

Ur zikinak tratatzeko hustubidearen eta arazketa deposituaren proiektuak onartu ditu udalak

### TTIPI-TTAPA

Aurtengo inbertsio koskorrena akitu du Baztango Udalak, Azpilkueta eta Zuaztoiko saneamendu eta zolaberritze lanak, hain zuzen.

Azpilkuetako ur hornidura eta saneamendu, zolatzetan eta zerbitzuen lurperatzeak 267.998,90 euroko kostua izan

du. Lanak Mariezkurrena eraikuntza enpresak egin ditu eta obren idazketa eta zuzendaritza, berriz, LKS ingenierraren esku egon da.

**498.458 euro inbertitu dituzte** Horrez gain, Azpilkuetako Zuaztoi auzoan ere ur hornidura eta saneamendu, zolake-

ta lanak eta zerbitzuen lurperatzeak egin dituzte. Egindako inbertsioa 498.458,59 eurokoa izan da. Kasu honetan erelanak Mariezkurrena eraikuntza enpresak egin ditu eta obraren idazketa eta zuzendaritza LKSk. Aipatutako lanek Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza izan dute, Tokiko Inbertsio Planetik %70a hartuz.

Beti ere, Azpilkuetako eta Zuaztoiko saneamendu lanak eginda, ur zikinak tratatzeko hustubidearen eta arazketa deposituaren proiektuak onartu ditu Baztango Udalak.

Azpilkuetakoak 97.683,10 euroko aurrekontua du eta Zuaztoikoak 117.227,66 eurokoa. Proiektua NILSAk kudeatuko du eta %100ean finantziatuko du.

Modu berean, Zigaurreko saneamendu lanak egin ondok auzoko ur zikinak Oharrizko araztegiarekin lotzeko proiektua ere onartu du udalak. 172.775,48 euroko aurrekontua du eta Nilsak %100ean finantziatuko du.

Horrekin batera, Baztango Udalak saneamendu kanona kobratzeko garrantzia oroitarazi nahi die herriei; horri esker aipatutako lanak egiten ahal baitira.

## Sasiak mozteko makina erosi du Udalak

Baserrietarat doazen bideak garbitu ahal izateko Baztango Udalak traktorean paratzen den sasiak mozteko besoa erosi du. Tresnak 25.400 euroko kostua izan du, BEZ kanpo eta prozedura irekian egindako lizitazioan Sansiñenak egindako eskaintza izan da aurkeztutako enbriatuen artean hobereana.

Koronabirusa dela eta, sasiak mozteko makinaren eta langilearen kontratazioa gibeletan bazen ere, ekainaren 25etik zerbitzua abian da. Aurten mozketa lanak Aritzakundik hasi dira, ondok Amaiurrerat joan da eta, horrela, ondoko sei hilabeteetan Baztango herri guztiak ibili artio. Bideetako sasiak mozteko zerbitzua jendea bizi den baserrietarako bakarrik izanen da.



MAITANE MARITORENA

## Jauregia esneki-lantegia bisitatu dute aniztarrek

Covid-19aren eraginez martxoaz geroztik bisita gidaturik ezin izan dute egin Anizko Jauregia Esnekiak-ekoek. Normaltasun Berria deritzon fase honetan bisitak egoera berrirat moldatu behar izan dituzte, eta kanpotarrek hasi aitzinetik, herritarrek egin zuten lehenbiziko saiakera ekainean.

# Igerilekuak irekita edukiera mugarekin eta neurri zorrotzekin

Erratzuko kanpineko igerilekua bertako bezeroentzat bakarrik ireki dute eta Elizondokoan edukiera %50era mugatu dute

## N. BAZTERRIKA

Sasoi honetan, lagun talde aunitzen bilgune izan ohi dira igerilekuak, zuhaizpeko solasaldiez gozatzeko eta uretan murgiltzeko aukera ezinhoba eskaintzen baitute.

Aurten, eskualdean, Lesaka eta Berakoarekin batera, Baz-

tango Giltxaurdi udal kiroldegikoak eta Erratzuko kanpinekoa dira ireki dituzten bakarrak; eta horiek ere, ez dute ohiko irekiera izan, edukiera mugatuta ari dira lanean, segurtasun neurriak zorrotz betez.

Erratzuko kanpinean sorosle ari den Lorea Lizarretak eta



Protokolo zehatzekin ari dira lanean igerilekuetako langileak.

Elizondoko Giltxaurdi kirol instalazioetako igerilekuko Ane Dendarietak lan handia izanen dute aurten, baina horretarako «prest» daude. Sorosle lanak egiteaz gain, erabiltzaileek

arauak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute.

Eurek ez ezik, erabiltzaileek ere neurriak betetzeak instalazioei ematen dien segurtasunaz solastatu dira.

## «Bisitari aunitzekin egonen naiz udan eta neurriak zorrotz bete beharko ditut»

### LOREA LIZARRETA INTSAUSTI

Erratzuko kanpineko igerilekura joateko joera duenak ezaguna izanen du Lorea Lizarreta Intxausti (Erratzu, 1999). Izan ere, «ekain erdialdetik irail hasierara bitarte egunero eta irailean eguraldi ona dagoen asteburuetan» bertan izaten da erratzuar soroslea. Aurten laugarren uda du bertan lanean eta «ardura handiko» lana den arren, gustura dabil.

Aurtengo denboraldia «ekainaren 20an» hasi dute: «azken momentuan hartu zen erabakia». Ohiko datan, ezohiko neurriekin ireki dituzte ateak: «%30eko edukierarekin hasi ginen, 30 lagunekin eta %75era pasatu gara». Aforo hori bera mantenduko dute igerileku osoan: «belardian gehiago sar zitekeen arren, kanpinak urean eta kanpoan hori bera mantentzea erabaki du». Eta hori bermatzeko «erabiltzaileek hitzordua hartu beharko dute. Txandak ordu batekoak izanen dira, baina aforoa betetzen ez den kasuetan jendea egun osoz egon ahal izanen da».



Lorea Lizarreta.

Aitzineko urteetan, denboraldi altuko egunetan izan ezik, kanpoko jendea joan zitekeen, sarrera erosita. Egoera bertzelakoa da aurten: «kanpinekoendako bakarrik izanen da».

Jende gutiago izanen duten arren, lan gehiago dute sorosleek aurten: «polizia lana ere tokatzen zaigu, sartzeko eta ateratzeko ibilbideak errespetatzen direla, eskuak garbitzen dituztela, distantziak mantentzen direla... egiaztatzea».

Ea denen artean soroslearen lana errazteko gauza garen!


## «Etxean igerilekua paratu duten gurasoei kasu emateko erran nahiko nieke»

### ANE DENDARIETA BARDOT

Dozena bat urte daramatza sorosle lanetan Ane Dendarietak (Elizondo, 1986). «Gustuko» du lana, «haur eta gazteez inguratuta» dagoelako. «Gogotsu» hasi du udako denboraldia, «irailaren 15era arte» luzatuko dena: «azken hilabeteetan prestatuntza lanetan ibili gara, irekitzeko baimena ematean Giltxaurdi prest izateko».

Edukiera %50era murriztuta hasi dute denboraldia eta erabiltzaileek «gimnasia edo igeri egitera etortzeko erreserba egin beharko dute». Bainuak hartzeko aitzinetik deitu beharrik ez dute izanen «baina gehienez 15 minutukoak izanen dira. Erabiltzaileak nahi adina alditan sartu ahal izanen dira».

Nafarroako Gobernuak emandako jarraibideak bermatzeko, belardian «partzelak eta bakoitzean sar daitekeen jende kopurua zehaztu, higiene guneak gehitu, distantziak mantendu, garbiketa eta desinfekzioa areagotu...» dituzte, «instalazioa leku segurua izan dadin».



Ane Dendarieta.

Hasierako egunetan «jende aunitzik izan ez» duten arren, «poliki-poliki animatuko direla» espero du Dendarietak: «egoera triste da gureta eta betiko bezero eta haurren falta dut». Hortaz, igerilekura animatu ditu: «denok gure aldetik jarritz, uda goxoa pasa dezakegu elkarrekin».

Eta etxean gelditzea erabakitzen duten gurasoei tentuz ibiltzeko deia egin die: «ur guti aski da haur bat itotzeko, ez fidatu, kasu ematea eta begirale lana egitea tokatzen zaizue».



Agroekologiaren Aldeko Hirien Sareak antolatutako mintegian parte hartu zuen Otondok Kataluinian. ARTXIBOA

## Udalak agroekologia topaketan parte hartuko du

Urriaren 1ean, 2an eta 3an izanen den topaketan parte hartuko du Udalak, estatuko eta Europako batzordekoekin

### TTIPI-TTAPA

Agroekologiaren Aldeko Hirien Sareak urtero egiten duen topaketa Valladoliden urriaren 1, 2 eta 3an, ortzegunetik larunbatera bitarte, egingen duela iragarri du. Osasun arrazoiengatik topaketa aurrez aurre egiterik ez bada on-line izanen litzatekela ere argitu dute.

**Elikadura osasuntsuz ariko dira**  
*Arrisku globalen aitzinean tokiko elikadura sistemakizanen da aurtengoaren izenburua. Esperientziak elkar trukatzeke beharrezko bilgunea*

izanen da, bereziki, osasun krisi aldi honetan nabarmendu denez, elikadura onak osasun prebentziorako estrategia gisa duen garrantziarengatik eta dakarren eredu ekonomikoarengatik.

Horiek denak lehenasunez kontuan hartzeko gaiak bihurtu dira gaur egun.

### TOPAKETAN TOKIKO ELIKADURA SISTEMAK IZANEN DITUZTE HIZPIDE

### Parte-hartzaileak

Topaketan Sarea osatzen duten udaletako ordezkariak parte hartuko dute, eta horien artean, Baztago Udaleko ordezkariak ere izanen dira.

Gisa berean, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako ministeriokoek eta Europako Batzordeko Osasun eta Elikadura Segurtasuneko Zuzendaritza Nagusikoek ere egunotako bilkuretan parte hartuko dute.

### Nekazaritza ekoizpen iraunkorrek bultzatzea helburu

Sarea hogeit hamar udal inguruk eta Erakunde Sozialen Kontseiluak osatzen dute eta bere helburua da bultzatzea nekazaritza ekoizpen iraunkorrek, familiako nekazaritza, ekologikoa, elikagaien elaborazio artisaua, eta abelzaintza iraunkorra.

Hori guztia funtsezkoa da osasungarria, prezioz eskurgarria eta ingurumena zainduko duen elikadura bideragarria izateko.



WWW.REALSOCIEDAD.EUS

## Realean debuta egin du Jon Pachecok

Jon Pacheco Dozagarat elizondorak debuta egin zuen ekainaren 29an Espainiako futbol ligan Donostiako Realaren talde nagusiarekin. Donostiarrek 2-1 galdu zuten Getaferen kontra, baina 19 urte bertzerik ez dituen Jon Pachecok (Elizondo, 2001) hasiera-hasieratik jokatu zuen partida. 2013an ailegatu zen Pacheco Realara Baztandik, infantil txiki kategorian jokatzera eta orain, talde nagusian egin du debuta.



UTZITAKOA

## Landa ingurune biziaren aldeko aldarria

Ekainaren 25ean Elizondoko plazan egindako elkarretaratzean 60 pertsona bertaratu ziren landa-ingurune bizi eskatzeko egindako deialdira. Euri zaparradak tarteko, gorapea izan zuten bilgune. Orain Arduraz, Aroztégia ta gero zer? eta Erdiz bizirik! taldeek antolatu zuten elkarretaratzea.

# URDAZUBI

## Ludoteka eta jarduera kanpusa udan herrian

Ttikienek Landa haurtzaindegiaren eskutik izanen dituzte ekintzak eta gaztetxoek Sportmadness-en eskutik

### ARANTXA ETA IRAIA

Uda honetan Urdazubi eta inguruko haur eta gazteek gozatzeko, jostatzeko eta dibertitzeko aukera izanen dute herrian. Landa haurtzaindegiaren eskutik 3-7 urte bitarteko haurtzaindegiaren eskutik 8-16 urte bitarteko gaztetxoentzat multi-jarduera kanpusa.

Uda honetan Urdazubi eta inguruko haur eta gazteek gozatzeko, jostatzeko eta dibertitzeko aukera izanen dute herrian. Landa haurtzaindegiaren eskutik 3-7 urte bitarteko haurtzaindegiaren eskutik 8-16 urte bitarteko gaztetxoentzat multi-jarduera kanpusa.

Azken horretan, uztailaren 13tik 24rat, mendi irteerak, *escape room*, tailerrak eta bertze hainbat kirol eta jardueretan parte hartzeko aukera izanen da.

### Herriko negozioak normaltasunera bueltan

Ekainaren 21ean ireki zituzten mugak. Segurtasun neurriak betez, mugaz bertze aldetik hainbat jende etorri zen Dantxarinera erosketak egitera, tabakoa erosi eta gasolidegitik pasatzera. Normaltasunera itzultzeko bidean dira berriz ere herriko negozio guztiak.

### Uztailaren 18an ospatuko dute Lezeen Eguna

Koronabirusak eragindako egoera dela eta Lezeen Eguna atzeratu egin behar izan zen. Uztailaren 18an ospatuko dela iragarri dute. Aitzineko urteetan bezala, lezeen inguruan hainbat ekitaldi izanen dira, beti ere segurtasun neurriak mantenduz.



ARANTXA ETA IRAIA

### Jubiloteakako ibilbideaz gogoeta

Bortz urte bete dira Harremana jubilotekek ateak ireki zituenetik. Egin duen lanaz gogoeta egiteko eta etorkizuneko helburuez mintzatzeko jubilotekako arduradunak, Zugarramurdi eta Urdazubiko alkate eta zinegotziek eta Cederna Garalurreko eta Gizarte Zerbitzuetako ordezkariak bilera bat egin zuten ekainaren 26an.

# ZUGARRAMURDI

## Mendibilko kaskotik presoak etxerat hurbiltzeko eskatu dute herritarrek

### MARIFA ETA KORO

Euskal Herri mailan deialdi bat egin zen ekainaren 20rako, Gaez mendi tontorrek sutan lelopean, euskal presoak etxerat hurbiltzeko eskatuz. Gurean Mendibilko kaskoan egin zen, eta hantxe elkartu zen talde txiki bat.



### San Joan bezpera bakoitzak bere txokoan ospatu du

Aurten ezin izan dira behar den bezala egin San Joan bezperako ospakizunak. Hala ere, Zugarramurdi bakoitzak bere txoko eta manerak atzeman ditu. Argazkikoa Iparreko bordako sua da.



Ezohiko egoeran, ezohiko suak.

### Ainarako bidea garbitu dute auzolanean

Atxuria mendi taldeak deiturik, Ainarako bidea garbitu zuten ekainaren 28an, hondarreko igandean. Zenbait toki larra eta otez itoak ziren eta zuhaitz erori batek ere bidea trabatua zuen.



Larrak eta oteak moztu dituzte.



MARIFA ETA KORO

### Kilimak maketa lehiaketako finalean

Ekainaren 25ean EITBko Maketa Lehiaketako finalean parte hartu zuen Kilimak taldeak. Donostiako Victoria Eugenia antzokian izan ziren lau finalistak eta irabazterik izan ez zuten arren, «arras kontent» gelditu zirela aipatu digu taldeko Ione Zozia zugamurdiarrak.

## Dominique Idiart izanen da auzapeza ondoko sei urteetan

Orain arteko auzapezaren zerrendari 51,30%-48,69% nagusitu zaio Elgarrekin Senpererentzat izenekoa

### PIERRE BASTRES

Sei urtetarik behin iragaiten dira herrien bozak, eta preskeski udaberri honetan beren auzapeza behar zuten hautatu senpenterrek. Lehen itzulia martxoaren 15ean egina zuten: Nousbaum, oraingo Auzapeza, doi-doi lehena atera zen (42,01%), Idiart bigarrena (41,27%), Jeff Bedereden Abertzaleak hirugarren tokian egon zirelarik (16,70%). Bigarren itzulia Covid-19agatik, erairoaren 28rat gibelatzea erabaki zuten, martxoaren 22an orde. Epe hartan, adosmena aurkitu zuten Idiart eta Bederedek, bi zerrendetarik bakar bat egitea: zerrenda berri hartan, bortz abertzalerekin.

Emaitzeri begira, arrakastatsua izan da erabakia: gehien-go osatuko dute Idiarten zerrendako 22 hautetsik Pierre-Marie Nousbaumen aldeko 7 guttiengoan izanen direlarik.

Izan ere, Idiartek adierazi duen bezala, «Bai, abertzalee-

kin elgarrekilako balore zombait baditugu, bat egiten dugu langai eta aipagai batzuetaz. Baikorra izan da gure hitzarmena. Baldintza arras bitxietan iragan baldin badira ere hauteskunde horiek, Covid-agatik, senpenterrek hautatu gaituzte. Orain lanari behar diogu lotu, elgarrekin. Antolakuntzari dagokionez, dena finkatua dugu. Orain aitzina senpenterren alde!».

### «Batasunean lan egiteko gai garela erakutsi behar dugu»

Amaia Gobet eta Franck Doratcague, abertzale zerrendakoak, lehen aldikotz hautatuak izan dira. Amaiak, Herriko eskola elebidunako errietsa, bere sentimenak aitortzen ditu: «Lehenik poza, alabainan! Ongi eta batasunean lan egiteko gai garela erakutsi behar dugu orain. Lan berri bat da, ikasi beharrekoa, nahiz eta aspaldiz geroztik militantea naizen (Sortu). Gainerat Herri Elkargoan kontseilari izanen



Dominique Idiart auzapez berria eta bertze hiru hautetsi. PIERRE BASTRES

naiz. Beraz beldur poxi bat ere, bainan badakit lagungoa izanen dudala, zerrendakoen aldetik zein Herri Elkargoko bertze abertzaleenganik, sekulan baino emaitza ederrak bildu dituzte abertzale kideek. Herritarrer lan ona zor diegu».

Franck laboraria da Urguri auzoan, xahalak gizentzen ditu hain zuzen. Hari ere, mota ainitzetako ihardokipenak sortzen zaizkio, «batez ere bi: harrotasuna eta apaltasuna: elgarlan baten ondotik hautatu gaituzte herritarrek, bainan arras tinki gan da bozkaldia. Honenbertzez, senpenterren galdera ainitzeri beharko diegu ihardetsi oraindik goiti. Erne eta umil egon gaitezela! Laborari gisan, bereizketarik ez izatea nahi nuke laborarantza moten artean. Baldintza gogorretan bizi gara jadanik, elgarretartzeko garaia da.

## SENPERE

ELGARREKIN

**Dominique IDIART**

2. ITZULIA



	2014	2020
Zentsoa	4.501	<b>5.113</b>
Parte-hartzea	3.295	<b>3.320</b>
<b>Elgarrekin</b>	<b>6</b> 1.455	<b>22</b> 1.674
<b>Senp.Ekin</b>	<b>22</b> 1.542	<b>7</b> 1.589
<b>Senpere Bai</b>	<b>1</b> 409	474*
Baliogabeak	35	<b>38</b>
Zuriak	40	<b>19</b>

\* 1. itzuliko bozak

Laborantza osasuntsu eta bizkor behar dugu Senperen, baldintza onak atzeman behar dituzte nekazari gazteek, ahal bezainbat etxalde biziartzeko».

Euskal Hirigune Elkargoan, berriz, Dominique Idiart (Elgarrekin), Amaia Gobet (Senpere Bai) eta Pierre-Marie Nousbaum (Senperentzat Ekin) izanen dira ordezkari.

## Jour de Fête taldeak 'Bidea' antzezlana eskainiko du ortziralearan Larraldean

### PIERRE BASTRES

Azken zenbakian aipatu bezala, astebete iragan zuen Larraldean Baionako Jour de Fête (Besta Eguna) antzerki taldeak erakustaldi bat ontzen. Horren emaitza, *Bidea* antzezlana, uztailaren 10ean, ortziralearan, 19:30ean eskainiko du Larraldean. Sarrera 10 euro gostako da eta antzezlana burutzerakoan, zintzur-bustitzea

hartzera ere gonbidatu dute, «bi solas egiteko bertze behatzaile eta arizaleekin, adiskideki».

Familia baten istorioa erakutsiko daukute sei hitz-ekartzaille, musika-egile eta istorio xumeen oroitzaille diren arizaleak, «gure gogorat emaneko doi bat oroitzen garen argazki eta potreetan agertzen ez diren jendeak».



'Bidea' antzezlana ondu du antzerki taldeak Larraldean. UZTITAKOIA

## Segurtasun neurriekin baina merkatua plazan

Segurtasun tartearen errespetatzearekin batera, sarrera eta irteera bat egokitu dituzte

### TTIPI-TTAPAI

Segurtasun neurriak hartuta, ekoizleen merkatuak aitzine- ra segitzen du. Osasun egoeraren kariatara, apirilean has- tekoa zena maiatzera gibelatu behar izan zuten, baina prefek- tak argi berdea eman eta Herriko Etxearen baimena jaso orduko, ohiko martxara buel- tatu ziren.

Ortzegun guziz 09:00etatik 13:00etara biltzen dira. Joana Urbistondo Sarako Merkatua elkarteko kideren hitzetan, «hamar bat ekoizle, eramate- ko janaria prestatzen duena,

talogilea eta bertako sei esku- langile biltzen gara». Egoerak hala behartuta, «postuen eta bezeroen artean segurtasun tartearen errespetatzen» dute eta «merkatuak sarrera eta irteera ditu eta ezin da gibelatzen egin».

Aitortu digu, «itxialdi garaian, barazkigileei eskaera handitu zaiela eta etxetik saltzeko edo banaketak egiteko moldatu» direla. Baina aldi berean, «osta- tuak, jatetxeak eta eskoletako jangelak itxiak zirenez, salmen- ta guttiti da». Halere, kontent dago «herritar eta turistak pix- kanaka etortzen hasi direlako».



JOANES GARTZIA

## Presoen aldeko hitzordua Zualmendingin

*Mendi tontorrek sutan* lelopean, presoak etxeratzeko eskatuz, Ipar Euskal Herriko zazpi kaskotan sua piztu zuten ekainaren 20an. Saran jende andana bildu zen hitzorduan. 21:00etan herriko plazatik abiatu eta bertze zazpi tontoretan bezala, 23:00etan sua piztu zuten Zualmendingin.



Senpereko Larraldean bildu ziren bertsolariak txapelketaren berri izateko.

## 28 bertsolarik parte hartuko dute Xilaba txapelketan

Udazkenean egingen da: irailaren 19an hasi eta azaroaren 21ean finituko da aurtengo Xilaba

### TTIPI-TTAPA

Covid-19aren baimenarekin, irailaren 19an Hiriburun hasi eta azaroaren 21ean Doniba- ne Lohizunen finituko den hamar saioko txapelketa izanen da Xilaba 2020 Bertsulari Xapelketa. Tarte horretan, ia aste- buru guziez bertsuarekin gozatzeko parada ukanen dute bertsosozaleek.

Ekainaren 20an egin zuten bertsulariek zein saiotan kan- tatuko duten erabakitze- ko zozketa Senperen. Sekula bai- no partaide gehiago izanen dira: Aitor Servier Etxexuri, Amets Arzallus Antia, Battitt

Crouspeyre, Bittor Thicoïpe, Bixente Hirigarai, Egoitz Zelaia, Elixabet Etxandi Goienetxe, Gillen Hiribarren, Iker Altuna, Irati Alcantarilla Urdanpilleta, Johaine Sarrailet, Josu Txo- perena Iribarren, Kerman Diaz, Maddalen Arzallus Antia, Mad- di Arzallus Laskarai, Maddi Ane Txoperena Iribarren, Maindi Murua Berra, Miren Artetxe Sarasola, Mizel Mateo, Odei Barroso Gomila, Oier Urreizti, Oneka Arteaga Ola- sagasti, Ortzidoate, Patxi Iriart Hiribarren, Pettan Prebende, Ramuntxo Christy, Xan Alkat eta Xumai Murua Berra.

## Abian! kultur hitzordua herrian egingen da aurten

### TTIPI-TTAPAI

2018an Uztaritzen eta 2019an Bidaxunen egin zen bezala, aurten Saran egingen da Euskal Hirigune Elkargoaren kultur denboraldiaren hastapena markatzen duen hitzordu ibil- taria: Abian!. Buruilaren 25ean eta 26an iraganen da eta bi

egunez hainbat ikusgarri urri- rik eskainiko dituzte: dantza, zirkua, antzerkia...

Osasun egoeraren arabera «artistak zein bisitariak bal- dintzarik onenetan eta segur- tasun osoz errezibitzeko» neurriak hartuko dituztela adierazi dute antolatzaileek.



Malerreka eta Baztango pilotariak, Laxoa Elkarteko Josu Prim eta Tiburtzio Arraztoarekin. UTZITAKO ARGAZKIA

## Malerreka nagusitu zaio Baztani laxoa desafioan

Baztan-Errekako kopan hamaika taldea hasi dira eta abuztuaren 2an jokatu dute finala Arraiozen

### TTIPI-TTAPA

Baztan-Errekako laxoa desafioaren finala jokatu zen ekainaren 27an Oizko pilota plazan. Partida hasiera lehiatua izan bazen ere, azkenean Malerreka taldea (Ioritz Zelaia (Oiz), Ramontxo Etxebeste (Doneztebe), Laurendi Zelaia (Oiz) eta Doneztebeko Jokin Apezetxea) nagusitasunez gailendu zitzaion Baztangoari (Mikel Mindegia (Arraioz), Aitor Zubigarai (Arraioz) – Iñaki Etxandi (Irurita) eta Arraiozko Mikel Organbide), 9-4.

Hagitz giro ona izan zen Oizko plazan, jende anitz eta denak gelditu gabe animatzen eta txalotzen; nabari da bai pilotariak baita ikusleek ere berriz laxoa plazetan ikusteko gogo handia dutela. Partida, gainera, nahiz eta azkenean nahiko erraz alde batera joan, bikaina suertatu zen; ez zuen denboraldi hastapeneko partida bat ematen, jokaldi ikusgarriak ikusi baitziren. Egia da

partidaren lehen zatia ikusita, borroka gehiago izanen zela espero zela, baina hala ere, jokoan borroka handia izan zen, ez ordea, markagailuan (1-0, 1-1, 2-1, 2-2, 4-2, 4-3, 6-3, 6-4, 9-4). Aurtengo Baztan-Malerreka desafio hau ikusita, hurrengo urteetan seguru errepikatzeko aukera izanen duela Laxoa Elkartek.

Ugutx Zelaia, Oizko alkateak, banatu zituen txapelak eta trofeoak.

### Orain, kopa txapelketa

Uztaileko asteburuetarako Baztan-Erreka laxoa kopa antolatu du Laxoa elkartek. Finala abuztuaren 2an jokatu dute Arraiozen eta hamaika taldek eman dute izena, tartean, lehen aldiz, Donibane Lohizuneko Luzean taldea ariko da. Lapurtarrekin batera, Doneztebeko sei taldek, Arraiozko bik eta Irurita eta Oizko banak jokatu dute, kanporaketa sistemarekin.

Hamaika talde izanik, zozketaz bat (Irurita) bigarren fase-ra zuzenean pasa da eta bertze hamar taldeek kanporaketa zuzenak jokatu dituzte, bortz jokoetako joan-etorriko bi partida. Bigarren fasean, bortz talde irabazleak, zozketaz libre suertatu den taldea eta bi galtzaile onenak ariko dira, zortzi talde guztira. Kanporaketa hauetako lau talde irabazleek finalerdiak jokatu dituzte eta irabazleek finala abuztuaren 2an Arraiozen, bederatz jokoetara.

## LAXOA KOPA TALDEAK

### ARRAIOZ - SAGARDIA

Mikel MINDEGIA, Xabier MIHURA, Miquel MARITORENA eta Jon GAMIO

### ARRAIOZ - ZUBIONDO

Aitor ZUBIGARAI, Josu ETXANDI, Mikel ORGANBIDE eta Urki ETXANDI

### DONEZTEBE - AMEZTIA

Josu JUANENA, Xabier IBARRAOLA, Unai SAPUPPO eta Julen ETXEBESTE

### DONEZTEBE - APEZTEGUA

Jon APEZTEGIA, Ramon ETXEBESTE, Joseba JUANENA, Iban SANTESTEBAN

### DONEZTEBE - AVIA

Mikel TELLETXE, Asier MUTUBERRIA, Juan TELLETXE, Jokin APEZTEGIA

### DONEZTEBE - THE MOMENT

Pascual BERTIZ, Julen SAN MIGUEL, Koldo LEGARRA, Javier BERTIZ

### DONEZTEBE - TITI

Eloy GARCIA, Aritz JUANENA, Iñigo BELARRA eta Dani Pio GARCIA

### DONEZTEBE - ZARBO.NET

Javier ALMANDOZ, Xanti UTERGA, Felipe GANBOA eta Koteto EZKURRA

### DONIBANE LOHIZUNE - LUZEAN

Pello ETXELEKU, Iñaki MENDIOLA, David ETXEGARAI, Lander MENDIOLA

### IRURITA - MIGUELENE

Xabier BARBERENA, Gorka URTASUN, Egoitz PRIM eta Iñaki ETXANDI

### OIZ

Aimar SALDIAS, Ioritz ZELAIETA, Iker BERAU eta Ugutz ZELAIETA



Oizko plazan ikusi zuten aurten lehen aldiz laxoa partida bat. UTZITAKOAK



# Iera Agirre leitzarra txapeldun Master Cup txapelketan

Irunen ekainaren 28an jokaturako pilota goxoko finalean, Maite Ruiz de Larramendirekin bikote eginez, 22-7 irabazi zien leitzarrek Nagore eta Leire Galeano ahizpa gazteei



Zortzi finalistak, sari banaketaren ondotik. UTZITAKO ARGAZKIA

## TTIPI-TTAPA

Pilota zainetan daraman familia da Ruiz de Larramenditarrena eta urtetan izandako pasio horrek bere saria izan zuen ekainaren 28an Irunen, Maite eta Olatzek Binakako Laboral Kutxa Emakume Master Cup lehiaketako txapelak jantzita. Izebak, Iera Agirre leitzarrarekin batera, pilota goxoko lehen txapela irabazi zuen, Galeano ahizpei 22-7 gailenduta eta Olatz, ilobak, pilota mistokoa jantzi zuen. Bere bigarrena lortu duen Leire Garairekin batera, Olatz Arrizabala eta Gentzane Aldairi 14-22 irabazita. Baina guztiarengainetik, emakumeen pilota izan zen garaile Urantzu berrituan, pasa ditugunak pasa ondotik, giro bikaina bizi ahal izan zelako, erabilgarri ziren 351 eserlekuak betez, kanpoan jendea sartu ezinda geratu zen, eta normalean gizonezkoen erreserbatutako telebista parrilaren zatia ikuskizun polit batekin betez. Partiden artean, Irungo 22 Academy dantza akademiak giroa berotu zuen bere ikuskizun berritzailearekin.

Pilota goxoko finalean, Iera Agirre eta Maite Ruiz de Larramendiren indar eta eskarmentuak ez ziren aukerarik txikiena eman Nagore eta Leire Galeanoren ilusio eta gaztetasunari eta nafarrek txapela jantzi zuten 22-7 irabazita.

Pilota mistoko finalean, aldiz, Leire Garai eta Olatz Ruiz de Larremendiren freskotasuna eta kolpea izan ziren txapela eman zietenak (22-14).

eta hau ere?

**bai**

Etxea Automobila Istripuak Bizitza Ehorzketa

**Aseguruen** inguruko premiak dituzunean ere, Rural Kutxa da erantzuna.

CAJA RURAL SEGUROS RGA Professional Cycling Team

DENA SEGUROGA DA HURBIL BAZAUDE RURAL KUTXA

Bizitza-asegurua RGA Rural Vida S.A. de Seguros y Reaseguros-ekin kontratatzen da; IFK A-78.229.663 eta DGSFPko gakoa C-595; Etxe, Istripu, Ehorzketa eta Merkataritza aseguruak RGA Rural Vida S.A. de Seguros y Reaseguros-ekin kontratatzen dira; IFK A-78.524.683 eta DGSFPko gakoa C-616; Automobil aseguruak honako hauekin kontratatzen da: Liberty Seguros compañía de Seguros y Reaseguros S.A. (IFK A-48037642 eta DGSFPko gakoa C-0467); Reale Seguros (IFK A78520293 eta DGSFPko gakoa C-0613); Mapfre España (IFK A-28141935 eta DGSFPko gakoa C-0056); Aseguruak RGA Mediación, Operador de Banca Seguros Vinculado, S.A. ren bitartez merkaturatzen dira (IFK: A79490264); Madrilén du hurbidea (C/Basauri, 14) eta DGSFPren bitartekarien enregistrazioan inpartatuta dago DV-0006 gakoarekin, baita Madrilgo Merkataritza Enregistrazioan ere; 8205; Ibururik, 83; Tolosan, 8; sekzioan, M110186 orrian; Rural Kutxa RGA Mediación OSOVI, S.A. ren banaketa sareko kide da; Helbide honetan kontsultatu dezakezu zer aseguru eberrik dituen RGA Mediación-ek aseguru agentziako kontratuak: www.segurosga.es/Entidades\_contrato\_RGA\_Mediacion.pdf

**Ttipi Txartela**rekin  
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA  
MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA  
ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

[www.ttipitxartela.info](http://www.ttipitxartela.info)

**761** aleko  
irabazleak >



## ZOZKETAK

**Donostiako aquariuma - 2 sarrera**  
M<sup>a</sup> Carmen Elizainzin Bizente | IRURITA

**Onddo eta punto - Kamiseta bat**  
Dolores Ganboa Arretxea | SUNBILLA

**La Rhune - 2 sarrera**  
Silvestre Aleman Laurnagarai | LESAKA

**Wow park - 2 sarrera**  
Genaro Etxenike Organbide | URDAZUBI

**Irrisarri land - 2 sarrera**  
Kristina Fernandez Perez | ANIZ

**Zugarramurdiko Lezeak - 2 sarrera**  
Dionisia Balda Telletxea | EZKURRA

**Erein - lote 1**  
Bernarda Zabaleta Sagastibeltza | LEITZA

**Erein - lote 1**  
Miren Deskarga Baztarrika | IRUÑEA

**DONOSTIAKO AQUARIUMA**

[www.aquariumss.com](http://www.aquariumss.com)



2 sarrera

**BUATXABAL**

[www.buatxabal.com](http://www.buatxabal.com)



Kamiseta bat

**LA RHUNE**

[www.rhune.com/eu](http://www.rhune.com/eu)



2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

**Wow Park**

[wowpark.fr](http://wowpark.fr)



2 sarrera

**BKZ ABENTURA**

[www.navarraaventura.com](http://www.navarraaventura.com)



2 sarrera

**ASTIZKO LEZEAK**

[www.mendukilo.com](http://www.mendukilo.com)



2 sarrera

**MU  
SI  
KA**



- SUA, Ordu Beltzak
- KEU AGIRRETXEA, Ura eta Bakea

**airaka**

[www.airakamusic.com](http://www.airakamusic.com)

**LA  
GUN  
TZAI  
LEAK**



[www.ttarttalo.eus](http://www.ttarttalo.eus)



[www.turismozugarramurdi.com](http://www.turismozugarramurdi.com)

## URTEURRENA

### Maite AROZARENA BENGOTXEA

1958/07/18-2014/07/27  
VI. urteurrena

Zuk utzitako hutsunea inolaz ere ezin betez,  
bazter ugari utzi zenituen nigarrez,  
zure indarra denen erakusle,  
eritasunari sendotasunez aurre eginez,  
adiorik ez ama,  
egunero hemen zaudela pentsatzen,  
egunero naiz izar haundienari begira jeikitzen.



ZURE FAMILIA

Bere aldeko mezak uztailaren 18an Urdazubin eta uztailaren 19an Amaiurren

## URTEURRENA

### Gurutze Iparragirre Oskoz Arantzan, 2014ko uztailaren 15ean VI. URTEURRENA

Zorionekoa ni,  
haurtzaroan pasatu genituen orduak  
ez dizkidalako inork burutik kenduko,  
zorionekoa ni,  
zure bizitzako parte izatea tokatu zaidalako,  
zorionekoa ni,  
sei urte hauetan zure falta sumatuz  
zu maitatzen segitu dudalako,  
baina benetan zorionekoa ni,  
izan ginelako, orain zauden lekuan egonda ere izaten jarraitzen dugulako  
eta etorkizunean izaten segituko dugulako.

Maite zaitut!

Goizane lehengusina



## OROIGARRIA

### Joxe Manuel Martiarena Urrutia (Martinene)



Hasmentan ezetz erranagatik  
beala irrika baietz  
Baztandarrenen gure gidari  
zinen behiak eramanez  
zure ilerizko galtzerdi motzak  
ta akuilua nola ez  
momentu onak pasa ditugu  
Martinene hainbat urtez  
zauden lekura besarkada bat  
Gartzaingo gazteon partez

## OROIGARRIA

### Paula Cristina LEKUBERRIA ARIZTEGI

Lesakan, 2020ko apirilaren 2an.  
44 urte zituela



Sobera abudo joan bazinen ere,  
beti gogoan eta bihotzean  
izanen zaitugu.

ZURE FAMILIA

Bere agurreko meza uztailaren 18an izanen da, 19:30ean,  
Lesakako San Martin elizan.

## HERIOTZAK

- **Jose Martin Baraibar Astibia**, Leitzakoa, ekainaren 17an, 57 urte zituela.
- **Jabier Urrutia Sanzberro**, Elizondokoa, ekainaren 20an, 57 urte zituela.
- **Pedro M<sup>a</sup> Goñi Muñoa**, Elizondokoa, ekainaren 22an, 63 urte zituela.
- **Jose Joaquin Etxegia Sagastibeltza**, Goizuetakoa, ekainaren 22an, 64 urte zituela.
- **Laureano Martiarena Bergara**, Berakoa, ekainaren 23an, 83 urte zituela.
- **Antonio Zabaleta Caballero**, Aresokoa, ekainaren 23an, 77 urte zituela.
- **Francisca Iturregi Urrutia**, Elizondokoa, ekainaren 24an, 87 urte zituela.
- **Catalina Arretxea Agirre**, Berroetakoa, ekainaren 25ean, 88 urte zituela.
- **Jose Manuel Martiarena Urrutia**, Elizondokoa, ekainaren 26an, 67 urte zituela.
- **Adelaida Ascunce Etxart**, Amaiurkoa, ekainaren 26an, 90 urte zituela.
- **Maritxu Irungarai Dolagarai**, Iruritakoa, ekainaren 28an, 98 urte zituela.
- **Geno Errandonea Gainza**, Berakoa, ekainaren 28an, 73 urte zituela.



BAZTAN  
BIDASOA

Ehorzketa Zerbitzuak

BAZTAN: **ELIZONDO**n Santiago kalea, 79  
BORTZIRIAK: **BERA**n San Jose Beilatokian  
MALERREKA: **DONEZTEBE**n Aparan ind. 1-3

web: [funerariabaztanbidasoa.com](http://funerariabaztanbidasoa.com)

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA  
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU  
365 EGUN

948 48 95 50

[info@funerariabaztanbidasoa.com](mailto:info@funerariabaztanbidasoa.com)

*Betiko taldea zu laguntzeko*

# IRACHE

tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA (Kanttonberri, 14) | DONEZTEBE (Amezti, 13)  
ELIZONDO (Santiago, 52) | LESAKA (Zarandia, 18)

ETXEETAKO ZERBITZUA

Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritarra



948 63 74 04 / 948 19 70 70



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN  
AGÜ, A TU LADO

Aseguru guztiekin lan  
egiten dugu

Zuk erabaki

Zerbitzuak Baztanen, Bortzirietan,  
Bertzaranan eta Malerrekan

T. 948 05 90 90 [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

**Irunen** pisua salgai edo **Sunbillan** etxebizitza baten truke egiteko prest. ☎687 83 28 44.

**SUNBILLA.** Pisua salgai. Sukalde, egongela, 3 logela, komuna, ganbara eta bi balkoi ederrekin. Oso egoera onean dago. ☎682 40 24 17 / 686 27 92 52.

ERRENTAN HARTZEKO

**LESAKA.** Familia batentzat moduko pisua errentan hartu nahi dute udarako. ☎699 04 05 08.

KONPARTITZEKO

**IRUÑEA.** Iturrama auzoan uztaillaren 6tik aurrera logela bat libre geldituko da. 28-31 urte bitarteko bi neska eta mutil bat gara. 205 euro + gastuak, eta garaje plaza ere badago 50 euro/hilabete. Adin tarte horretako norbait nahi dugu eta gutxienez 6 hilabete egotea gustatuko litzaiguke. ☎618 23 93 13.

LANA

ESKARIAK

Adinekoak zaintzen, sukaldari laguntzaile eta garbitasunean esperientziadun emakumea lan bila. ☎632 50 78 36.

Haur Hezkuntza ikasten ari den Doneztebeko neska gazte bat udan umeak zaintzeko prest. Auto propioa, eta inguruko tokietara mugitzeko arazorik ez. Edozein zalantza argitzeko deitu konpromisorik gabe. ☎638 91 46 94.

ESKAINTZAK

**BERA.** Pagola harategian harakina behar dute egun osoz aritzeko. ☎948 63 00 54.

**BORTZIRIAK.** Aholkularitza bulego batean aritzeko langile bat behar dute. Lan-arloan aditua. Curriculumak: [laneskeintza31@gmail.com](mailto:laneskeintza31@gmail.com).

ZERBITZUAK

ZURGINDEGIAK

**ARANTZA**  
**ZURGINDEGIA**  
Klase guzietako zurgin lanak  
Eskatu aurrekontua  
konpromisorik gabe  
Joxe Miguel Errandonea · ARANTZA  
647 810 144 · 626 093 181

MOTORRAK

EROSI

50cc edo 75cc bigarren eskuko **mendiko motorra** erosi nahi dut. ☎676 96 53 94.

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



[www.erran.eus](http://www.erran.eus)



744 48 43 61



[info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus)

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta **ERRAN.EUS** webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Ttipi-Ttapak ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabteen erantzukizunik

TAILERRAK

**GANIX**  
Tailerra  
948 63 06 69  
Zalain Pol., 11 · BERA  
EUROMASTER zegoen lekuan

SALGAI



**Vespa Iris** salgai. 200 cc, 28.500 km, gasolina. 2021era arte IAT-ITV pasatua. 1.500 euro. ☎630 47 24 47.



**BMW 530-da** autoa salgai, 218 zaldi, oso egoera onean. 2004koa. 330.000 km eta IAT-ITV pasa berria. Barrua larru beltza. ☎647 97 88 32.

DENETARIK

SALEROSKETAK

Egoera onean dauden, 6 urteko **BH markako bi mendi bizikleta** salgai, bat emakumezkoentzat bertzea gizekoentzat. Deitu 09:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara. ☎948 63 05 67 / 605 71 67 30.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

**Aretze gizenak:**

- Idixkoak: €/kg kanal**
- Extra 4,02
  - 1.koa 4,90
  - 2.koa 3,75

**Urruxak: €/kg kanal**

- Extra 4,13
- 1.koa 3,99
- 2.koa 3,85

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

**Aretze tikiak**

- (15 egun ingurukoak).

**Aretze mestizoak**

- Urruxak 130,00
- Idixkoak 170,00

**Aretze nabarrak**

- Urruxak: 150,00
- Idixkoak 170,00

ZALDI-AZIENDAK

**Zaldikoak: €/kg**

- Sortu berriak: 3,26/3,36
- Zaldi-behorrak 1,87/2,04

ARDI-AZIENDAK

**Bildotsak**

- 6-8 kilokoak: 6,45/7,05
- 8-10 kilokoak: 5,10/5,30

ZERRI-AZIENDAK

**Zerrikumea** (19 kilo): 45 €

**Zerri gizona** 1,328 €

**Zerramak** 0,430€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua (ekainaren 19tik 26ra bitarteko prezioak)

Weibang markako **belarra mozteko makina** salgai, ia berria eta gasolinarekin ibiltzen dena. Bateriarekin funtzionatzen duen bazterrek mozteko makina ere salgai, ia berria. Deitu 09:00-13:30 eta 17:00-20:00. ☎948 63 05 67 / 605 71 67 30.



la-ia erabili gabeko **eguzkitakoa** edo parasola salgai. ☎948 58 02 22.



**Hiru lanpara** salgai, 110 eurotan. ☎685 76 44 00.



Bi hilabete baino ez dituen **ospitaleko ohatzea** salgai. Nules Plus, 90x190 cm eta gurpil independentek. Hiperfoam Plus 90x190 koltxoia. Koltxoi gainekoa Suavites 190x90 cm, transtapablea eta iragazgaitza. Zuntzeko burkoa, 90 cm-koa. Mahaitxo zuri tolesgarria. 1.200 euro. ☎673 54 87 67.

ANIMALIAK

OPARITZEKO



**LESAKA.** 5 katakume opari, ekainaren 18an jaioak. ☎688 94 99 99.



744 484 361

**ttipi-ttapa**

SALGAI



10 urteko **asto** arra eta 7 urteko asto emea bere umearekin salgai. 700 euro. ☎630 47 24 47.

**SANTESTEBAN TAILERRAK**

RENAULT  
Estreinatua gabea

**CLIO ZEN TCE 100 CV**  
14.100 € - 0 km - Sus. finan. lotu.

RENAULT MEGANE IV dci 110 CV - 2016 urte  
Nab. - Klim. - 6marxa - 13.950 € - 41.500 km  
[www.talleressantesteban.com](http://www.talleressantesteban.com)  
DONEZTEBE - T. 948 450 282 - info@talleressantesteban.com

**Mendaur Motor**  
Leitzako bidea • DONEZTEBE  
T. 948 450 333

Kotxe salmenta | Marka guztiak

Kotxe berriak

**SUZUKI**

**MITSUBISHI MONTERO 3.2,**

**SUZUKI GRAND VITARA, 1.9 DDIS**

**4x4**

[www.mendaurmotor.es](http://www.mendaurmotor.es)

**BAZTANGOIZA TAILERRAK**

**Citroen Berlingo**  
2013koa - 128.000km - 90 CV

**VW Sharan Sport**  
2014koa - 98.000km

**VW Transporter Multivan**  
2015koa - 140 CV - 49.000km

Ordoki ind. - Arizkun - BAZTAN  
T.Fax 948 453 493 - 617 969 847  
[baztangoiza@yahoo.es](mailto:baztangoiza@yahoo.es)  
[www.baztangoizataillerrak.com](http://www.baztangoizataillerrak.com)

GOITI ETA BEHEITI



Edukiontzia errekan



Irakurle batek Beratik bidalitako irudia da, aspertuta, azken aldian errepikatu den irudia baita. Honela dio: «noiz arte aquantatu behar dugu?».

URTEBETETZEAK



**Maren Belauntzaran Zabaleta** Aresoko sorgintxoak, ekainaren 20an 7 urte beto ditu. Zorionak panpoxa! Beti bezain bihurri segi! Muxu erraldoi bat!!



**Zorionak Julen Mitxelena Etxeberriari!** Ekainaren 28an 3 urte bete ditu eta muxu potolo bat familiaren eta bereziki attatto eta amattoren partetik.



**Xabier Ugalde Fagoagak** urtea bete du ekainaren 29an. Aunitz urtez eta muxu haundi-haundi bat Arantzako eta Azpeitiko familiaren partetik.



**Berako Alain Endara Rodriguezek** 8 urte beteko ditu uztailaren 13an. Zorionak futbolari! Atta, ama, Nahia eta Berako familiaren partetik.



**Irene Petirenak** 38 urte beteko ditu uztailaren 12an. Zorionak Aritz, Enaitz, Izarne eta attaren partetik. Ongi pasa eguna!



**Mikel eta Beñat Portu Barinagamenteria** leitzarrek 12 urte bete dituzte ekainaren 29an. Zorionak eta aunitz urtez familia osoaren eta bereziki Lesaka, Leitzeta eta Manzanosko lehengusu-lehengusinen partetik.



**Aunitz urtez Eñaut eta aitabix Xantiori,** uztailaren 10 eta 76 urte beteko dituztelakoz. Muxu haundi bat familiaren partetik. Ongi pasatu zuen eguna!!

**Aunitz urtez!**

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak TTIPI-TTAPAN!

**Internetez:** <http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartu.

**Bulegora etorrita:**

Etor zaitetz Ttipi-Ttاپaren bulegora: Koskontako bidea, 7-1, 31770 LESAKA.

SORTZEAK

- **Oinatz Marizkurrena Matxain,** Sunbillakoa, ekainaren 14an.
- **Goiatz Garde Etxeberria,** Etxalarkoa, ekainaren 15ean.
- **Kendall Orellana Peñaranda,** Legasakoa, ekainaren 16an.
- **Hodei Ariztoi Zahino,** Iturengoa, ekainaren 18an.
- **Xuban Ordoki Hualde,** Arantzakoa, ekainaren 21ean.
- **Urki Alzuri Loiarde,** Sunbillakoa, ekainaren 29an.
- **Enai Alzuri Loiarde,** Sunbillakoa, ekainaren 29an.

EZKONTZAK

- **Norberto Mitxelena Iturbide eta Delia Garcia Perez,** Lesakakoa eta Malagakoa, ekainaren 26an Lesakan.

# PLAZAN BAZAN



## ENGAINAGARRIAK



Hamar puska hauetatik erdiak irudi handitik hartuta daude eta bertze erdiak engainagarriak dira, hau da, antzekoak izan arren, ez datoz bat irudi nagusiarekin. Identifika itzazu.




**INTERNETEN ERE BAI !**  
<http://plazanbazan.eus/>



Kontsultatu soluzioak  
[www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak](http://www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak)


## HARA!

Gizakiok, batez bertze, borts milioi ile ditugu gorputzean. Batzuek arras iletsuak dirudite eta bertze batzuek ez, baina aldea ez dago kopuruan, ileen lodieran, luzeran eta neurrian baizik. Oinetatik hasi eta osa ezazu irudia. Zer izango ote den, zure kontu.



## SUDOKUA

Uda beteko fruta da meloia. Osa ezazu sudoku hau, MELOIA hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (M, E, L, O, I eta A). Gogoratu letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.



O		L	E		
	M		L		O
A				E	L
M		E		I	
I		M	A	L	
L					M

## ZER ARRAIO

Hiru esaldi hauetatik zuzena zein den asmatuz gero, IKOROSKI hitza ulertu duzun seinale.

- Ikurrinak gurutze zuria eta ikoroski berdea ditu.



- Ikoroskia ahotik botatzen den puzkarra da.

- Ikoroskiak harribitxi bereziak dira.



# Denda txikietan erosten duzunean, argiak pizturik jarraitzen du

